



# GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK EAE-N

2009ko urteko txostena



**HERRIZAINGO SAILA**

*Genero-indarkeriaren Biktimei  
Laguntzeko Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE INTERIOR**

*Dirección de Atención a las Víctimas  
de la Violencia de Género*

**GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO ZUZENDARITZA**

Herrizaingo Saila - Eusko Jaurlaritza.

2010eko martxoa

© Txosten hau ezin da kopiatu ezein euskarritan edo modutan (ez partzialki, ez osorik), Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren berariazko baimenik gabe.



## AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA</b>	<b>4</b>
<b>2. EAE-KO GENERO-INDARKERIAREN LARRITASUNA ETA HORREN AZTERKETA - 2009</b>	<b>8</b>
<b>2.1. GENERO-INDARKERIAREN HAINBAT MOTAREN KONTZEPTUALIZAZIOA</b>	<b>8</b>
2.1.1. Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria	8
a) Definizioa	8
b) Kausak	11
c) Etxeko indarkeriaren zikloa	12
2.1.2. Familia barruko indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa salbu)	15
2.1.3. Sexu-askatasunaren aurkako delituak	16
<b>2.2. GENERO-INDARKERIAGATIKO EMAKUME-BIKTIMIZAZIOAK EAE-N</b>	<b>18</b>
2.2.1. Genero-indarkeriaren ondorioz EAEn eraildako emakumeak	19
2.2.2. Genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioei buruzko EAEko datu orokorrak - 2009	22
2.2.3. Genero-indarkeriak eragindako emakume-biktimizazioei buruzko EAEko lurralde-datuak - 2009	33
2.2.4. Denbora-ezaugarriak	44
2.2.5. Ezaugarri soziodemografikoak	47
a) Biktimak	47
b) Erasotzaileak	52
2.2.6. Babes-aginduak	57
a) Eskatutako babes-aginduak	57
b) Epaitegiek emandako babes-aginduak	58
2.2.7. Beste datu batzuk	59
a) 2009an EAEn eskoltatutako emakumeak	59
b) Lokalizatuta egoteko eskumuturrekoak	59
c) Telefono mugikorrak	59
d) Etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren espedientek	59
<b>2.3. 2002-2009 BILAKAERA</b>	<b>61</b>
<b>3. INSTITUZIOEN ESKU-HARTZEA</b>	<b>64</b>
<b>3.1. PLANGINTZA</b>	<b>64</b>
<b>3.2. SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA</b>	<b>65</b>
3.2.1. Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren komunikazio-kanpaina	65
3.2.2. Azaroaren 25eko kanpaina	67
3.2.3. Hitzaldiak eta hainbat eremutako nahiz komunikabidetako esku-hartzeak	68
<b>3.3. PROFESIONALEN PRESTAKUNTZA</b>	<b>69</b>
<b>3.4. INFORMAZIOA ETA AHOLKULARITZA</b>	<b>69</b>
3.4.1. Institutuzio, talde eta erakundeentzako laguntza	69
3.4.2. Genero-indarkeriaren biktimentzako 24 orduko telefono bidezko arreta-zerbitzua (900 840 111)	74
a) Ezaugarriak eta funtzioak	74
b) Egindako dei guztiak	77
c) Datu soziologikoak	78



## HERRIZAINGO SAILA

Genero-indarkeriaren Biktimei  
Laguntzeko Zuzendaritza

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

Dirección de Atención a las Víctimas  
de la Violencia de Género

d)	Deien ezaugarriak	82
e)	Zerbitzuaren erabiltzaileei ematen zaien laguntza	85
<b>3.5. GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI LAGUNTZA EMATEKO BALIABIDEAK</b>		<b>87</b>
3.5.1.	Baliabide ekonomikoak	87
a)	35/1995 Legea, abenduaren 11koa, Indarkeriazko eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntzekoa eta sorostekoa	87
b)	Genero-indarkeriaren biktimentzako laguntza ekonomikoak	89
3.5.2.	Bizitegi-baliabideak	92
a)	Arabako bizitegi-baliabideak	92
b)	Bizkaiko bizitegi-baliabideak	93
c)	Gipuzkoako bizitegi-baliabideak	95
3.5.3.	Programa espezifikoak	98
a)	Aholkularitza juridikoa	98
b)	Laguntza psikologikoa	98
3.5.4.	Bestelako baliabideak eta programak	101
a)	Abokatu-laguntzako ofiziozko txanda	101
b)	Biktimei Laguntzeko Zerbitzuak (BLZ)	101
c)	Etxebizitza-alorreko laguntzak	102
d)	Enplegu-alorreko eskubideak eta laguntzak	109
<b>3.6. ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA</b>		<b>111</b>
<b>3.7. POLIZIA-JARDUERA</b>		<b>112</b>
3.7.1.	Arriskua neurtzeko inizpideak eta inizpide horiek aplikatzeko protokoloak	112
3.7.2.	Poliziarren babes-neurriak abian jartzeko baldintzak edo betekizunak	113
3.7.3.	Hainbat arrisku-egoeren aurrean abian jartzen diren neurri zehatzak	114
3.7.4.	Arriskurik eza eta, horren ondorioz, babes-neurrien premiarik eza aztertzeko irizpideak eta/edo horiek eteteko jarraibideak	116
3.7.5.	Alor horri dagokionez, Ertzaintzaren eta udaltzaingoaren arteko koordinazio-neurriak	119
<b>3.8. GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO ZUZENDARITZAREN ETORKIZUNEN ERONKAK</b>		<b>121</b>
3.8.1.	Genero-indarkeriaren biktimentzako laguntza	121
3.8.2.	Instituzioen arteko koordinazioa eta lankidetzak	122
3.8.3.	Indarkeriaren sentsibilizazioa, prebentzioa eta ikerketa	123



## 1. SARRERA

Txosten hau Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak egin du, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrak, oro har, genero-indarkeriaren alorrean kontzientziatzen eta sentsibilizatzen laguntzeko, bai eta herritar horiek gizarte-arazo larri honen aurrean instituzioak ematen ari diren erantzunaren parte egiteko ere.

Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren iritziz, genero-indarkeria egunero eta sistematikoki mundu osoko emakumeek jasaten duten diskriminazioaren eta desberdintasunaren adierazpen latzena da, eta, beraz, beste terrorismo-mota bat dela irizten dio.

Konparazio horren xedea ez da beste indarkeria-motei garrantzia kentzea, baizik eta instituzioek eta gizarteak indarkeria-mota honen aurrean arreta eta gaitzespen bera ager dezaten eskatzea; hain zuzen, indarkeria-mota honen biktimak gehiago dira beste terrorismo-ekintza batzuen biktimak baino, baina azken horiek oihartzun handiagoa dute komunikabideetan, eta gizartean ere erantzun nahiz alarma handiagoa eragiten dute.

Genero-indarkeria beste terrorismo-motatzat hartzea ez da gauza berria; izan ere, SARI NUSSEIBEH Jerusalemgo Al Quds unibertsitateko lehendakariak honako hau adierazi zuen El País egunkarian, 2001eko irailaren 29an argitaratu zuen artikuluan:

"terrorismoa beldurra sortzeko bitartekotzat defini daiteke, eta, horren ondorioz, ekintza zehatz bat egitera —edo ez egitera— behartzeko bitartekotzat. Terrorismoa indarrez "konbentzitzeko" saiakera bat da, edukirik gabeko mekanismo psikologiko bat ikuspegi arrazionalaren arabera; antzinako logikari erromatarrek, hain zuzen, honela deskribatu zuten, termino linguistikoetan: "argumentum ad baculum" falazia. Noski, hutsik dagoela esatean ez da adierazi nahi pentsatu gabeko mekanismo bat denik; hau da, adierazi nahi da ez dela arrazoizkoa eta ezin dela jarrera arrazional edo moralen oinarri izan.



Hainbat terrorismo-mota daude, eta bakoitzak bere mekanismoak erabiltzen ditu "konbentzitzeko". Estatuek terrorismoz joka dezakete bertako herritarren aurka, subirano eta agintariak beren mendekoen aurka, zentinelek esklaboen aurka, senarrek emazteen aurka, gurasoek seme-alaben aurka, eta nazioek bata bestearen aurka. Baina horiek guztiek dute helburu komun bat; hau da, pertsonarengan izua sortzen dute, eta askatasunez aukeratzeko ahalmena kentzen diete, mendean izateko eta horien baiezkoa lortzeko".

Azkenaldian, zenbait ingurutan ohiko bihurtu da "terrorismoa" terminoa erabiltzea genero-indarkeriari erreferentzia egiteko.

Gure iritziz, egokia eta adierazgarria da genero-indarkeria terrorismo-motatzat hartzea, indarra eta beldurra erabiliz nagusitasunari eusteko saiakera bat baita.

Esperanza Bosch-ek eta Victoria Ferrerrek adierazi dute terrorismo "misoginoa" dela; izan ere, misoginia —emakumeenganako mespretxua izatea, gizonek emakumeak kontrolatzea legitimoa eta beharrezkoa dela pentsatzea— dago terrorismoz jokatzeko modu horren azpian, eta horrek justifikatzen du<sup>1</sup>.

Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza, beraz, mota GUZTIETAKO genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko politikak zuzentzeaz eta koordinatzeaz arduratzen den organoa da, etxeko tratu txarretara eta sexu-erasoetara soilik mugatu gabe.

Horrenbestez, Zuzendaritza honen xedea da edozein motatako indarkeria jasaten duten emakume biktimei laguntzea; genero-indarkeria, zehazki, honela defini daiteke: "emakumeek emakume izate hutsagatik jasaten duten indarkeria, emakumeen eta gizonen arteko botere-harreman desberdinen baitan". Genero-indarkeria deritzo, erasotzailearen eta biktimaren generoak estuki lotuta baitaude indarkeria honen azalpenarekin; horrez gain, emakumei eragiten die, emakume izate hutsagatik. Indarkeria-mota ugari daude gizon edo emakume izatearekin inolako loturarik ez dutenak; kasu honetan, aldiz, gizonek erabiltzen duten

---

<sup>1</sup> Bosch, E, eta Ferrer, V.: *La voz de las invisibles. Las víctimas de un mal amor que mata*. Cátedra, Madrid, 2002, 35. or.



indarkeriaz ari gara, emakumeak kontrolatzeko eta horien gaineratik egoteko erabiltzen duten indarkeriaz<sup>2</sup>.

Beraz, bikotekideak edo bikotekide ohiak erabilitako indarkeriaz gain, Zuzendaritza honen eskumen-esparruan sartzen dira eta, horrenbestez, txosten honen xede dira familia barnean gertatzen diren indarkeria-kasuak (bikotekidearena edo bikotekide ohiarena salbu) eta sexu-askatasunaren aurkako delituak ere; besteak beste: sexu-gehiegikeria, sexu-erasoa, sexu-jazarpena eta laneko, hezkuntza-zentroetako edo beste leku batzuetako larderia-kasuak, exhibizionismoa, sexu-probokazioa, adingabeen galbideratzea, behartutako prostituzioa eta emakumeen nahiz neska txikien salerosketa, eta adingabeen pornografia.

Testuinguru horretan, Gobernuak uste du emakumeen aurkako indarkeriak beste edozein indarkeria-motari ematen zaion arreta bera merezi duela instituzioen aldetik; horrek, hain zuzen, isla izan zuen Patxi Lopez lehendakariaren inbestidura-saioan, genero-indarkeriaren aurkako borroka Gobernuaren lehentasunezko helburutzat hartu baitzuen. Hala, aurreratatu zuen zeregin hori betetzeko zuzendaritza espezifiko bat sortuko zutela Herrizaingo Sailaren baitan.

Zehazki, lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailak sortu, kendu eta aldatu nahiz horien funtzioak eta jarduera-eremuak zehazten dituenak (2009ko maiatzaren 9ko EHAA, 86. zk.), bere 6. artikuluan —1. ataleko i) hizkia—, beste jarduera-esparru bat zehaztu du Herrizaingo Sailerako, genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko politikak zuzentzea eta koordinatzea, hain zuzen.

Ildo berean, Herrizaingo sailburuak, Sailaren jarduera-ildo nagusiak Legebiltzarraren egoitzan aurkeztu zituenean, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza sortzea aipatu zuen, egin zitezkeen jarduera garrantzitsuen artean.

Jarduera-esparru hori Herrizaingo Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuarekin gauzatu da

---

<sup>2</sup> Alberdi, I. eta Matas, N.: *La violencia doméstica. Informe sobre malos tratos a mujeres en España*. La Caixa Fundazioa, Gizarte-ikasketen bilduma. 10. zk., 2002, 23. or.



(2009ko irailaren 7ko EHAA, 171. zk.); horren bidez, beste zuzendaritza bat sortu dute, *Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza*.

Hurrengo lerroetan, 2009ari buruzko datuak aurkeztuko dira, eta horiek lagungarri izan daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean, EAE) genero-indarkeriaren arazoaren neurria eta larritasuna ulertzeko.

Nolanahi ere, adierazi behar da datu horiek ez direla errealitatearen adierazgarri zehatza, ondo dakigunez; hain zuzen, gizarte-arazo honi buruz hitz egitean aditu askok adierazi duten bezala, egoera hau "icebergaren tontorra" da eta, beraz, ezin dugu arazo horren argazki finkoa atera. Izan ere, salaketa jartzea erabakitzen duten emakume horien errealitatea soilik ezagutzen dugu, modu batean edo bestean indarkeria-egoera horrekin amaitzea erabakitzen duten emakumeen errealitatea; baina, oraindik, asko dira ezagutzera ematen ez diren kasuak.





## 2. EAE-KO GENERO-INDARKERIAREN LARRITASUNA ETA HORREN AZTERKETA - 2009

### 2.1. GENERO-INDARKERIAREN HAINBAT MOTAREN KONTZEPtualIZAZIOA

#### 2.1.1. Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria

##### a) Definizioa

Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaz hitz egiten dugu emakumeei kalte edo sufrimendu fisiko, sexual edo psikologikoa eragiten dien edo diezaioketen indarkeriazko ekintza bati erreferentzia egiteko, betiere erasotzailearen eta biktimaren arteko egungo edo aurretiazko harreman afektiboan oinarritzen denean. Emakumea kontrolatzeko, azpian hartzeko eta mendean izateko nahiz afektibitate-harremanari dagokionez agintezko eta boterezko egoera batean jarraitzeko gizon batek eragiten duen indarkeriari egiten diogu beti erreferentzia.

Arazo horri buruzko ikerkuntzen arabera, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragin ditzakeen tratu txarren edo indarkeriaren bost mota bereiz ditzakegu; hots:

- **Fisikoa:** min fisikoa eragiten duen edo eragin dezakeen eta istripuz gertatu ez den edozein ekintzatzat definitu izan da; besteak beste, multzo honetan sartzen dira honako ekintza hauek: bultza egitea, kolpatzea, objektuak botatzea, tratamendu mediko-kirurgikoa behar duten lesioak eragitea, ospitaleratu ez arren lesioak eragitea, edota emakumea heriotzara eraman dezaketen lesio larriak sortzen dituzten edo sor ditzaketen ekintzak egitea. Tratu txarren multzo horretan sartzen da, halaber, erasoek eragindako gaixotasunak edo lesioak izanda laguntzarik ez ematea. Tratu txar mota hori da bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria-modurik ezagunena, horren inpaktua



emakumeen gorputzean nabaritzen baita askotan; beraz, lehen begiradan, tratatu txarren beste moduak baino agerikoagoa da.

- *Psikologikoa*: honela definitzen da: "behartzea xede duten hitzezko jokabideak (esaterako, irainak) edo hitz gabeko jokabide behartzaileak dira, bikotekidearen gorputza xede ez dutenak (esaterako, atak kolpatzea edo objektuak suntsitzea)<sup>3</sup>". Tratu txar psikologikoen min psikologikoa, norbere buruarenganako konfiantzaren galera edo sufrimendua sortzen duten nahitako jokabideei egiten diete erreferentzia: irainak, laidoak, oihuak, isiluneak, mehatxuak, salaketak, bestearen ideien kritikak... Jokabide horiek jendearen aurrean nahiz pribatuan izan daitezke; beraz, oso zaila da horiek hautematea, erasotzaileak portaera hori biak daudenean soilik izaten badu. Zenbait adituk —esaterako, Ganley doktoreak (Washingtoneko Center for Women Policy Studies)— beharrezkoa irizten diote gehiegikeria psikologikoa eta gehiegikeria *emozionala* bereizteari. Jokabideak berdinak dira, baina indarkeria psikologikoa gertatzen den testuinguruan indarkeria fisikoaren gertaera bat, gutxienez, izaten da; hori dela-eta, mehatxuek, irainek edota larderiek minarekin lotutako balioa hartzen dute, bizi izandako gehiegikeria fisikoa gogorarazten baitie eta hura errepikatzeko beldurra sortzen baitzaie. Aldiz, gehiegikeria emozionala gehiegikeria-modu soila da, gehiegikeria fisikoaren aurrekaririk gabea; burutsuagoa da, baina min edo egonezin emozional handia eragiten du hainbat jokabideren ondorioz: irainak, axolagabetasun-jarrerak, maitasun ezaren adierazpenak... Beraz, indarkeria psikologikoaren kexak ez dira gutxietsi behar, eragiten duten ezinegona eta pilatutako mina indarkeria fisikoa bezain kaltegarriak izan baitaitezke.
- *Sexuala*: tratatu txar sexuala edo sexu-gehiegikeria emakumearen nahiaren aurka izandako edozein sexu-harreman da. Besteak beste, honako ekintza hauek aipatu behar dira: sexu-harreman bat izatera behartzea (ezezagun batek eginez gero, bortxaketatzat hartuko litzakete, dudarik gabe); biktima

<sup>3</sup> Jiménez Casado, C.: *Malos tratos conyugales a mujeres en el área de Sevilla*. Andaluziako Emakumearen Institutua, Sevilla/Málaga, 1995, 20. or.



behartzea mina eragiten dioten, desatseginak zaizkion edo, besterik gabe, egin nahi ez dituen jarduerak egitera; sexualki iraintzea; sexu-harremanak izateko bere modua kritikatzeko; sexu-objektutzat hartzea... Tratu txar sexualei buruz hitz egiten denean, adingabeei lotuta egiten da askotan; izan ere, bikotean, sexu-indarkeria naturalizatu egin da, eta, beraz, ez da indarkeriatzat hartzen. Oro har, emakumeek ez dute onartzen sexualitate behartua bortxaketa bat denik, eta ekintza horrek dakarren tratu txar fisikoa eta emozionala ukatzen dute. Izan ere, sexua, nahiz eta behartua izan, emakumearen eginbehartzat hartzen dute, bai eta gizonak bikotearen baitan duen eskubidetzat ere.

- *Soziala:* tratu txar mota hau emakumea isolatzen denean gertatzen da; hau da, bere senideengandik eta lagunengandik urrunarazi, jendaurrean gaizki utzi edo baztertu... Jokabide horiek guztiek kalte psikologikoa eragiten dute; horregatik, aditu batzuentzat ez da beharrezkoa tratu txar sozialen kategoria egotea, era horretako jokabideak edo jarrerak tratu txar psikologikoen baitan sartzen baitituzte. Nolanahi ere, eta nahiz jakin tratu txar sozialaren baitan sartzen diren jokabide guztiek sufrimendu psikologikoa eragiten dutela, uste dugu egokia dela tratu txar berezi eta espezifikotzat hartzea; izan ere, era horretako jokabideak maiz agertzen dira bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria-kasuetan, eta, horrez gain, garrantzi berezia dute, biktimarentzat zailagoa baita tratu txarren egoera batetik irtetea isolatuta egonda.
- *Ekonomikoa edo finantzarioa:* tratu txar mota honen xedea da "biktimak informaziorik ez izatea edo dirua erabiltzeko baliabiderik ez izatea<sup>4</sup>". Tratu txar ekonomikoak lotura handiagoa du baliabide ekonomikoak erabiltzeko lehentasunekin, baliabiderik ez izatearekin baino. Tratu txar ekonomikoa gizarte-maila guztietan gertatzen da; modu zehatzak aldatu egiten dira, baina biktima kontrolatzeko eta lotzeko jarrerak ez dute loturarik baliabideen guztizkoarekin eta aberastasun-mailarekin. Tratu txar ekonomikoaren bidez, gizonek zorrotz kontrolatzen dute emazteak dirua erabiltzeko

<sup>4</sup> Emakunde. "Emakumeen aurkako indarkeria" txostena, 2009ko apirilean eguneratua, 5. or.



duen modua; kontrol-egoera hori berdin gertatzen da emazteak diruz ordaindutako lana izan ala ez izan.

Dena den, ohikoena da harreman batean tratatu txar mota bat baino gehiago izatea.

## b) Kausak

Teoria ugari daude bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aurkako indarkeria edo horren zabaltasuna azaltzen dutenak; arazo hori oinarri hartuta egin diren ikerketetan honako ibilbide hau egin da<sup>5</sup>:

- *Eredu psikiatrikoa* izan zen lehena, eta tratatu txarrak ematen dituen pertsonaren ezaugarriak azpimarratu zituen (izaera, gaixotasun psikikoa, alkoholismoa eta droga-mendekotasuna).
- *Eredu psikosozialak* bi alderdi zituen oinarri:
  - Bikote-harremanean izaten diren zailtasunak; horietan, eraso ezkontideen arteko elkarreraginaren ondorio da.
  - Familian bertan ikasitako indarkeria, belaunaldiz belaunaldi transmititutako indarkeria.
- Azkenik, *eredu soziokulturalak* gizarte-egituraren beraren garrantzia azpimarratzen du, generoaren arabera sozializazioaren eta indarkeriarekiko tolerantziaren bidez. Familian genero-indarkeria hain zabalduta eta onartuta egonik, espezialistek zalantzan jarri dute pertsonaren edo norbanakoaren ezaugarriekin lotutako azalpenen balioa; horregatik, gizarte osoari dagokion azalpen bat proposatu dute. Ildo horretan, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan emakumeek jasaten duten indarkeria ez litzateke, funtsean, eraso eragiten duten faktoreen ondorio (alkohola, langabezia, pobrezia...), baizik eta emakumeek egungo gizartean bizi duten desberdintasun-egoera errealaren ondorio.

Azken batean, Esperanza BOSCHek eta Victoria FERRERek adierazten duten bezala, emakumea mendeko gizakitzat hartzen duten gizon guztiak erasotzaileak izan daitezke, eta, beraz, tratatu

---

<sup>5</sup> Emakunde. Op. cit., 5. eta 6. or.



txarren emaileak eta gaizkileak<sup>6</sup>. Aintzat hartu behar da emakumearen aurkako tratu txarren oinarrian matxismo handia dagoela, bizi garen gizarte androzentrikoaren eta patriarkalaren ondorio dena, hain zuzen; matxismo horren eraginez, gizonen eta emakumeen artean boterea modu desberdinean banatzen da, eta arau batzuk ezartzen dituzte, emakumeen gaineko kontrola bultzatzen dutenak eta arazoa txikitzen saiatzen direnak. Hori guztia dela-eta, garrantzitsua da jokabide hori prebenitzen ahalegintzea, belaunaldi berriak informatuz eta heziz; izan ere, emakumearen aurkako tratu txarrek konponbidea izango dute epe luzera, balio ez-sexisten arabera heziketaren bidez.

### c) Etxeko indarkeriaren zikloa<sup>7</sup>

Indarkeria-ziklo horrek etxeko indarkeriaren prozesua deskribatzen duten fase nagusiei egiten die erreferentzia; era berean, azaltzen du zergatik den hain zaila biktima batzuentzat jasaten duten indarkeriari aurre egitea eta indarkeria hori sortzen duen pertsonarengandik urruntzea erasoaren fasea amaitu eta gero. Aitzitik, kontuan izan behar da indarkeriak ez duela nahitaez ziklikoa izan behar, askotan bat-batean agertzen baita eta ez baitu ez justifikaziorik ez erritmorik behar. Indarkeria-ziklo hori WALKER doktoreak deskribatu du.

Hona hemen, ziklo horretan izaten diren hainbat fase:

- *Tentsioa pilatzen joaten den edo tentsioak gora egiten duen fasea*: tentsioa liskar txikien eraginez sortzen da; egoera horren aurrean, emakumeak frustrazioa sentitzen du, eta, horrez gain, egoera nahasi batean bizi da, une oro. Emakumea kexatzen denean, gizonak ukatu egiten du: "guztia arazo bihurtzen duzu". Azkenean, emakumeak bere izatea zalantzan jartzen du, eta gertatzen den ororen errudun sentitzen da. Mirariak egiten ditu hazten doan tentsioa arintzeko, bere

<sup>6</sup> Bosch, E, eta Ferrer, V.: Op. cit., 225. or.

<sup>7</sup> Walker, L.: *The Battered Woman*. Harper and Row, New York, 1979.



burua lasaitzeko gizona arriskutsuago bihurtu baino lehen; baina beti esaten edo egiten du zerbait gaizki, edo beti dago egin behar duen baina egiten ez duen zerbait... Egin dituen "akatsak" direla-eta barkamena zenbat eta gehiago eskatu, are eta gehiago haserretzen da hura. Azkenean, indarkeriazko gertaera arinak gertatzen dira: irainak, gutxiespenak, sarkasmoak, axolagabekeria...; hots, tratu txar psikologikoak.

- *Indarkeriak edo eraso fisikoak eztanda egiten duen fasea: fase honetan, kontrola guztiz galtzen da, eta tratu txarrak hasten dira, ez hitzezkoak eta psikologikoak soilik, baita fisiko eta sexualak ere. Emakumea ez da erreakzionatzeko gai, denbora pasa ahala bikotekideen artean sortu den balantza-egoera desberdinak geldiarazi egiten du; erasotzaileak du botere guztia, eta biktima ahul eta indargabe sentitzen da. Zehazki, une horretan bizi du biktimak WALKER doktoreak "ikasitako babesgabetasun-egoera" izendatzen duena; horren arabera, indarkeria-ekintzak jasaten dituzten pertsonengan sentimendu berezi bat sortzen da, edozer gauza egin arren emaitza berdina izango delakoa, alegia.*
- *Damuaren edo barealdiaren fasea: fase hau "eztei-bidaia" edo "maitasun-interludioa" izendatzen dute modu arruntean, eta, bertan, erasotzaileak indarra ematen dio biktimari bere ondoan jarrai dezan. Horretarako, erasotzailea damututa agertzen da, barkamena eskatzen du, negar egiten du, eta zin egiten du eraso ez dela sekula berriro gertatuko eta aldatu egingo dela. Azken batean, biktima konpentsatzea da, zenbait neurri hartu ez ditzan, gizona salatzea edo uztea, esaterako; horrela, emakumeak bere erasotzailearekiko duen mendekotasun emozionala areagotu egiten da, eta erasotzaileak lortzen du emakumeak itxaropena berreskuratzea, bai harremanari dagokionez, bai erasotzaileak aldatzeko duen aukerari dagokionez. Horrez gain, gertaerak minimizatzea, zuritza edo ukatza irits daiteke biktima. Erasotzaileak damua agertzean, biktima maitemindu zen gizonaz gogoratzen da, eta, orduan, zenbait adituk (Dutton eta Painter) "batasun traumatikoa" izendatu dutena gertatzen da; izan ere,*





biktimaren beldurra gutxitzean maitasuna agertzen da berriro, eta biktimak gezurrezko "boterea" lortzen du harremanean<sup>8</sup>.

"Eztei-bidaia" izeneko fasean sortzen den ilusio faltsuaren atzetik, beste tentsio-ziklo bat izaten da; suminkortasuna sortzen da berriro, eta, hasitako beste ziklo horretan, erasotzaileak berriro ere beldurra eta obediencia sortu nahi izaten ditu, errespetuaren eta berdintasunaren ordean. Bikote bakoitzak bere erritmoa du, eta faseek denbora-epe bat irauten dute, bikote bakoitzaren arabera; hala ere, faseak gero eta laburragoak izaten dira, eta indarkeria, berriz, gero eta gogorragoa.

Hala, zikloa errepikatzen den maitasuna eta egoera hartzen ari den arriskua handitu egiten dira, indarkeria-mailan gora egin ahala. Oro har, bikotekidearen indarkeriaren biktima den emakume batek laguntza eskatzen duenean, jada, hainbat bira emanak izaten ditu indarkeria-zikloan.

Azpiarratu behar da, kasu gehienetan, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriaren biktima diren emakumeak ez direla ohartzen ziklo horren barruan daudenik; indarkeriazko gertaerak ukatu edo minimizatu egiten dituzte, eta uste dute gertaera isolatuak direla. Gainera, uste dute beren jokabidearekin bikotekidearen alderdi positiboak indartu behar dituztela; horrenbestez, askotan, emakumeek beren burua egiten dute jasaten duten indarkeriaren erantzule. Noski, indarkeria kontrolatzeko egiten dituzten saiakerek fruiturik ematen ez dutenean, erruduntasun-sentimendua eta autoestimua baxua agertzen dira.

Indarkeria-ziklo hori bizi duten emakume biktimek zailtasun ugari izaten dituzte bertatik irteten saiatzea erabakitzen dutenean:

- Zailtasun *afektiboak*, biktimei pena ematen baitie erasotzaileak, uste dute oraindik maite dituztela...

---

<sup>8</sup> Dutton, D.G. eta Painter, S.L.: "Traumatic bonding: The development of emotional attachment in battered women and other relationships of intermittent abuse". *Victimology: An International Journal*, 6, 1981, 139-155. or.



- *Biktimek jasotako sozializazioarekin* lotutako zailtasunak; izan ere, ezkontzari edo bikote-harremanari gehiegizko balioa ematen diote, eta, beraz, ez dute onartzen "beren" harremanaren porrot gisa bizi izaten duten egoera.
- *Jasotako tratu txar psikologikoen ondorio* diren zailtasunak, emakumeek beren buruarengan zuten konfiantza eta autoestimua suntsituta izaten baitute.
- *Lan-arazoekin* lotutako zailtasunak; hau da, biktimak lanik gabe daudenean edo prestakuntza baxua dutenean.
- *Zailtasun ekonomikoak*, emakume batzuek beren erasotzaileekiko izan dezaketen mendekotasun ekonomikoari lotuta edota harremana eteteak eragin diezaiekeen status-galerarekin lotuta.
- *Babesgabetasun-sentimenduarekin* lotutako zailtasunak, besteak beste, salaketaren eraginkortasunean konfiantzarik ez dutelako.

### 2.1.2. Familia barruko indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa salbu)

Txosten honetan, familia barruko indarkeriaz hitz egitean, emakumeei kalte edo sufrimendu fisiko, sexual edo psikologikoa eragiten dien edo diezaiekeen eta familia-harreman baten baitan (bikote-harremana edo bikote ohien harremana salbu) gertatzen den indarkeriazko edozein ekintzari egingo diogu erreferentzia.

Beraz, familia barruko indarkeria terminoa erabiliko dugu familia-harremanen testuinguruan gertatzen diren eta biktimengan hainbat mailatako kalteak eragiten dituzten botere-abusuaren modu guztiei erreferentzia egiteko.

Indarkeria-mota hori gehien jasan dezaketen taldeei dagokienez, neska txikiak eta adineko emakumek azpimarratu behar dira.





Familia barruko indarkeriaren (bikotekideak edo bikotekide ohiak egindako indarkeria salbu) biktima diren emakumeak hiru indarkeria-motaren biktima izan daitezke funtsean:

- *Fisikoak*: biktimaren segurtasun fisikorako arriskutsu edo kaltegarri izan daitezkeen eta istripuz gertatu ez diren ekintzak dira.
- *Psikologikoak*: istripuz gertatu ez diren ekintzak, biktimaren segurtasun psikikorako kaltegarriak edo arriskutsuak izan daitezkeenak.
- *Sexualak*: biktimaren baimenik gabe egiten den edozein sexu-portaera.

### 2.1.3. Sexu-askatasunaren aurkako delituak

Sexu-askatasunaren aurkako delituen baitan, familiaz kanpo eta/edo eremu afektibotik kanpo, gizon batek emakume baten aurka egiten duen indarkeriazko edozein ekintza sexuarekin lotzen diren delituak sartzen dira.

Horien artean, honako indarkeria-mota hauek daude sartuta:

- *Sexu-erasoa* (Zigor Kodearen 178-180 artikulua): indarkeriaren edo larderiaren bidez egiten da; kasurik paradigmaticoena bortxaketa da, ekintza hori burutzeko dauden hainbat formatan.
- *Sexu-gehiegikeria* (Zigor Kodearen 181-183 artikulua): indarkeriarik edo larderiarik gabe edo biktimaren baimenik gabe gauzatzen da. Multzo honetan sartzen dira, besteak beste, beren nahimen- edo adimen-gaitasuna mugatua izateagatik baimena emateko gai ez diren pertsonen egindako gehiegikeriak (adingabeak, zentzumenik ez duten edo adimen-desgaitasunen bat duten pertsonak...).
- *Sexu-jazarpena* (Zigor Kodearen 184. artikulua): lan-harremaneko, irakaskuntza-harremaneko edo zerbitzuak emateko esparru batean, norberarentzat edo beste pertsona batentzat usu eta modu jarraitu batean sexu-mesedeak egiteko eskatzea da; horren ondorioz, biktima larderia larriko egoera iraingarri edo umilgarrian aurkitzen da.



- *Exhibizionismoa* (Zigor Kodearen 185. art.): adingabeen edo gutxitasunen bat duten pertsonen aurrean, erakustaldi lizunak egiten direnean edo beste pertsona bat horretara behartzen denean izaten da.
- *Sexu-probokazioa* (Zigor Kodearen 186. art.): adingabeen edo gutxitasunen bat duten pertsonen artean material pornografikoa saltzea, zabaltzea edo erakustea, zuzeneko edozein bitarteko erabiliz.
- *Adingabeen galbideratzea* (Zigor Kodearen 187, 188.3, 189.4-5-7 art.): delitugilea honako pertsona hau izango da: ekintza hori eginarazten, sustatzen, bultzatzen edo laguntzen duena; adingabe bat edo gutxitasuna duen pertsona bat pertsonaren beraren bilakaera edo garapena kaltetu dezakeen sexu-portaera bat egitera behartzen duena; edota bere ahalean, tutoretzan edo zaintzan adingabe bat edo gutxitasuna duen pertsona bat izanik eta horren prostituzio-egoera ezagututa, egoera horretan jarraitu ez dezan ahaleginik egiten ez duena.
- *Prostituzio behartua* (Zigor Kodearen 188.1-2 art.): indarkeria, larderia edo gezurra erabiliz nahiz nagusitasun-, premia- edo ahultasun-egoeraz baliatuz, pertsona adindun bat prostituzioan jardutera edo jarduera horretan jarraitzera behartzea.
- *Adingabeen pornografia* (Zigor Kodearen 189.1-2-3 art.): adingabeak edo gutxitasunen bat duten pertsonak helburu exhibizionistekin edo pornografikoekin erabiltzea, eta era horretako ikuskizunetan (jendaurrekoak nahiz pribatuak) edo edonolako material pornografikoetan (horien euskarria zeinahi izanda ere) agertzera behartzea, bai eta jarduera horiek finantzatzea ere. Halaber, delitu hori egingo da adingabeak edo gutxitasuna duten pertsonak erabiliz egin diren material pornografikoak saldu, banatu edo erakusten direnean, horiek edonolako euskarritan sortzea, saltzea, banatzea edo erakustea errazten denean, edota helburu horietarako materialak izatean, nahiz eta materialak atzerrikoak edo ezezagunak izan. Azkenik, multzo honen baitan sartuko da nork bere erabilerarako material pornografikoa izatea, baldin eta hori egiteko adingabeak edo gutxitasunen bat duten pertsonak erabili badira.



## 2.2. GENERO-INDARKERIAGATIKO EMAKUME-BIKTIMIZAZIOAK EAE-N

Hurrengo orrietan aurkeztuko diren datuen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan gertatutako genero-indarkeriari buruzko informazio estatistiko garrantzitsua jaso da, Ertzaintzak bere jarduera- eta eskumen-esparruan duena, hain zuzen.

Datu horiek, une oro, genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioei egiten diete erreferentzia; hots, garrantzitsua da biktimizazioa eta biktima kontzeptuak bereiztea, biktimizazioek gertaerak adierazten baitituzte eta biktimek pertsonak.

- *Biktimizazioak*: pertsonak arau-hauste penal baten ondorioak denbora luzez jasaten dituzten aldiak, Ertzaintzak bere polizia-agirietan hala identifikatu dituenak; esate baterako, mehatxuen biktima den pertsona batek salaketa bat baino gehiago aurkeztuz gero, salaketa bakoitzak biktimizazio bat eragingo luke.
- *Biktimak*: denbora luzez, arau-hauste penal bat jasaten duten pertsonak, Ertzaintzak bere polizia-agirietan hala identifikatu dituenak; esaterako, aurreko adibidearekin jarraituz, biktima bakarra izango litzateke.

Aurreko atalean adierazi bezala, genero-indarkeriaren oinarritzko hiru mota bereizi ditugu:

- 1) *Bikote edo bikote ohien* harreman batean, emakumearen aurka gizonak eragiten duen indarkeria.
- 2) *Familia barruan*, emakumearen aurka gizonak gauzatzen duen indarkeria (gurasoak, seme-alabak, anai-arrebak...).
- 3) *Aurreko esparruetatik kanpo*, gizon batek emakume baten aurka eragindako sexu-indarkeria (hezkuntza-alorrean, lanean, auzoan, aurretiko inolako harremanik gabe...).

Zehazki, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkerian eta familia barruko indarkerian askotariko arau-hauste penalak sartzen dira; horiek, egungo Zigor Kodean daude zehaztuta, eta larritasun



handienetik txikienera banatzen dira: giza hilketaren delitua eta horren moduak, askatasunaren aurkako lesioak (mehatxuak, derrigortzeak...), tortura eta segurtasunaren aurkako erasoak (familian ohiko diren tratu txarrak), sorosteko betebeharra haustea, etxean indarrez sartzea, ohorearen aurkako delituak, segurtasun- eta kautela-neurriak ez betetzea, familia-harremanekin lotutako delituak, eta pertsonen aurkako nahiz etxean indarrez sartzearekin lotutako hutsegiteak.

Halaber, sexu-askatasunaren aurkako delituak egiten dira honako bi eremu hauetan: bikote edo bikote ohien harremana eta familia barruko harremana (bikote edo bikote ohien harremana salbu).

### 2.2.1. Genero-indarkeriaren ondorioz EAEn eraildako emakumeak

Genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioei buruz hitz egitean, lehenik eta behin indarkeria-mota horrek EAEn eragindako hildakoen kopurua azpimarratu behar da, noski; 2009an, zehazki, bi emakume izan ziren. Bi emakume horiek bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren biktima izan ziren; lehenengoa, 44 urtekoa eta hiru seme-alaben ama, senarrak hil zuen etxean bertan (Gernikan) martxoaren 23an, eta bigarrena, 37 urtekoa eta alaba baten ama, bikotekide ohiak erail zuen Irunen, maiatzaren 9an. Emakume horiek, gainera, bazuten ezaugarri komun bat; hau da, bietako inork ez zuen salatu erasotzailea, eta, beraz, ez zuten inolako babes-neurririk.

Behean, taula bat egin da, eta, bertan, zoritxarreko datu horrek azken urteetan izan duen bilakaera jaso da.



## 1. taula. Genero-indarkeriaren ondorioz EAEn eraildako emakumeak (2002-2009)

UR-TEA	HILA	GERTAERA-EGUNA	ERAILKETA GERTATU ZEN UDALERRIA	ADINA	JAIOTERRIA	HILTZAILEA-REKIN DUEN HARREMANA	HILTZAILEA-REKIN DUEN BIZIKIDETZA-HARREMANA
2002	ABUZTUA	2002.08.23	BASAURI	33	BILBO	BIKOTEKIDEA	BAI
2004	OTSAILA	2004.02.03	BILBO	33	NIGERIA	BIKOTEKIDEA	BAI
	IRAILA	2004.09.27	BILBO	27	GUINEA BISSAU	BIKOTEKIDE OHIA	EZ
	URRIA	2004.10.10	BARAKALDO	34	BARAKALDO	ARREBA	BAI
	AZAROA	2004.11.23	SANTURTZI	16	BARTZELONA	BIKOTEKIDE OHIA	EZ
	ABENDUA	2004.12.12	BASAURI	54	BURGOS	BIKOTEKIDEA	BAI
2005	URTARRILA	2005.01.15	DURANGO	32	GUATEMALA	BIKOTEKIDE OHIA	EZ
	URRIA	2005.10.04	BILBO	68	VALLADOLID	AMA	BAI
		2005.10.12	BARAKALDO	38	EIBAR	BIKOTEKIDEA	BAI
		2005.10.15	BAKIO	26	BARAKALDO	BIKOTEKIDE OHIA	EZ
2006	MAIATZA	2006.05.28	BARAKALDO	39	BILBO	BIKOTEKIDEA	BAI
	UZTAILA	2006.07.03	BASAURI	23	ERRUMANIA	BIKOTEKIDEA	BAI
		2006.07.07	GETXO	87	KANTABRIA	AMA	BAI
	ABUZTUA	2006.08.06	VITORIA-GASTEIZ	76	VITORIA-GASTEIZ	AMAGINARREBA	EZ
2007	MARTXOA	2007.03.23	BILBO	74	KANTABRIA	BIKOTEKIDEA	BAI
	EKAINA	2007.06.02	VITORIA-GASTEIZ	35	VITORIA-GASTEIZ	BIKOTEKIDEA	BAI
	ABENDUA	2007.12.13	ETXEBARRI	80	PONTEVEDRA	AMONA	EZ
2008	ABUZTUA	2008.08.15	BAÑOS DE EBRO/MAÑUETA	72	BAÑOS DE EBRO/MAÑUETA	BIKOTEKIDEA	BAI
	URRIA	2008.10.05	SANTURTZI	26	NIGERIA	BIKOTEKIDEA	BAI
	ABENDUA	2008.12.29	ERRENTERIA	35	VENEZUELA	BIKOTEKIDEA	BAI
2009	MARTXOA	2009.03.23	GERNIKA-LUMO	44	TOLOSA	BIKOTEKIDEA	BAI
	MAIATZA	2009.05.29	IRUN	37	KOLONBIA	BIKOTEKIDE OHIA	EZ

Iturria: Azterketa Arloa. SSKZ. Herrizaingo Saila.

Aurreko taulan ikus daitekeen bezala, azken 8 urteetan 22 emakume erail dituzte guztira gure autonomia-erkidegoan; horrek, beraz, arazo honek duen garrantziaren eta larritasunaren ideia bat ematen digu. Bereziki odoltsua izan zen 2004. urtea, 5 emakume hil baitzituzten guztira genero-indarkeriaren ondorioz; horietako 4 bikotekideak edo bikotekide ohiak hil zituzten eta bat senide batek.

Hildako biktimen adinari dagokionez, azpimarratu behar da batez besteko adina 45 urtekoa dela. Halaber, azpimarragarria iruditu zaigu 2002 eta 2009 urteen artean genero-indarkeriaren ondorioz EAEn



eraildako emakumeen erdiek 35 urte edo gutxiago zituztela; horrek, beraz, argi erakusten du indarkeria-mota honen prebentzioan lanean jarraitzeak duen garrantzia.

Nazionalitateari dagokionez, azken zortzi urteetan gure autonomia-erkidegoan eraildako emakumeen %31,8 etorkinak ziren.


Zenbait biktima senideren batek hil dituzte, eta, beraz, familia barruko indarkerian sartuko lirateke; nolahi ere, ikusi dugu genero-indarkeriaren ondorioz hildako biktima gehienak bikotekideek edo bikotekide ohiek hil dituztela, 2002 eta 2009 artean EAEn eraildako emakume guztien %77,2, zehazki.

Amaitzeko, bada azpimarratu beharreko beste datu bat ere, genero-indarkeriaren ondorioz eraildako emakumeen %68,2 beren hiltzailearekin bizi zirela, alegia; egoera hori oso larria iruditzen zaigu, zaila delako, lehenik eta behin, arazo bat zegoela jakitea eta, gero, arazo hori prebenitzeko nahiz era horretako egoeretan (biktima eta erasotzailea elkarrekin bizitzea) beharrezko diren neurriak ezartzea.

## 2.2.2. Genero-indarkeriatik emakume-biktimizazioei buruzko EAEn datu orokorrak - 2009

2009. urtean, 4.859 biktimizazio erregistratu dira guztira EAEn; horiek, zehazki, segidako grafikoan (1. grafikoa) adierazi bezala banatu dira, aurrez bereizitako hiru indarkeria-moten edo -moduen arabera: bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria, familia barruko indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa salbu), eta sexu-askatasunaren aurkako delituak.

1. grafikoa. Genero-indarkeriatik emakume-biktimizazioak EAEn, motaren arabera (2009)



Iturria: Azterketa Arloa. SSKZ. Herrizaingo Saila.

Egiaztatu ahal izan denez, EAEn, emakumeen aurkako indarkeria-kasu gehienetan, erasotzailea eta biktima sentimenduzko lotura batek elkartuta daude edo egon dira; hau da, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria-kasuak dira (lautik hiru).

Lurralde historikoen arabera banaketari dagokionez, ehunekoak biztanleria-bolumenaren proportzionalak dira: Bizkaian %57, Gipuzkoan %29 eta Araban %14.





Segidan, taula bat egin da (2. taula); bertan, EAEn 2009an izandako genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioen kopurua jaso da, indarkeria-motaren eta lurralde historikoaren arabera.

2. taula. Genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioak EAEn, motaren eta lurralde historikoen arabera (2009)

	LURRALDEA			
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria	516	1.967	1.007	3.490
Familia barruko indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa salbu)	139	665	295	1.099
Sexu-askatasunaren aurkako delituak	36	144	90	270
<b>GUZTIRA</b>	<b>691</b>	<b>2.776</b>	<b>1.392</b>	<b>4.859</b>

Iturria: Azterketa Arloa. SSKZ. Herrizaingo Saila.

*Bikotekideek edo bikotekide ohiak emakumeen aurka eragindako indarkeriarekin*<sup>9</sup> espezifikoki lotutako **arau-hauste mota** nagusiei dagokienez (3. taula), nabarmendu behar da hiru lurralde historikoetan indarkeria-mota espezifikoko horrek eragindako biktimizazioak delitutzat sailkatu direla batez ere, eta ez hutsegitezat (%92 eta %8, hurrenez hurren); funtsean, bi delitu-mota nabarmendu dira:

- "Tortura-delituak eta segurtasunaren aurkakoak": guztiak "familiako ohiko tratu txarrak" delituaren baitan sartzen dira, eta, gutxi gorabehera, aztertutako delitu eta hutsegite guztien %62 dira.
- "Justizia Administrazioaren aurkako delituak": delitu eta hutsegite guztien %15 dira, gutxi gorabehera, eta hainbat neurri ez betetzeari egiten diete erreferentzia: segurtasun-neurriak, kautela-neurriak, kondenak...

<sup>9</sup> Sailkapena Ertzaintzak emandako kalifikazioen araberakoa da: giza hilketa eta bere motak; lesioak; askatasunaren aurkako delituak; tortura eta segurtasunaren aurkakoak; sorospen-eginberrara ez betetzea; intimitatearen eta nor bere irudia izateko eskubidearena urkako delituak; sexu-askatasunaren aurkako delituak; ohorearen aurkako delituak; familia-harremanen aurkakoak; Justizia Administrazioaren aurkakoak; pertsonen aurkako hutsegiteak; eta ordena publikoaren aurkako hutsegiteak.





## HERRIZAINGO SAILA

Genero-indarkeriaren Biktimei  
Laguntzeko Zuzendaritza

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

Dirección de Atención a las Víctimas  
de la Violencia de Género

3. taula. Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriatiko emakume-biktimizazioak EAEn, arau-haustearen eta lurralde historikoaren arabera (2009)

ARAU-HAUSTE MOTAK	LURRALDE HISTORIKOAK			GUZTIRA
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
<b>Giza hilketa eta bere motak</b>	-	1	2	3
Giza hilketa / erailketa saiakera	-	-	1	1
Giza hilketa / erailketa burutzea	-	1	1	2
<b>Lesioak</b>	<b>100</b>	<b>180</b>	<b>66</b>	<b>346</b>
Arduragabekeriagatik egindako lesioak	1	-	-	1
Tratu txarrak familia-eremuan	92	161	57	310
Lesioak	7	19	9	35
<b>Askatasunaren aurkakoak</b>	<b>21</b>	<b>59</b>	<b>20</b>	<b>100</b>
Mehatxuak	17	45	16	78
Derrigortzeak	4	14	4	22
<b>Tortura eta segurtasunaren aurkakoak</b>	<b>286</b>	<b>1.227</b>	<b>633</b>	<b>2.146</b>
Ohiko tratu txarrak familia-eremuan	286	1.227	633	2.146
<b>Intimitatearen eta nork bere irudia izateko eskubidearen aurkakoak eta abar</b>	-	2	-	2
<b>Sexu-askatasunaren aurkakoak</b>	<b>2</b>	<b>7</b>	<b>5</b>	<b>14</b>
Sexu-erasoa	2	6	4	12
Sexu-gehiegikeria	-	1	1	2
<b>Ohorearen aurkakoak</b>	<b>1</b>	<b>3</b>	-	<b>4</b>
Kalumniak	-	2	-	2
Irainak	1	1	-	2
<b>Familia-harremanen aurkakoak</b>	<b>6</b>	<b>37</b>	<b>22</b>	<b>65</b>
Zaintza-eginberrak ez betetzea	-	11	6	17
Adingabea etxea uztea bultzatzea	1	1	-	2
Adingabeari zainketa-araubidea haustea eragitea	-	-	1	1
Adingabea bahitzea	-	1	-	1
Familia uztea	2	6	3	11
Prestazio ekonomikoak ez ordaintzea	3	18	12	33
<b>Justizia Administrazioaren aurkakoak (neurriak ez betetzea...)</b>	<b>72</b>	<b>277</b>	<b>180</b>	<b>529</b>
<b>DELITUAK, GUZTIRA</b>	<b>488</b>	<b>1.793</b>	<b>928</b>	<b>3.209</b>
<b>Pertsonen aurkako hutsegiteak</b>	<b>28</b>	<b>173</b>	<b>79</b>	<b>280</b>
Iseken hutsegitea	2	3	3	8
Mehatxuen hutsegitea	2	13	5	20
Derrigortzeen hutsegitea	3	9	5	17
Irainen hutsegitea	1	6	2	9
Sorospen-eginberrak ez betetzeagatik egindako hutsegitea	-	1	-	1
Gurasoek adingabearen zainketa ez betetzeagatik egindako hutsegitea	10	44	15	69
Dibortzioan edo banatzean hitzarmen/ebazpen judiziala ez betetzeagatik egindako hutsegitea	10	97	49	156
<b>Ordena publikoaren aurkako hutsegiteak (etxean indarrez sartzean egindako hutsegiteak)</b>	-	1	-	1
<b>HUTSEGITEAK, GUZTIRA</b>	<b>28</b>	<b>174</b>	<b>79</b>	<b>281</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>516</b>	<b>1.967</b>	<b>1.007</b>	<b>3.490</b>

Iturria: Azterketa Arloa. SSKZ. Herrizaingo Saila.



*Familia barruko indarkeriarekin (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa salbu<sup>10</sup>)* espezifikoki lotutako **arau-hauste mota** nagusiei dagokienez (4. taula), ikus daiteke indarkeria-mota horren ondoriozko biktimizazio gehienak delitutzat jaso direla (%77) eta gainerako %23a hutsegitetzat jaso da; hala gertatu da bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren biktimizazioekin ere, baina indarkeria-mota horrekin baino neurri txikiagoan.

4. taula. Familia barruko indarkeriagatiko emakume-biktimizazioak EAEn (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoak salbu), arau-haustearen eta lurralde historikoaren arabera (2009)

ARAU-HAUSTE MOTAK	LURRALDE HISTORIKOA			GUZTIRA
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
<b>Giza hilketa eta bere motak</b>	-	3	1	4
Giza hilketa / eraiketa saiakera	-	3	1	4
<b>Lesioak</b>	14	33	16	63
Tratu txarrak familia-eremuan	14	23	14	51
Lesioak	-	10	2	12
<b>Askatasunaren aurkakoak</b>	9	41	10	60
Bahiketa	1	3	-	4
Mehatxuak	6	35	9	50
Derrigortzeak	2	3	1	6
<b>Tortura eta segurtasunaren aurkakoak</b>	66	322	160	548
Ohiko tratu txarrak familia-eremuan	66	322	160	548
<b>Intimitatearen eta nork bere irudia izateko eskubidearen aurkakoak eta abar</b>	-	2	1	3
Etxean indarrez sartzea eta abar	-	2	1	3
<b>Sexu-askatasunaren aurkakoak</b>	6	15	6	27
Sexu-erasoa	1	7	4	12
Sexu-gehiegikeria	4	8	2	14
Adingabeen galbideratzea	1	-	-	1
Adingabeen pornografia	-	-	-	-
<b>Ohorearen aurkakoak</b>	-	2	-	2
Kalumniak	-	2	-	2
Irainak	-	-	-	-
<b>Familia-harremanen aurkakoak</b>	-	31	4	35
Zaintza-eginberrara ez betetzea	-	-	-	-
Adingabeari zainketa-araubidea haustea eragitea	-	-	-	-
Adingabea bahitzea	-	1	-	1
Familia uztea	-	19	3	22
Prestazio ekonomikoak ez ordaintzea	-	-	-	-
Adingabea bertan behera uztea	-	11	1	12
Eskerako erabiltzea	-	-	-	-

<sup>10</sup> Sailkapena Ertzaintzak gertaerei buruz emandako kalifikazioaren araberakoa da: giza hilketa eta bere motak; lesioak; askatasunaren aurkako delituak; tortura eta segurtasunaren aurkakoak; intimitatearen eta nork bere irudia izateko eskubidearena aurkako delituak; sexu-askatasunaren aurkakoak; ohorearen aurkakoak; familia-harremanen aurkakoak; Justizia Administrazioaren aurkakoak; eta pertsonen aurkako hutsegiteak.



## HERRIZAINGO SAILA

Genero-indarkeriaren Biktimei  
Laguntzeko Zuzendaritza

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

Dirección de Atención a las Víctimas  
de la Violencia de Género

ARAU-HAUSTE MOTAK	LURRALDE HISTORIKOA			GUZTIRA
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
<b>Justizia Administrazioaren aurkakoak</b>	<b>11</b>	<b>49</b>	<b>40</b>	<b>100</b>
Segurtasun-neurriak, kautelazko neurriak, zigorrak eta abar haustea	11	49	40	100
<b>DELITUAK, GUZTIRA</b>	<b>106</b>	<b>498</b>	<b>238</b>	<b>842</b>
<b>Pertsonen aurkako hutsegiteak</b>	<b>33</b>	<b>167</b>	<b>57</b>	<b>257</b>
Lesioen hutsegitea	14	75	29	118
Iseken hutsegitea	5	4	1	10
Mehatxuen hutsegitea	5	66	18	89
Derrigortzeen hutsegitea	6	16	5	27
Irainen hutsegitea	-	1	1	2
Sorospen-eginbearra ez betetzeagatik egindako hutsegitea	-	-	1	1
Gurasoek adingabearen zainketa ez betetzeagatik egindako hutsegitea	2	1	-	3
Dibortzioan edo banatzean hitzarmen/ebazpen judiziala ez betetzeagatik egindako hutsegitea	1	4	2	7
<b>HUTSEGITEAK, GUZTIRA</b>	<b>33</b>	<b>167</b>	<b>57</b>	<b>257</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>139</b>	<b>665</b>	<b>295</b>	<b>1.099</b>

Iturria: Azterketa Arloa. SSKZ. Herrizaingo Saila.

Aurreko taulan ikus daitekeen bezala, familia barruko indarkeriagatiko emakume-biktimizazioen artean (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoak salbu), honako hauek nabarmendu behar dira:

- "Tortura-delituak eta segurtasunaren aurkakoak": guztiak "familiako ohiko tratu txarrak" delituaren baitan sartutako kasuak dira; gutxi gorabehera, aztertutako delitu eta hutsegite guztien %50 dira, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriarekin gertatzen dena baino apur bat gutxiago.
- "Pertsonen aurkako hutsegiteak" (%23, gutxi gorabehera); bereziki, lesioen hutsegitea eta mehatxuen hutsegitea aipatu behar dira, delitu eta hutsegite guztien %11 eta %8 baitute, hurrenez hurren.
- "Justizia Administrazioaren aurkako delituak": guztizkoaren %9,1 dira, eta hainbat neurri ez betetzeari egiten diete erreferentzia: segurtasun-neurriak, kautela-neurriak, kondenak...

Azkenik, segidako taulan (5. taula), *sexu-askatasunaren aurkako delituak*<sup>11</sup> jaso dira, **arau-hauste motaren arabera**. Hain zuzen, joera

<sup>11</sup> Sailkapena Ertzaintzak gertaerei buruz egindako kalifikazioaren arabera da: sexu-erasoa (ZKren 178-180. art.); sexu-gehiegikeria (ZKren 181-183. art.); sexu-jazarpena (ZKren 184. art.); exhibizionismoa (ZKren 185. art.);



bera hauteman dugu hiru lurralde historikoetan; hau da, biktimizazio gehienak "sexu-erasotzat" sailkatu dira (ia %48), eta atzetik "sexu-gehiegikeriatzat" jasotakoak daude (%33,4).

5. taula. Sexu-askatasunaren aurkako delituak direla-eta EAEn izandako emakume-biktimizazioak, arau-hauste motaren eta lurralde historikoen arabera (2009)

ARAU-HAUSTE MOTAK	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Sexu-erasoa	23	70	32	125
Sexu-gehiegikeria	8	53	27	88
Sexu-jazarpena	0	3	1	4
Exhibizionismoa	5	14	26	45
Sexu-probokazioa	0	1	0	1
Adingabeen galbideratzea	0	2	2	4
Prostituzioa	0	0	2	2
Adingabeen pornografia	0	1	0	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>36</b>	<b>144</b>	<b>90</b>	<b>270</b>

Iturria: Azterketa Arloa. SSKZ. Herrizaingo Saila.

Horrenbestez, ondoriozta dezakegu sexu-askatasunaren aurkako delitutzat sailkatu ditugun 10 kasutik 8 sexu-erasoak (ia erdia multzo honetan sailkatu da) edo sexu-gehiegikeriak izan direla.

Aurrez aipatu dugun bezala, sexu-askatasunaren aurkako delituen baitan, **sexu-erasoak** nabarmendu behar dira batez ere; hori dela-eta, funtsezkotzat jo dugu 2009. urtean delitu horren ezaugarri izan diren zenbait gai bereziki aipatzea.

Duten garrantzia eta ondorioak direla-eta, bortxaketak bereiz ditzakegu gainerako sexu-erasoetatik<sup>12</sup>.

Ondorengo lerroetan, gai honi dagokionez<sup>13</sup> Ertzaintzak bere eskumen-esparruan egindako zenbait hausnarketa jaso dira; horiek, alde batetik, 2009. urtean egindako bortxaketei egiten diete erreferentzia —mota horretako delituen %44, gutxi gorabehera— eta, bestetik, aldi berean EAEn egin diren gainerako sexu-erasoei —gainerako %56a—.

sexu-probokazioa (ZKren 186. art.); adingabeen korrupzioa (ZKren 187, 188.3, 189.4-5-7 art.); prostituzioa (ZKren 188.1-2 art.); eta adingabeen pornografia (ZKren 189.1-2-3 art.).

<sup>12</sup> Bortxaketaren eta sexu-erasoko gainerako delituen arteko desberdintasuna Zigor Kodearen 179. artikuluan dago adierazita: "*Sexu-erasoa maginatik, uzkitik zein ahotik haragitzen denean, edota lehenengo bi bide horietako batetik gauzak sartzen direnean, erantzuleari, bortxaketaren errudun gisa, sei urtetik hamabi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio*".

<sup>13</sup> Halaber, argitu behar da kasu-kopuruari buruzko datuak ez direla datu ofizialak; baina, jarduera zehatz bat **aztertu** nahi denez, alderdi horri lehenetasun handiagoa eman zaio datu-zehaztasunari baino.



➤ *Bortxaketak*

- a) Gertaera-mota hauen ebazpen-indizea %65ekoa izan da EAEn 2009. urtean; horrez gain, azpimarratu behar da ez dela "serieko bortxatzaile" sailka daitekeen edo daitezkeen kasurik izan.
- b) Lurraldeetako hiriburuetan, bortxaketa-delituen polarizazio handia gertatu da; Vitoria-Gasteizen, esaterako, Arabako kasuen %100 gertatu da; Donostian, Gipuzkoako kasuen %50; eta Bilbon, Bizkaikoen %47.
- c) Eraso-tasa, mila biztanleko, 0,08koa izan da Bilbon eta Donostian, eta 0,05ekoa Vitoria-Gasteizen.
- d) Ekintza horiek burutzeko leku nagusiak etxeak izan dira, kasuen %50, zehazki; leku horien atzetik, hiri-eremuak daude, oro har.
- e) Bizkaian egindako delituen %86n, aurretiazko harreman-motaren bat zegoen biktimaren eta erasotzailearen artean; Gipuzkoan, faktore hori kasuen %53n hauteman da, eta Araban, aldiz, ez da horrelako kasurik aurkitu.
- f) Hilen arabera banatzeak ez du emaitza adierazgarririk eman, bai ordea asteen arabera banatzeak; izan ere, asteburuetan (ostiraletik igandera), Bizkaiko gertaeren %62 izan da, eta Gipuzkoako gertaeren %58. Araban, aldiz, kasu gehienak astegunetan gertatu dira. Ordutegiari dagokionez, era horretako krimen gehienak 00:00 eta 09:00 artean gertatu dira.
- g) Egileek gehien erabili duten "modus operandia" indarkeria da, indarkeria fisikoa, batez ere; hain zuzen, gertaeren %58 era horretan gertatu dira. Atzetik, larderia-kasuak daude, kasuen %26, zehazki.
- h) Azkenik, adinari dagokionez, adierazi behar da erasotzaile-kopuru handiena duen adin-tartea 26 eta 35 urte artekoa dela; atzetik, 18 eta 25 urte arteko erasotzaileak biltzen dituen adin-tartea dago, erasotzaile gazteak, beraz. Biktimei dagokienez ere, gazteak dira nagusi, kasuen %29 adingabeetan gertatu baita; adindunen %32, berriz, 26-35 urteko adin-tartean daude.



## ➤ Gainerako sexu-arazoak

- a) Era horretako delituen ebazpen-tasa %53koa da, gutxi gorabehera, Euskal Autonomia Erkidegoan.
- b) Lurraldeetako hiriburuetan gertatu dira kasu gehienak, baina ez bortxaketen atalean bezain modu nabarmenean; Vitoria-Gasteiz, hala ere, salbuespen bat da, bertan gertatu baitira Arabako sexu-eraso guztiak. Bizkaian, Bilbokoez gain, Sestao eta Muskiz udalerrietan ere eraso ugari gertatu dira; era berean, Gipuzkoan, Tolosa, Errenteria eta Irun aipatu behar dira hiriburuaz gain.
- c) Era horretako delituen eraso-tasa (mila biztanleko) apur bat handiagoa da Bilbon Donostian eta Vitoria-Gasteizen baino: 0,10, 0,07 eta 0,06, hurrenez hurren.
- d) Gertaera gehienak hiri-eremuetan izan dira (%47); atzetik, etxeak eta atari nahiz igogailuak taldeak izan dira (%13). Beraz, bortxaketekin alderatuta, truke bat hauteman da eraso gehien izaten den bi lekuen artean.
- e) Bortxaketen kasuan ez bezala, sexu-erasoen gainerako delituen %76n, biktimek adierazi dute ez dituztela beren erasotzaileak ezagutzen.
- f) Hilen araberako banaketak ez du datu garrantzitsurik eman; astearen araberako banaketari dagokionez, berriz, azpimarratu behar da, emaitzen arabera, eraso-kopuru gehien izan den egunak bortxaketen atalean adierazitakoen antzekoak direla. Horri dagokionez, Bizkaian eta Gipuzkoan asteburuetakoko joera argia da oso, orduan gertatu baita eraso gehien (kasuen %64 eta %63, hurrenez hurren); Araban, aldiz, eraso gehienak aste barruan izan dira. Horrelako gertaerak izan ohi diren ordutegia bat dator bortxaketen kapituluak hautemandakoarekin; hau da, gaueko hamabietatik goizeko bederatzietara. Gipuzkoan, garrantzitsua da, halaber, gaueko bederatzietatik hamabietara arteko zatian izandako erasoaren kopurua.
- g) Erasotzaileek gehien erabili duten "modus operandia" bortxaketetan erabilitakoaren parekoa da; hau da, indarkeriaz jokatu da kasuen %63n (fisikoaz, batez ere), eta, atzetik, hitzezko larderia erabiliz egindakoak daude (%35). Bestalde, erasoaren %9n arma zuriak erakutsi dituzte.





h) Amaitzeko, azpimarratu behar da atxilotuen %10 adingabeak zirela; horrez gain, gertaera horien ondorioz atxilotutako pertsona gehienak 18-25 urteko adin-tartean sartzen dira, eta atzetik daude 26 eta 35 urte artekoak. Beraz, bortxaketei buruzko emaitzetan ez bezala, ikus daiteke sexu-erasoak egiten dituzten pertsona gehienak oso gazteak direla.

Biktimen adinari dagokionez, %29 adingabeak ziren; hain zuzen, datu hori bortxaketen emaitzen berdina da. Adindunei dagokienez, gehienak 18 eta 25 urte artekoak dira, eta, atzetik, 26 eta 35 urte artekoak daude.

Bestalde, eta berriro genero-indarkeriari buruz bere osotasunean hitz eginez, **larritasun-mailan** jarriko dugu arreta, hasieratik bereizi ditugun hiru mota horien arabera: bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria, familia barruko indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa salbu) eta sexu-askatasunaren aurkako delituak; horrez gain, aipatu behar da, erasoen %8n ez dela kaltegarritasun-maila zehaztu.

Horri dagokionez, honako hau azpimarra dezakegu:

- *Bikotekideak edo bikotekide ohiak* eragindako indarkeria: indarkeria-mota hori jasan duten emakume gehienek (%62) ez dute kalterik izan eraso horien ondorioz, eta %31 "arin zauritu" da.
- *Familia barruko* indarkeria: %65ek ez du minik izan, eta %25ek "zauri arinak" izan ditu.
- *Sexu-askatasunaren aurkako delituak*: emakumeen %69k ez du kalterik izan, eta beste %19k kaltegarritasun-maila "arina" izan du

Datu horien arabera, eta beheko taulan ikus daitekeen bezala (6. taula), kaltegarritasun-tasari dagokionez ez da alderik aurkitu emakumeen aurkako hiru indarkeria-moten artean (bikotekidearena edo bikotekide ohiarena, familia barrukoa eta sexu-askatasunaren aurkako); hain zuzen, kasu gehienetan (%63), emakumeek "ez dute kalterik izan" (kalte fisikoei dagokienez), eta beste batzuetan (%29) zauri arinak izan dituzte. "Zauri larriak" izan dituzten emakumeak %5era soilik iritsi dira.



## HERRIZAINGO SAILA

Genero-indarkeriaren Biktimei  
Laguntzeko Zuzendaritza

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

Dirección de Atención a las Víctimas  
de la Violencia de Género

6. taula. Genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioak EAEn, kaltegarritasunaren eta lurralde historikoen arabera (2009)

KALTEGARRI TASUNA	GERTAERA-LEKUA			
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
Hila	-	1	1	2
Larri zauritua	5	16	5	26
Arin zauritua	190	797	416	1.403
Kalterik gabea	438	1.734	889	3.061
Ez dakigu	58	228	81	367
<b>GUZTIRA</b>	<b>691</b>	<b>2.776</b>	<b>1.392</b>	<b>4.859</b>

Iturria: Azterketa Arloa. SSKZ. Herrizaingo Saila.

Segidan, taula bat (7. taula) eta grafiko bat (2. grafikoa) egin dira, eta, horietan, iaz EAEn genero-indarkeriaren ondorioz izan ziren emakume-biktimizazioei buruzko informazioa jaso da, erasotzailearekiko harremanaren arabera.

7. taula. Genero-indarkeriak eragindako emakume-biktimizazioak EAEn, motaren, lurralde historikoen eta erasotzailearekiko harremanaren arabera (2009)

ERASOTZAILEAREKIKO HARREMANA	LURRALDEA			
	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTI RA
<b>BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIAK ERAGINDAKO INDARKERIA</b>	<b>516</b>	<b>1.967</b>	<b>1.007</b>	<b>3.490</b>
Ezkontideak	123	472	255	850
Ezkontide ohiak	77	357	176	610
Neska-laguna / bikotekidea	142	508	249	899
Neska-lagun ohia / bikotekide ohia	157	562	285	1.004
Emaztegaia	8	32	21	61
Emaztegai ohia	9	36	21	66
<b>FAMILIA BARRUKO INDARKERIA (BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIAK ERAGINDAKOA SALBU)</b>	<b>139</b>	<b>665</b>	<b>295</b>	<b>1.099</b>
Alaba adingabea	33	139	62	234
Ama	50	214	109	373
Gainerako familiarrak	56	312	124	492
<b>SEXU-ASKATASUNA</b>	<b>36</b>	<b>144</b>	<b>90</b>	<b>270</b>
Bestelako harremana	36	144	90	270
<b>GUZTIRA</b>	<b>691</b>	<b>2.776</b>	<b>1.392</b>	<b>4.859</b>

Iturria: Azterketa Arloa. SSKZ. Herrizaingo Saila.


Ikus daitekeen bezala, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaz hitz egitean, ez dago halako alderik erasotzailea mutil-lagun ohia (%29), mutil-laguna (%26), ezkontidea (%24) edo ezkontide ohia (%17) izatearen artean, bai ordea senargaiak edo



senargai ohiek osatutako taldearekiko (%2, bi kasuetan); beraz, ondoriozta daiteke aukera gehiago dagoela bizikide izan den pertsonarengandik tratatu txarrak jasotzeko bizikide izan ez den harengandik baino.

Familia barruko indarkeriari dagokionez, azpimarratu behar da erasotzailea semea izan dela kasuen %45en; beste %21en aita izan da, eta, gertaeren gainerako %34an, erasotzailea familiako beste kideren izan da.

2. grafikoa. EAEn genero-indarkeriaren ondorioz izandako emakume-biktimizazioak, erasotzailearen arabera (2009)



Iturria: Azterketa Arloa. SSKZ. Herrizaingo Saila.



### 2.2.3. Genero-indarkeriak eragindako emakume-biktimizazioei buruzko EAEko lurralde-datuak - 2009

Atal honetan, genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioen lurralde-banaketari buruz hausnartuko da, 2009. urtea oinarri hartuta; lehenik eta behin, udalerrien arabera banaketa egingo da, eta, gero, azterketa zehatzago bat egingo da, lurralde historikoen arabera.

Hurrengo orrietan, irudi bat sartu da (1. irudia); bertan, genero-indarkeriak 2009an EAEn eragindako emakume-biktimizazioen tasak ikus daitezke, udalerrien arabera banatuta.

Ikus daitekeenez, desberdintasun handiak daude genero-indarkeriak oro har eragindako emakume-biktimizazioen bolumenari dagokionez, baita genero-indarkeriaren hiru motak/moduak banan-banan aztertuz ere: bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria, familia barruko indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa salbu), eta sexu-askatasunaren aurkako delituak.

Udalerrien arteko alderaketak egiteko, adierazle jakin bat erabiltzen da, udalerriko emakumeen kopurua eta jazotako biktimizazioak lotzen dituena, hain zuzen: biktimizazio-kopurua hamar mila emakumeko.

Noski, hamar mila emakumeko biktimizazio-tasa horri dagokionez, hainbat zehaztasun egin behar dira:

- Tasak kalkulatzeko, Estatistika Institutu Nazionala izan da biztanleria-kopuruaren iturria; zehazki, 2008ko urtarrilaren 1eko datuak hartu dira oinarri.
- Zenbaitetan, hauteman dugu biztanle gutxiko udalerrietan tasa handia dagoela; hori, hain zuzen, faktore horren ondorio da, eta ez du adierazten genero-indarkeriagatiko biktimizazio-kopuru handia izan dela. Horri dagokionez, gogorarazi behar da askotan nahikoa dela udalerrri batean biktimizazio bakarra gertatzea bertako tasak gora egiteko; nolana ere, datu hori tentu handiz interpretatu beharko da.



- Azkenik, azpimarratu behar da tasa altua duen udalerrri bat izateak ez duela beti adierazten leku horretan genero-indarkeriaren erasoak ugariagoak direnik. Tasa altua izateak lotura izan dezake, besteak beste, udalerrri horrek era horretako gertaerak poliziarri jakinarazteko joera handiagoa izatearekin edota udalerrri horretan poliziak berak esku hartu behar izanarekin. Hori guztia askotariko arrazoiek eragin dezakete, eta, beraz, ez dugu ondorioztatu behar udalerrri horretan genero-indarkeria gehiago dagoenik; hau da, baliteke udalerrri horretan herritarrei oro har informazio egokia eta ugaria ematea izan daitezkeen baliabideei buruz, edota bertan baliabide horiek esku-eskura izatea.

Hurrengo orrietan ikus daitezkeen irudian (1. irudia) sei udalerrimaila bereizi dira, genero-indarkeriak oro har eragindako biktimizazio-tasaren arabera:

- a) *Biktimizaziorik gertatu ez den udalerrriak*: mapan zuriz adierazi dira, eta, gutxi gorabehera, EAE osatzen duten udalerrri guztien %32 dira.  
Horien artean daude Arabako udalerrrien %44 (esaterako, Erriberagoitia, Bernedo, Arraia-Maeztu, Samaniego eta Kuartango), Bizkaiko udalerrrien %29 (Orozko, Dima, Larrabetzu, Lemoiz edo Ea), eta Gipuzkoako udalerrrien %29 (besteak beste, Berastegi, Ataun, Ezkio-Itsaso, Elduain eta Lizartza).
- b) *Biktimizazio-tasa oso baxua* (0,1 eta 14,9 artean) duten udalerrriak guztizkoaren %4 dira, gutxi gorabehera, eta horien artean Gipuzkoako udalerrriak dira nagusi (%6), Oiartzun, Zizurkil, Legazpi, Ibarra eta Soralue, esaterako; atzetik Arabako udalerrriak daude, %8ko tasarekin (Zuia, Zigoitia, Aiara eta Bastida), eta, azkenik, Bizkaian, udalerrri bakarra dago multzo honetan (%0,8): Igorre.
- c) *Biktimizazio-tasa baxua duten udalerrriak* (15 eta 29,9 artekoak) EAeko udalerrri guztien %14 dira, gutxi gorabehera. Horien artean, honako hauek aurkitzen ditugu: Arabako udalerrrien %15: Lantarón, Elciego, Kampezu, Urduña, Barrundia, Arrazua-



## HERRIZAINGO SAILA

Genero-indarkeriaren Biktimei  
Laguntzeko Zuzendaritza

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

Dirección de Atención a las Víctimas  
de la Violencia de Género

Ubarrundia, Aramaio, eta Laudio; Bizkaiko udalerrien %13, gutxi gorabehera: Maruri-Jatabe, Güeñes, Artea, Areatza, Muxika, Gamiz-Fika, Forua, Berriatua, Ermua, Elorrio, Atxondo, Ugao-Miraballes eta Arrankudiaga; nahiz Gipuzkoako udalerrien %15 bat: Eibar, Oñati, Antzuola, Azkoitia, Azpeitia, Orio, Idiazabal, Amezketa, Olaberria, Lazkao, Legorreta, Lezo eta Hondarribia.

- d) *Biktimizazio-tasa ertaina duten udalerriak*, 30 eta 44,9 artekoak; talde honetan daude EAEko udalerrri guztien %22, eta lurraldez lurralde honela banatzen dira: Arabako udalerrrien %13: Amurrio, Gaubea, Iruña Oka, Oion, Alegria-Dulantzi, Burgelu eta Lapuebla de Labarca; Bizkaiko udalerrrien %24, besteak beste: Leioa, Getxo, Bakio, Durango, Balmaseda, Lezama eta Derio; eta Gipuzkoako %29, esaterako: Hernani, Urnieta, Deba, Zegama, Eskoriatza, Elgoibar eta Tolosa.
- e) *Genero-indarkeriagatiko biktimizazio-tasa altua* duten udalerriak, 45 eta 59,9 arteko tasa dutenak; multzo honetan, EAEko udalerrri guztien %12 daude sartuta. Horiek lurraldeen arabera bereiziz, honako banaketa hau izango litzateke: Arabako udalerrrien %8: Legutiano, Vitoria-Gasteiz, Erribera Beitia eta Laguardia; Bizkaiko udalerrrien %15, besteak beste: hiriburua, Bilbo, Mungia, Galdakao, Zalla edo Muskiz; eta, azkenik, Gipuzkoako %10, esaterako: Aia, Zumaia, Astigarraga, Usurbil eta Urretxu.
- f) *Biktimizazio-tasa oso altua duten udalerriak* (60 edo gehiago); horiek EAEko udalerrri guztien %16 dira. Arabari dagokionez, lurralde horretako udalerrrien %12 sartuko lirateke multzo honetan, zehazki: Moreda Araba, Kripan, Leza, Lagran, Agurain eta Asparrena. Bizkaian, udalerrien %18 daude biktimizazio-maila oso altuko multzo honetan sartuta; besteak beste, honako hauek aipa daitezke: Lemoa, Zaratamo, Arakaldo, Erandio, Bermeo, Abanto, Gernika-Lumo, Gatika eta Abanto-Zierbena. Azkenik, Gipuzkoari dagokionez, lurralde honetako udalerrien %15en biktimizazio-tasa oso altua da, udalerrri hauetan, esaterako: Getaria, Villabona, Ormaiztegi, Mendaro, Errenteria, Aduna, Aleiza, Hernialde, Albiztur, Pasaia, Gaztelu eta Zaldibia.




HERRIZAINGO SAILA

Genero-indarkeriaren Biktimei  
Laguntzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

Dirección de Atención a las Víctimas  
de la Violencia de Género

1. irudia. Genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioak EAEko udalerrietan, 10.000 emakumeko biktimizazio-tasaren arabera (2009)



TASA, 10.000 EMAKUMEEK

60 edo gehiagor(39)
45etik 59,9ra (31)
30etik 44,9ra (55)
15etik 29,9ra (35)
0,1etik 14,9ra (10)


Iturria: Azterketa Arloa. SSKZ. Herrizaingo Saila.

Segidan, mapa bat ezarri da (2. irudia), eta, bertan, EAEn, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriak bereziki eragindako biktimizazioen udalerrri-banaketa ikus daiteke, hamar mila emakumeko biktimizazio-tasaren arabera.





2. irudia. Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriagatiko emakume-biktimizazioak EAEko udalerrietan, biktimizazio-tasaren arabera (2009)



Iturria: Azterketa Arloa. SSKZ. Herrizaingo Saila.



Aurreko mapan (2. irudia), EAEko udalerrri-banaketa ikus daiteke, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriagatiko biktimizazio-tasen arabera; oro har genero-indarkeria guztiari buruzko aurreko kasuan bezala, hemen ere sei udalerrri-maila bereizi dira:

- a) *Indarkeria-mota espezifiko hori dela-eta biktimizaziorik gertatu ez den udalerrriak*: zuriz adierazi dira mapan, eta EAEko udalerrri guztien %35 dira; genero-indarkeria bere osotasunean aztertzean ere multzo honek antzeko ehunekoa zuen. Multzo honetan, beraz, aurrez aipatutako udalerriez gain (1. irudian ikus daitezkeenak) beste udalerriren batzuk ere aipa daitezke, esaterako: Arabako Kripan; Bizkaiko Artzentales, Ibarangelu, Arakaldo eta Igorre; eta Gipuzkoako Hernialde. Gai honi dagokionez, azpimarratu behar da ez dela arraroa gune txikienetan bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriak eragindako biktimizaziorik ez izatea edo biktimizazio-tasa baxuenak izatea; gune horietako asko, gainera, landa-eremuak dira (hurrengo lerroetan ikusiko dugu). Izan ere, udalerrri horietan oztopo handiak egon daitezke indarkeria-mota horren biktimentzako baliabideak izateari dagokionez; halaber, "guztiak ezagunak izanik" maiz sortzen diren oztopo psikologikoak aipatu behar dira, horien eraginez zailagoa izan baitaiteke emakumeak indarkeria-egoera hori salatzeke edo egoera horrekin amaitzeko erabakia hartzea.
- b) *Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriagatiko biktimizazio-tasa oso baxuko udalerrriak*: hau da, 0,1 eta 14,9 arteko tasa duten udalerrriak dira, EAEko udalerrri guztien %8, zehazki; besteak beste, honako hauek aipatu behar dira: Bastida, Zigoitia, Zuia, Aiara, Artziniega eta Aramaio Araban; Abadiño, Elorrio, Mundaka eta Igorre Bizkaian; eta Mutriku, Soraluze, Oñati, Legazpi, Azpeitia, Zizurkil, Lazkao, Oiartzun, Hondarribia eta Tolosa Gipuzkoan.
- c) *Biktimizazio-tasa baxuko udalerrriak*: 15 eta 29,9 arteko tasa dute, eta EAEko udalerrri gehienak sartzen dira multzo honetan, %26, zehazki. Udalerrri horien artean daude, besteak beste, Gaubea, Urduña, Oion eta Amurrio Araban; Balmaseda, Getxo,



Ondarroa eta Durango Bizkaian; eta Donostia, Azkoitia, Eibar eta Hernani Gipuzkoan.

- d) *Biktimizazio-tasa ertaineko udalerrriak*: 30 eta 44,9 arteko tasa dute, eta EAeko udalerrri guztien %18 sartzen da multzo honetan. Maila honetan sartzen dira, esaterako, biztanleria handiko udalerrriak, Vitoria-Gasteiz, Bilbo, Barakaldo eta Irun; bitxia bada ere, genero-indarkeriaz, oro har, hitz egitean, hurrengo mailan zeuden udalerrri horiek, biktimizazio-tasa altuko udalerrrien mailan, hain zuzen.
- e) *Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioen tasa altua duten udalerrriak*: 45 eta 59,9 arteko tasa dute, eta EAeko udalerrri guztien %7 osatzen dute; maila honetan, honako udalerrri hauek nabarmendu behar dira: Erribera Beitia Araban; Loiu, Plentzia eta Lemoa Bizkaian; eta Aia nahiz Erreterria Gipuzkoan.
- f) *Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriagatiko emakume-biktimizazioaren tasa oso altua (60 edo gehiago) duten udalerrriak*: EAeko udalerrri guztien %6 dira. Azken maila honetan sartzen dira honako udalerrri hauek: Lagran, Moreda Araba eta Leza Araban; Erandio, Zierbena, Murueta eta Gatika Bizkaian; eta Abaltzisketa, Mendaro, Aduna, Alkiza, Gaztelu eta Getaria Gipuzkoan.

Hurrengo lerroetan, hiru lurralde historikoetako bakoitza xeheago aztertuko dugu.

Bereziki, Arabako lurralde historikoan oinarrituz, azpimarratu behar da lurralde horretan gertatu diren biktimizazioen %90 hiru udalerritara mugatzen direla: Vitoria-Gasteiz (%84), Laudio (%3,3) eta Amurrio (%2,9); hori, dena den, logikoa da, udalerrri horietan baitago lurralde historiko horretako biztanleria-bolumen handiena.



8. taula. Genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioak Arabako udalerrietan (2009)

UDALERRIA	Emakume- biztanleria	BIKOTEKIDEA / BIKOTEKIDE OHIA		FAMILIA BARRUKOA	SEXUALA	GUZTIRA	
		Biktimizazio- kopurua	Tasa, 10.000 emakum.	Biktimizazio- kopurua	Biktimizazio- kopurua	Biktimizazio- kopurua	Tasa, 10.000 emakum.
Alegria-Dulantzi	1.177	3	25,49	-	1	4	33,98
Amurrio	4.987	14	28,07	6	-	20	40,10
Aramaio	714	1	14,01	-	1	2	28,01
Arrozua-Ubarrundia	429	1	23,31	-	-	1	23,31
Artziniega	870	1	11,49	3	-	4	45,98
Asparrena	791	2	25,28	3	-	5	63,21
Aiara	1.350	1	7,41	-	-	1	7,41
Barrundia	367	1	27,25	-	-	1	27,25
Kanpezu	515	1	19,42	-	-	1	19,42
Burgelu	251	1	39,84	-	-	1	39,84
Elciego	517	1	19,34	-	-	1	19,34
Iruña Oka	1.316	4	30,40	-	-	4	30,40
Kripan	83	-	-	1	-	1	120,48
Bastida	700	1	14,29	-	-	1	14,29
Lagran	90	1	111,11	-	-	1	111,11
Guardia	728	3	41,21	-	1	4	54,95
Lantarón	414	1	24,15	-	-	1	24,15
Lapuebla de labarca	446	2	44,84	-	-	2	44,84
Laudio	9.243	21	22,72	1	1	23	24,88
Legutiano	768	3	39,06	1	-	4	52,08
Leza	101	1	99,01	-	-	1	99,01
Moreda Araba	133	1	75,19	-	-	1	75,19
Oion	1.529	3	19,62	2	-	5	32,70
Erribera Beitia	537	3	55,87	-	-	3	55,87
Agurain	2.283	8	35,04	5	1	14	61,32
Gaubea	516	1	19,38	1	-	2	38,76
Vitoria-Gasteiz	117.774	434	36,85	116	31	581	49,33
Zigoitia	751	1	13,32	-	-	1	13,32
Zuia	1.155	1	8,66	-	-	1	8,66
<b>GUZTIRA</b>	<b>155.259</b>	<b>516</b>	<b>33,23</b>	<b>139</b>	<b>36</b>	<b>691</b>	<b>44,51</b>

Iturria: Azterketa Arloa. SSKZ. Herrizaingo Saila.

**Bizkaian**, biktimizazioak udalerrien arabera aztertuz (9. taula), honako hauetan izan da genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioen kopuru handiena: Bilbon (%31,9), Barakaldon (%10,9), Getxon (%6,6), Portugaleten, Basaurin nahiz Sestaon; azken hiru horietako bakoitzean, Bizkaiko genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazio guztiaren %4 baino apur bat gehiago izan da.

Beraz, Arabako lurralde historikoan gertatu bezala, eta logikoa nahiz espero izatekoa zenez, biztanle gehien dituzten Bizkaiko udalerriak dira indarkeria-mota horretako biktimizazio-kopuru handiena dutenak.



## HERRIZAINGO SAILA

Genero-indarkeriaren Biktimei  
Laguntzeko Zuzendaritza

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

Dirección de Atención a las Víctimas  
de la Violencia de Género

10.000 emakumeren araberako tasak kalkulatu dira Estatistikako Institutu Nazionalean jasotako biztanleria-kopuruaren arabera, eta, tasa horiek oinarri hartuta, genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioen kopurua aztertu da udalerriko emakume guztien kopuruarekiko; zehazki, honako udalerrri hauetan daude tasa altuenak: Arakaldo, Arratzu, Artzentaletas, Busturia, Gatika, Zierbena, Lemoa, Etxebarria eta Loiu.

Ikus daitekeen bezala, gehienak udalerrri oso txikiak dira, eta, beraz, gogorarazi behar da ezaugarri hori kontu handiz interpretatu behar dela, udalerrri horien neurri txikia izan baitaiteke tasa altua izateko arrazoia; izan ere, udalerrri txikiak izatean, nahikoa da biktimizazio-kasu bat edo bi izatea bertako tasak gora egiteko, Arakaldoko edo Arratzuko kasu zehatzetan gertatu bezala.

9. taula. Genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioak Bizkaiko udalerrietan (2009)

HERRIA	Emakume - biztanleria	BIKOTEKIDEA / BIKOTEKIDE OHIA		FAMILIA BARRUKOA	SEXUALA	GUZTIRA	
		Biktimizazio- kopurua	Tasa, 10.000 emakum	Biktimizazio- kopurua	Biktimizazio- kopurua	Biktimizazio- kopurua	Tasa, 10.000 emakum
Abadiño	3.580	5	13,97	6	-	11	30,73
Abanto Zierbena	4.875	26	53,33	9	1	36	73,85
Alonsotegi	1.452	4	27,55	1	-	5	34,44
Amorebieta- Etxano	8.911	22	24,69	3	3	28	31,42
Arakaldo	40	-	-	1	-	1	250,00
Areatza	581	1	17,21	-	-	1	17,21
Arrankudiaga	452	1	22,12	-	-	1	22,12
Arratzu	178	-	-	2	-	2	112,36
Arrigorriaga	6.256	13	20,78	6	-	19	30,37
Artea	362	1	27,62	-	-	1	27,62
Artzentaletas	320	-	-	3	-	3	93,75
Atxondo	723	2	27,66	-	-	2	27,66
Bakio	1.119	3	26,81	2	-	5	44,68
Balmaseda	3.671	10	27,24	6	-	16	43,58
Barakaldo	50.086	219	43,72	68	17	304	60,70
Barrika	711	2	28,13	1	-	3	42,19
Basauri	21.893	80	36,54	31	3	114	52,07
Bedia	510	1	19,61	1	-	2	39,22
Berango	3.292	8	24,30	12	2	22	66,83
Bermeo	8.617	35	40,62	12	5	52	60,35
Berriatua	567	1	17,64	-	-	1	17,64
Berriz	2.375	6	25,26	3	-	9	37,89
Bilbo	186.310	627	33,65	203	58	888	47,66
Busturia	835	3	35,93	1	3	7	83,83
Derio	2.640	8	30,30	-	-	8	30,30
Durango	14.188	36	25,37	15	-	51	35,95
Elantxobe	230	1	43,48	-	-	1	43,48



## HERRIZAINGO SAILA

Genero-indarkeriaren Biktimei  
Laguntzeko Zuzendaritza

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

Dirección de Atención a las Víctimas  
de la Violencia de Género

HERRIA	Emakume - biztanleria	BIKOTEKIDEA / BIKOTEKIDE OHIA		FAMILIA BARRUKOA	SEXUALA	GUZTIRA	
		Biktimizazio- kopurua	Tasa, 10.000 emakum	Biktimizazio- kopurua	Biktimizazio- kopurua	Biktimizazio- kopurua	Tasa, 10.000 emakum
Elorrio	3.615	5	13,83	1	3	9	24,90
Erandio	12.206	76	62,26	10	2	88	72,10
Ermua	8.039	13	16,17	7	2	22	27,37
Etxebarri	4.189	17	40,58	6	1	24	57,29
Etxebarria	395	2	50,63	1	-	3	75,95
Forua	485	-	-	1	-	1	20,62
Galdakao	14.727	56	38,03	12	1	69	46,85
Galdames	389	2	51,41	-	-	2	51,41
Gamiz-Fika	623	1	16,05	-	-	1	16,05
Gatika	738	5	67,75	1	-	6	81,30
Gernika-Lumo	8.359	41	49,05	10	3	54	64,60
Getxo	42.892	121	28,21	48	13	182	42,43
Gorliz	2.657	4	15,05	5	1	10	37,64
Güeñes	3.148	7	22,24	-	1	8	25,41
Ibarrangelu	303	-	-	2	-	2	66,01
Igorre	2.108	-	-	1	-	1	4,74
Iurreta	1.932	6	31,06	-	-	6	31,06
Karrantza Harana	1.351	5	37,01	3	-	8	59,22
Leioa	15.199	38	25,00	8	2	48	31,58
Lekeitio	3.802	10	26,30	5	-	15	39,45
Lemoa	1.564	8	51,15	3	1	12	76,73
Lezama	1.223	2	16,35	3	-	5	40,88
Loiu	1.063	6	56,44	2	-	8	75,26
Mallabia	578	2	34,60	-	-	2	34,60
Markina-Xemein	2.281	8	35,07	-	-	8	35,07
Maruri-Jatabe	427	1	23,42	-	-	1	23,42
Mendata	177	1	56,50	-	-	1	56,50
Meñaka	328	1	30,49	-	-	1	30,49
Morga	181	1	55,25	-	-	1	55,25
Mundaka	954	1	10,48	1	-	2	20,96
Mungia	8.099	35	43,22	6	3	44	54,33
Murueta	150	1	66,67	-	-	1	66,67
Muskiz	3.561	13	36,51	5	-	18	50,55
Muxika	710	2	28,17	-	-	2	28,17
Ondarroa	4.450	7	15,73	6	-	13	29,21
Ortuella	4.371	15	34,32	5	-	20	45,76
Plentzia	2.131	11	51,62	2	1	14	65,70
Portugalete	24.951	78	31,26	38	5	121	48,50
Santurtzi	24.135	74	30,66	29	6	109	45,16
Sestao	15.247	83	54,44	26	3	112	73,46
Sondika	2.315	5	21,60	7	1	13	56,16
Sopelana	6.185	13	21,02	3	3	19	30,72
Sopuerta	1.192	3	25,17	2	-	5	41,95
Ugao-Miraballes	1.981	4	20,19	-	-	4	20,19
Urduliz	1.657	6	36,21	-	-	6	36,21
Urduña	2.031	4	19,69	1	-	5	24,62
Trapagaran	6.301	25	39,68	10	-	35	55,55
Zalla	4.163	15	36,03	6	-	21	50,44



## HERRIZAINGO SAILA

Genero-indarkeriaren Biktimei  
Laguntzeko Zuzendaritza

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

Dirección de Atención a las Víctimas  
de la Violencia de Género

HERRIA	Emakume - biztanleria	BIKOTEKIDEA / BIKOTEKIDE OHIA		FAMILIA BARRUKOA	SEXUALA	GUZTIRA	
		Biktimizazio- kopurua	Tasa, 10.000 emakum.	Biktimizazio- kopurua	Biktimizazio- kopurua	Biktimizazio- kopurua	Tasa, 10.000 emakum.
Zamudio	1.617	7	43,29	-	-	7	43,29
Zaratamo	859	4	46,57	2	-	6	69,85
Zeanuri	643	3	46,66	-	-	3	46,66
Zierbena	616	4	64,94	1	-	5	81,17
<b>GUZTIRA</b>	<b>590.326</b>	<b>1.967</b>	<b>33,32</b>	<b>665</b>	<b>144</b>	<b>2.776</b>	<b>47,02</b>

Iturria: Azterketa Arloa. SSKZ. Herrizaingo Saila.

Azkenik, **Gipuzkoako lurralde historikoari** dagokionez (10. taula), eta Araban nahiz Bizkaian gertatu bezala, biktimizazio-kopuru handieneko udalerriek dute biztanleria-dentsitate handiena; hau da, Donostia hiriburuak eta, atzetik, Irunek eta Errenteriak.

10.000 emakumeren araberako tasari dagokionez, honako udalerrri hauek dute tasarik altuena: Gaztelu, Abaltzisketa eta Getaria; aldiz, Ibarra, Legazpin eta Oiartzunen daude tasarik baxuenak 10.000 emakumeko.

10. taula. Genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioak Gipuzkoako udalerrietan (2009)

HERRIA	Emakume- biztanleria	BIKOTEKIDEA / BIKOTEKIDE OHIA		FAMILIA BARRUKOA	SEXUALA	GUZTIRA	
		Biktimizazio- kopurua	Tasa, 10.000 emakum.	Biktimizazio- kopurua	Biktimizazio- kopurua	Biktimizazio- kopurua	Tasa, 10.000 emakum.
Abaltzisketa	141	2	141,84	-	-	2	141,84
Aduna	168	2	119,05	-	-	2	119,05
Aia	849	4	47,11	-	-	4	47,11
Aizarnazabal	298	1	33,56	-	-	1	33,56
Albiztur	154	-	-	1	-	1	64,94
Alegia	841	2	23,78	-	1	3	35,67
Alkiza	154	1	64,94	-	-	1	64,94
Amezketza	460	1	21,74	-	-	1	21,74
Andoain	7.182	23	32,02	7	2	32	44,56
Antzuola	1.050	2	19,05	-	-	2	19,05
Aretxabaleta	3.240	7	21,60	5	-	12	37,04
Arrasate	11.063	27	24,41	10	-	37	33,44
Asteasu	697	3	43,04	-	-	3	43,04
Astigarraga	2.193	7	31,92	5	-	12	54,72
Azkoitia	5.515	12	21,76	1	-	13	23,57
Azpeitia	7.024	10	14,24	5	-	15	21,36
Beasain	6.602	19	28,78	8	1	28	42,41
Belauntza	138	1	72,46	-	-	1	72,46
Bergara	7.394	16	21,64	4	3	23	31,11



## HERRIZAINGO SAILA

Genero-indarkeriaren Biktimei  
Laguntzeko Zuzendaritza

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

Dirección de Atención a las Víctimas  
de la Violencia de Género

HERRIA	Emakume- biztanleria	BIKOTEKIDEA / BIKOTEKIDE OHIA		FAMILIA BARRUKOA	SEXUALA	GUZTIRA	
		Biktimizazio- kopurua	Tasa, 10.000 emakum.	Biktimizazio- kopurua	Biktimizazio- kopurua	Biktimizazio- kopurua	Tasa, 10.000 emakum.
Deba	2.678	8	29,87	-	2	10	37,34
Donostia	97.805	287	29,34	82	23	392	40,08
Eibar	14.124	27	19,12	14	1	42	29,74
Elgoibar	5.526	13	23,53	5	1	19	34,38
Errenteria	19.633	97	49,41	16	8	121	61,63
Eskoriatza	1.963	7	35,66	1	-	8	40,75
Gaztelu	68	1	147,06	-	-	1	147,06
Getaria	1.283	12	93,53	4	-	16	124,71
Hernani	9.749	25	25,64	6	4	35	35,90
Hernialde	161	-	-	1	-	1	62,11
Hondarribia	8.103	12	14,81	4	5	21	25,92
Ibarra	2.061	1	4,85	-	-	1	4,85
Idiazabal	1.071	2	18,67	-	-	2	18,67
Ikaztegieta	215	1	46,51	-	-	1	46,51
Irun	30.978	107	34,54	36	14	157	50,68
Irura	667	4	59,97	-	-	4	59,97
Itsasondo	315	1	31,75	-	-	1	31,75
Lasarte-Oria	8.923	33	36,98	4	1	38	42,59
Lazkao	2.551	2	7,84	2	-	4	15,68
Leaburu	182	1	54,95	-	-	1	54,95
Legazpi	4.226	3	7,10	-	-	3	7,10
Legorreta	700	2	28,57	-	-	2	28,57
Lezo	3.032	6	19,79	3	-	9	29,68
Mendaro	878	7	79,73	1	-	8	91,12
Mutriku	2.469	3	12,15	6	-	9	36,45
Oiartzun	4.904	5	10,20	-	-	5	10,20
Oñati	5.439	7	12,87	3	2	12	22,06
Ordizia	4.835	14	28,96	1	1	16	33,09
Orio	2.480	6	24,19	-	-	6	24,19
Ormaiztegi	622	2	32,15	4	-	6	96,46
Pasaia	8.263	36	43,57	11	3	50	60,51
Soraluze	2.004	3	14,97	-	-	3	14,97
Tolosa	9.266	25	26,98	5	9	39	42,09
Urnieta	2.981	10	33,55	2	-	12	40,25
Urretxu	3.372	11	32,62	1	5	17	50,42
Usurbil	2.807	12	42,75	-	1	13	46,31
Villabona	2.832	10	35,31	9	3	22	77,68
Zarautz	11.425	24	21,01	12	-	36	31,51
Zegama	674	2	29,67	1	-	3	44,51
Zestoa	1.657	4	24,14	2	-	6	36,21
Zizurkil	1.373	1	7,28	1	-	2	14,57
Zumaia	4.573	20	43,73	5	-	25	54,67
Zumarraga	5.047	13	25,76	7	-	20	39,63
<b>GUZTIRA</b>	<b>356.377</b>	<b>1.007</b>	<b>28,26</b>	<b>295</b>	<b>90</b>	<b>1.392</b>	<b>39,06</b>


Iturria: Azterketa Arloa. SSKZ. Herrizaingo Saila.

## 2.2.4. Denbora-ezaugarriak

Atal honetan, urteko hilen, asteko egunen eta eguneko orduen arabera biktimizazioetan izaten diren desberdintasunei egingo diegu erreferentzia.

Hilari dagokionez (3. grafikoa), biktimizazio-kopuru handiena udaldian (maiatza, ekaina, uztaila eta abuztua), martxoan eta abenduan izaten da; beraz, ondoriozta daiteke biktimizazio gehiago dagoela oporrak izaten diren hiletan (uda, Aste Santua eta Gabonak). Datu hori, funtsean, genero-indarkeriaren mota batek eragiten du, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriak, hain zuzen; izan ere, hilabete horietan biktimak eta erasotzaileak denbora gehiago pasatzen dute elkarrekin bizitzen.

3. grafikoa. Genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioak EAEn, hilen arabera (2009)




Iturria: Azterketa Arloa. SSKZ. Herrizaingo Saila.

Joera bera hauteman da **asteko egunei** dagokienez ere (4. grafikoa), asteburuetan (larunbatak eta igandeak) indarkeria-kasu

gehiago gertatu baitira; izan ere, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria-kasuei dagokienez, egun horietan bizikidetzaren indartsuagoa eta ohikoagoa izaten da.

#### 4. grafikoa. Genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioak EAEn, asteko egunaren arabera (2009)




Iturria: Azterketa Arloa. SSKZ. Herrizaingo Saila.

Biktimizazio-indize handiena izaten den **eguneko orduak** (5. grafikoa), halaber, erasotzaileak aisialdiaz edo denbora libreaz gozatzeko aukera gehien duen orduak dira, arratsaldeko 7etatik gaueko 11etara; joera hori alderantzizkoa da lanean hasi aurreko atsedenerduetan (goizeko 4etatik 8etara).



5. grafikoa. Genero-indarkeriatatik emakume-biktimizazioak EAEn, eguneko orduen arabera (2009)



Iturria: Azterketa Arloa. SSKZ. Herrizaingo Saila.

Datu horiek aintzat hartuta, kausalitate-lotura bat egin dezakegu genero-indarkeria jasateko aukeraren (bereziki, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa) eta eraso hori gertatzen den eguneko orduaren, asteko egunaren edota urteko hilaren artean; logikoaenez, eraso jasateko aukera askoz ere handiagoa da erasotzailea biktimarekin batera aisialdian dagoen aldietan.



## 2.2.5. Ezaugarri soziodemografikoak

### a) Biktimak

#### ➤ Adinaren arabera

Beheko taulan (11. taula) genero-indarkeriaren eraginez aurreko urtean izan ziren emakume-biktimizazioen kopuruak jaso dira, adin-taldean, genero-indarkeriaren hiru moten/moduen eta hiru lurralde historikoen arabera; horrez gain, hiru lurraldeetako hiriburuetan izandako datu espezifikoak berezi dira.

11. taula. Genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioak EAEn, adin-taldean, motaren eta lurralde historikoen arabera (2009)


MOTA/LURRALDEA	ADINA							GUZTIRA
	<18	18-30	31-40	41-50	51-60	60<	Ez dakigu	
<b>BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIAK ERAGINDAKO INDARKERIA</b>	<b>53</b>	<b>1.222</b>	<b>1.288</b>	<b>677</b>	<b>170</b>	<b>74</b>	<b>6</b>	<b>3.490</b>
ARABA	13	199	182	93	20	7	2	516
<i>VITORIA-GASTEIZ</i>	11	176	156	68	15	7	1	434
BIZKAIA	28	693	733	367	99	44	3	1.967
<i>BILBO</i>	9	228	228	106	38	16	2	627
GIPUZKOA	12	330	373	217	51	23	1	1.007
<i>DONOSTIA</i>	6	95	99	63	18	5	1	287
<b>FAMILIA BARRUKO INDARKERIA (BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIAK ERAGINDAKO SALBU)</b>	<b>193</b>	<b>189</b>	<b>155</b>	<b>190</b>	<b>168</b>	<b>198</b>	<b>6</b>	<b>1.099</b>
ARABA	28	30	21	26	15	19	-	139
<i>VITORIA-GASTEIZ</i>	19	24	17	23	15	18	-	116
BIZKAIA	110	114	90	121	105	122	3	665
<i>BILBO</i>	37	35	32	34	29	36	-	203
GIPUZKOA	55	45	44	43	48	57	3	295
<i>DONOSTIA</i>	13	8	14	8	18	21	-	82
<b>SEXU-ASKATASUNA</b>	<b>99</b>	<b>84</b>	<b>46</b>	<b>29</b>	<b>5</b>	<b>2</b>	<b>5</b>	<b>270</b>
ARABA	8	13	10	4	1	-	-	36
<i>VITORIA-GASTEIZ</i>	5	12	10	4	-	-	-	31
BIZKAIA	53	43	26	17	3	2	-	144
<i>BILBO</i>	20	22	11	5	-	-	-	58
GIPUZKOA	38	28	10	8	1	-	5	90
<i>DONOSTIA</i>	8	8	-	2	-	-	5	23
<b>GUZTIRA</b>	<b>345</b>	<b>1.495</b>	<b>1.489</b>	<b>896</b>	<b>343</b>	<b>274</b>	<b>17</b>	<b>4.859</b>

Iturria: Azterketa Arloa. SSKZ. Herrizaingo Saila.

Horri dagokionez, esan daiteke biktimen adin-taldeak aldatu egiten direla erreferentzia egiten diogun genero-indarkeriaren motaren/moduaren arabera.

Hau da, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaz hitz egiten dugunean (6. grafikoa), adin-talde gazteenak (baino adindunak) dira nagusi: 31-40 urte (%37) eta 18-30 (%35); aldiz, 60 urtetik gorako emakumeen taldean, biktimizazio-arriskua txikiagoa da (%2).


6. grafikoa. Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriatatiko emakume-biktimizazioak EAEn, biktimen adin-taldearen arabera (2009)



Iturria: Azterketa Arloa. SSKZ. Herrizaingo Saila.

Familia barruko indarkeriari dagokionez, emakumeak nahiko modu paretsuan banatu dira adin-talde desberdinen artean; hala ikus daiteke 7. grafikoan. Dena den, biktimizazio-kopuru handiagoa hauteman da bi adin-talde muturrenekoetan eta ahulenetan: 18 urtez azpikoa eta 60 urtetik gorakoa (biak ala biak %18koak).

7. grafikoa. Familia barruko indarkeriatiko emakume-biktimizazioak EAEn, biktimen adin-taldeen arabera (2009)




Iturria: Azterketa Arloa. SSKZ. Herrizaingo Saila.

Amaitzeko, sexu-askatasunaren aurkako delituei dagokienez, 8. grafikoan ikus dezakegu emakumeak zenbat eta gazteago izan orduan eta aukera gehiago dituztela era horretako erasoak jasateko.

Zehazki, 2009ko datuei dagokienez, adin-taldeen ehunekoek erakusten dute biktimizazioen %68 30 urtetik beherako emakumeetan gertatu dela (%37 18 urtez azpikoak eta %31 18-30 urtekoak); gainerako %32 gutxituz doa, poliki-poliki, adinak aurrera egin ahala.

8. grafikoa. Sexu-askatasunaren aurkako delituengatiko emakume-biktimizazioak EAEn, biktimen adin-taldeen arabera (2009)




Iturria: Azterketa Arloa. SSKZ. Herrizaingo Saila

➤ *Jaioterriaren arabera*

Segidan, genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioen taula bat ezarri da biktimen jaioterriaren arabera (12. taula), eta horiek indarkeria-motaren/moduaren eta lurralde historikoen arabera bereizi dira; horrez gain, taula hori laburtzen duen grafiko bat erantsi da (9. grafikoa).

9. grafikoa ikus daitekeenez, biktimizazioen %32 atzerrian jaiotako emakumeei dagokie, eta, ostera, gainerako %68ak Espainiako estatuan jaiotako emakumeei egiten die erreferentzia; %54, gutxi gorabehera, EAEn jaiotakoak dira —%32,5 Bizkaiar, %15,54 Gipuzkoar eta %5,62 Arabar—, eta beste %14 bat beste autonomia-erkidegoetan.

9. grafikoa. Genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioak EAEn,  
biktimen jaioterriaren arabera (2009)



Iturria: Azterketa Arloa. SSKZ. Herrizaingo Saila.

Jatorria eta jasandako indarkeria-mota (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa, familia barrukoa eta sexu-askatasunaren aurkakoa) aintzat hartuta, zenbait desberdintasun hauteman dira bereizitako hiru indarkeria-motetako bakoitzean izan diren biktimen jaioterriari dagokionez. Hau da, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria espezifikoan, biktimizazioen %38, gutxi gorabehera, atzerrian jaiotako emakumei dagokie; ehuneko hori %18ra jaitsi da familia barruko biktimizazioei dagokienez (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoak salbu), eta, sexu-askatasunaren aurkako delituei dagokienez, berriz, %25era igo da kopurua berriro.





12. taula. Genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioak EAEn, indarkeria-motaren, lurralde historikoaren eta biktimen jaioterriaren arabera (2009)

MOTA/LURRALDEA	BIKOTEKIDEAREN / BIKOTEKIDE OHIAREN INDARKERIA				FAMILIA BARRUKO INDARKERIA				SEXU-ASKATASUNAREN AURKAKO A				GUZTIRA		
	Guztira	Arab.	Biz.	Gip.	Guztira	Arab.	Biz.	Gip.	Guztira	Arab.	Biz.	Gip.			
EAE + beste AEEE	EAE	Araba	200	187	3	10	57	52	1	4	16	15	-	1	273
		Bizkaia	1.049	47	975	27	430	6	423	1	100	4	94	2	1.579
		Gipuzkoa	511	5	23	483	174	9	5	160	70	3	5	62	755
		<b>Guztira</b>	<b>1.760</b>	<b>239</b>	<b>1.001</b>	<b>520</b>	<b>661</b>	<b>67</b>	<b>429</b>	<b>165</b>	<b>186</b>	<b>22</b>	<b>99</b>	<b>65</b>	<b>2.607</b>
	BESTE AEEE	411	64	218	129	241	26	138	77	16	4	5	7	668	
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.171</b>	<b>303</b>	<b>1.219</b>	<b>649</b>	<b>902</b>	<b>93</b>	<b>567</b>	<b>242</b>	<b>202</b>	<b>26</b>	<b>104</b>	<b>72</b>	<b>3.275</b>		
ATZERRI A	EUROPA	EB-27	185	20	101	64	37	8	20	9	9	1	6	2	231
		Europako beste herrialdeak	22	4	6	12	6	3	2	1	1	-	1	-	29
		<b>Guztira</b>	<b>207</b>	<b>24</b>	<b>107</b>	<b>76</b>	<b>43</b>	<b>11</b>	<b>22</b>	<b>10</b>	<b>10</b>	<b>1</b>	<b>7</b>	<b>2</b>	<b>260</b>
	AFRIKA	Magreb	98	30	36	32	27	11	9	7	3	1	-	2	128
		Afrikako gainerako herrialdeak	60	15	29	16	6	-	4	2	3	2	1	-	69
		<b>Guztira</b>	<b>158</b>	<b>45</b>	<b>65</b>	<b>48</b>	<b>33</b>	<b>11</b>	<b>13</b>	<b>9</b>	<b>6</b>	<b>3</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>197</b>
	AMERIKA	Latinoamerika	897	137	538	222	114	21	61	32	49	5	31	13	1.060
		AEB eta Kanada	4	-	3	1	-	-	-	-	-	-	-	-	4
		<b>Guztira</b>	<b>901</b>	<b>137</b>	<b>541</b>	<b>223</b>	<b>114</b>	<b>21</b>	<b>61</b>	<b>32</b>	<b>49</b>	<b>5</b>	<b>31</b>	<b>13</b>	<b>1.064</b>
	ASIA	20	-	15	5	3	1	1	1	-	-	-	-	23	
	ZEHAZTU GABEKO ATZERRITARRA	33	7	20	6	3	2	1	-	3	1	1	1	39	
	<b>GUZTIRA</b>	<b>1.319</b>	<b>213</b>	<b>748</b>	<b>358</b>	<b>196</b>	<b>46</b>	<b>98</b>	<b>52</b>	<b>68</b>	<b>10</b>	<b>40</b>	<b>18</b>	<b>1.583</b>	
	Ez dakigu	-	-	-	-	1	-	-	1	-	-	-	-	-	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.490</b>	<b>516</b>	<b>1.967</b>	<b>1.007</b>	<b>1.099</b>	<b>139</b>	<b>665</b>	<b>295</b>	<b>270</b>	<b>36</b>	<b>144</b>	<b>90</b>	<b>4.859</b>		

Iturria: Azterketa Arloa. SSKZ. Herrizaingo Saila.

Atzerrian jaiotako emakumeen taldean, ia %70 (%67, zehazki) latinoamerikar jatorriko emakumeak dira, Boliviakoak eta Kolonbiakoak, batez ere; bigarren talde handiena Europatik etorritako emakumeek osatzen dute (%16), eta horietako gehienak errumaniarrak dira. Segidan, Afrikatik etorritako emakumeen taldea dago, Magrebko herrialdeetatik etorritakoak (Maroko eta Aljeria), eta, gero, Ekuatore Gineatik eta Nigeriatik etorritakoak; kide gutxien duen kontinentea Asia da (%1).

## b) Erasotzaileak


Atal honetan, genero-indarkeriazko ekintzak burutzeagatik Ertzaintzak identifikatutako eta polizia-dokumentuetan erregistratutako gizon erasotzaile guztiak jaso dira. Delitu-tipologia desberdinen artean modu homogeneoan banatutako ehuneko bat dago, eta bertan ezin izan dira berreskuratu,

estatistikoki, erasotzailearen datuak; dena den, horrek ez lioke garrantzirik kendu behar adinari buruzko datu fidagarriak izateak duen balio erantsi handiari.

➤ *Adinaren arabera*

Emakume-biktimizazioetan, biktimak adin-talde gazteenetan (baina adindunak) sartu dira, batez ere: 18-30 eta 31-40 adin-taldeetan. Erasotzaileei dagokienez ere gauza bera gertatu da, bi adin-talde gazteenetan sartu baitira gehienak: 31-40 urteko taldean %34 eta 18-30 urtekoan %27; ostera, adinak gora egin ahala, kopurua gutxituz joan da (10. grafikoa).

10. grafikoa. Genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioak EAEn, erasotzailearen adin-taldearen arabera (2009)



Iturria: Azterketa Arloa. SSKZ. Herrizaingo Saila.

Edonolako indarkeria-motaren arabera aldaketak izateari dagokionez, zenbait desberdintasun hauteman dira, hurrengo orrietan dauden grafikoen ikus daitekeen bezala (11., 12. eta 13. grafikoa); hau da:



- Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriari dagokionez, gizon gehien bildu dituen adin-taldea 31-40 urtekoa da (%37); sexu-askatasunaren aurkako delituei dagokienez, berriz, 18-30 urteko taldean dago erasotzaile gehien (%37), eta erasotzaileen %22k 31-40 urte ditu. Familia barruko indarkerian ere, bi adin-talde horiek dira ugarienak; biek dute erasotzaileen ehuneko bera, adin-talde bakoitzean indarkeria-mota horretako erasotzaileen %26 baitago.
- 18 urtez azpiko erasotzaileei dagokienez, ikus daiteke bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria-kasuetan adin-talde hori txikiagoa dela (indarkeria-mota espezifiko horrek eragindako emakume-biktimizazio guztien %1) familia barruko indarkeriarekin nahiz sexu-askatasunaren aurkako delituekin lotutakoetan baino, %8 eta %5, hurrenez hurren.
- 60 urtetik gorako erasotzaileen artean, halaber, aldea aurki dezakegu, ehuneko hori txikiagoa baita bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriazko gertaeretan (%3) familia barruko gertaeretan baino; izan ere, indarkeria-mota hori eragiten duten erasotzaileen %8k 60 urte baino gehiago dituzte, eta, sexu-askatasunaren aurkako delituetan, berriz, erasotzaileen %5 dira adin-talde horretakoak.


## HERRIZAINGO SAILA

Genero-indarkeriaren Biktimei  
Laguntzeko Zuzendaritza

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR


Dirección de Atención a las Víctimas  
de la Violencia de Género

11. grafikoa. Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriagatiko emakume-biktimizazioak EAEn, erasotzaileen adin-taldean arabera (2009)



Iturria: Azterketa Arloa. SSKZ. Herrizaingo Saila.

12. grafikoa. Genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioak EAEn, erasotzaileen adin-taldean arabera (2009)



Iturria: Azterketa Arloa. SSKZ. Herrizaingo Saila.




## HERRIZAINGO SAILA

Genero-indarkeriaren Biktimei  
Laguntzeko Zuzendaritza

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

Dirección de Atención a las Víctimas  
de la Violencia de Género

13. grafikoa. Sexu-askatasunaren aurkako delituengatiko emakume-biktimizazioak, erasotzaileen adin-taldeen arabera (2009).



Iturria: Azterketa Arloa. SSKZ. Herrizaingo Saila.



## 2.2.6. Babes-aginduak

### a) Eskatutako babes-aginduak

Epigrafe honen baitan, Ertzaintzak epaitegietara bidalitako babes-agindu guztiei buruzko informazioa jaso da.

13. taulan, genero-indarkeriaren biktime diren emakumeek eskatutako babes-aginduen kopurua zehaztu da, erasotzailearekiko harremanaren eta lurralde historikoen arabera.

13. taula. Genero-indarkeriaren biktime diren emakumeek eskatutako babes-aginduak, erasotzailearekiko harremanaren eta gertaeren lurraldearen arabera (2009)

ERASOTZAILEAREKIKO HARREMANA	GERTAERA-LEKUA			
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
<b>BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIAK ERAGINDAKO INDARKERIA</b>	<b>211</b>	<b>690</b>	<b>410</b>	<b>1.311</b>
Ezkontideak	58	208	128	<b>394</b>
Ezkontide ohiak	19	75	42	<b>136</b>
Neska-laguna / bikotekidea	65	189	102	<b>356</b>
Neska-lagun ohia / bikotekide ohia	64	194	113	<b>371</b>
Emaztegaia	3	7	11	<b>21</b>
Emaztegai ohia	2	17	14	<b>33</b>
<b>FAMILIA BARRUKO INDARKERIA (BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIAK ERAGINDAKOA SALBU)</b>	<b>25</b>	<b>112</b>	<b>71</b>	<b>208</b>
Alaba adingabea	1	4	8	<b>13</b>
Ama	10	61	25	<b>96</b>
Gainerako familiarrak	14	47	38	<b>99</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>236</b>	<b>802</b>	<b>481</b>	<b>1.519</b>

Iturria: Azterketa Arloa. SSKZ. Herrizaingo Saila

Taula honetan ikus daitekeen bezala, Bizkaian eskatu dira babes-agindu gehien (%53), baina kontuan izan behar da lurralde horretako biztanleria orokorra ere nabarmen handiagoa dela; Bizkaiaren atzetik, Gipuzkoa dago eskatutako babes-aginduen %32rekin, eta, azkenik, Araban, eskaera guztien %15 egin da.

Indarkeria-mota aztertuz, nabarmendu behar da babes-aginduen %86 eskatu direla bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria-egoera baten ondorioz; eskaeren gainerako %14a familia barruko indarkeria-egoeren ondorio izan dira. Hots, babes-agindu guztien erdia baino gehiago oraindik erasotzailearen bikotekide diren emakumeek eskatu dituzte (ezkontidea, neska-laguna/bikotekidea eta emaztegaia), eta



horien %35 beren bikotekide ohientzat eskatu dituzte emakumeek (ezkontide ohiak, neska-lagun ohiak edo emaztegai ohiak).


## b) Epaitegiek emandako babes-aginduak

Atal honetan, epaitegiek emandako eta Ertzaintzan jasotako babes-agindu guztiak kontatu dira; beraz, Ertzaintzak izapidetutako aginduez gain, udaltzainek izapidetutakoak eta epaitegietan eskatutakoak ere sartu dira.

Dena den, ez dira kontuan hartu neurri zibilak soilik dituzten babes-aginduak, ez eta arma-debekuaren neurria soilik duten babes-aginduak ere, azken hori Guardia Zibilaren eskumenekoa baita. Neurri penalak dituzten gainerako babes-agindu guztiak jaso dira: komunikazio-debekua, urruntze-aginduak...

2009an, 1.950 babes-agindu eman dira guztira, eta horiek honela banatu dira geografari dagokionez (14. grafikoa): erdiak Bizkaian eman dira (%50), %29 Gipuzkoan eta %16 Araban; beraz, emakumeek eskatutako babes-aginduen araberakoak izan dira.

14. grafikoa. Genero-indarkeriagatik epaitegiek emandako babes-aginduak, lurralde historikoen arabera (2009)



Iturria: Azterketa Arloa. SSKZ. Herrizaingo Saila



## 2.2.7. Beste datu batzuk

### a) 2009an EAEn eskoltatutako emakumeak

Etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktimak eskoltatzeko zerbitzua 2004ko azaroaren 29an jarri zen abian, eta Ertzaintzak kudeatzen du.

Zerbitzua abian jarri zenetik, guztira 82 emakumek jaso dute zerbitzu hori EAEn.

2009. urtean, 26 emakumek izan dute babeserako etengabeko eskolta-zerbitzua, eta, abenduaren 31n, kopuru hori 14ra jaitsi da, hainbat arrazoi direla-eta; zehazki, honela banatu da zerbitzu hori lurraldeen arabera: 9 Gipuzkoan eta 5 Bizkaian.

### b) Lokalizatuta egoteko eskumuturrekoak

2009ko abenduan, 7 erasotzailek eta biktimak izan dute GPS sistema (lokalizatuta egoteko eskumuturrekoa).

### c) Telefono mugikorrak

176 emakumek izan dute babesteko Ertzaintzak emandako telefono mugikor bat: Araban bizi diren 24 emakumek, Bizkaian bizi diren 88 emakumek eta Gipuzkoako 64 emakumek.

### d) Etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren espedienteak

Epigrafe honen baitan, genero-indarkeriari buruzko espediente-kopurua nahiz espediente horietan agertzen diren emakume biktimen kopurua jaso da.

2005. urtean, "Etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren espedienteak" izendatutako aplikazio informatikoa ezarri zen, "etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren gertaeretan



## HERRIZAINGO SAILA

*Genero-indarkeriaren Biktimei  
Laguntzeko Zuzendaritza*

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

*Dirección de Atención a las Víctimas  
de la Violencia de Género*

Ertzaintzak egiten dituen jardueren kalitatearen kudeaketa-sistema" burutzeko funtsezko tresnatzat.

Aplikazio horren bidez, genero-indarkeriaren biktimei babes osoa emateko ezinbesteko diren polizia-datuak jasotzen dira; hau da, aplikazio dinamiko eta bizia da, eta bere xedea modu eraginkorrean bete ahal izateko ezinbesteko bizkortasuna eta malgutasuna ditu.

Hori dela-eta, aplikazio horren bidez lortutako datu estatistikoetatik ateratako ondorioak zuhurtziaz erabili behar dira, horien balio ukazina ahaztu gabe; aurreko adierazle-zerrendaren osagarritzat aztertu behar dira.


Zehazki, 2009an, etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren 3.428 espediente ireki dira; espediente batean biktima bat edo gehiago sar daitezkeela kontuan hartuta, guztira 3.690 emakumeri ireki zitzaien espedienteak.

Abenduaren 31n, 4.325 espediente egon dira indarrean, eta, guztira, 4.885 emakumek izan dute poliziaren babes-neurriren bat.

### 2.3. 2002-2009 BILAKAERA

Gure erkidegoan, genero-indarkeriaren kasuak gupidagabe ugarituz joan dira azken urteetan, bikoiztera iritsi arte; hau da, 2002an 2.477 kasu izatetik 2009an 4.859 izatera pasa ziren, 15. grafikoan ikus dezakegun bezala.

15. grafikoa. Genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioen bilakaera EAEn, indarkeria-motaren/moduaren arabera (2002-2009).



Iturria: Azterketa Arloa. SSKZ. Herrizaingo Saila

Hiru indarkeria-motak bereiziz, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriagatiko biktimizazioak nahiz familia barruko indarkeriagatiko biktimizazioak (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoak salbu) bikoiztu egin dira; aldiz, sexu-askatasunaren aurkako delituek nahiko konstante jarraitu dute 8 urte horietan (203 2002an eta 270 2009an). Horri dagokionez, nabarmendu behar da bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria-kasuak 2002an 1.711 izatetik 2009an 3.490 izatera pasa direla; familia barruko



indarkeria-kasuei dagokienez, berriz, 2002an 563 biktimizazio izatetik 2009an 1.099 biktimizazio izatera pasa da.

Datu horiek aintzat hartuta, datozen urteetan ere bi indarkeria-mota horien (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa nahiz familia barrukoa) joerak gora egiten jarraituko duela aurreikus dezakegu, urtean 100-200 kasu gehiago mota bakoitzean, gutxi gorabehera.

Era berean, datu horiek berriro agerian jarri dutenez, aukera gehiago daude emakume bat hura ongi ezagutzen duen edo harekin afektibitate-harremana duen pertsona batek behartzeko (hau da, bere bikotekideak edo bikotekide ohiak nahiz familiako beste kideren batek) ezezagun batek baino.

Amaitzeko, lurralde historikoen bilakaerari buruzko grafiko bat egin da (16. grafikoa), eta, bertan, funtsezko bi gai ikus daitezke:

- Alde batetik, azpimarratu behar da Bizkaia Gipuzkoa baino askoz ere gorago dagoela genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioen kopuruari dagokionez, aztertutako urte guztietan azken horretako kopurua bikoiztu baitu; era berean, indarkeria-mota horrek Gipuzkoan azken urteetan eragin duen biktimizazio-kopuruak Arabakoa bikoiztu du.
- Eta bestetik, nabarmendu behar da hiru lurralde historikoetako hazkunde-joerak gora jarraitu duela azken urteetan; dena den, Araban, beherakada txiki bat hauteman da azken bi urteetan, 2007an izan zuen gailurrarekin alderatuz, urte hartan genero-indarkeriagatiko 711 biktimizazio-kasu izan baitziren.



## HERRIZAINGO SAILA

Genero-indarkeriaren Biktimei  
Laguntzeko Zuzendaritza

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

Dirección de Atención a las Víctimas  
de la Violencia de Género

16. grafikoa. Genero-indarkeriagatiko emakume-biktimizazioen bilakaera EAEn, lurralde historikoen arabera (2002-2009)



Iturria: Azterketa Arloa, SSKZ, Herrizaingo Saila



### 3. INSTITUZIOEN ESKU-HARTZEA

#### 3.1. PLANGINTZA

Azken urteetan, plan ugari onartu dituzte maila oso desberdinetan: berdintasunerako foru- eta toki-planak, edota genero-indarkeriaren alorrean jarduteko toki-planak eta protokoloak, besteak beste.

Antza, 2010. urtean, Genero-indarkeriaren aurkako Eusko Jaurlaritzaren ekintza-plana onartuko dute; une honetan egiten ari dira.

Halaber, azken fasean dago Emakundek proposatutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako EAEko V. Plana, bere sorkuntza-legea dela-eta, legegintzaldi bakoitzaren hasieran, ekintza-plan bat onartzera behartzen baitu Eusko Jaurlaritza; ekintza-planak emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorra oztopatzen edo zailtzen duten trabak ezabatzeko neurriak izango ditu, EAEn aplikatu ahal izateko. V. plan horrek hiru ardatz izango ditu: Ahalduntzea; Gizarte-antolaketa erantzukidea; eta Emakumeen aurkako indarkeria.

Azken ardatz hori egiteko prozesuan, gobernu-egitura berria dela-eta, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Emakunderekin elkarlanean aritu da aktiboki; izan ere, zuzendaritza horrek du genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko politikaren jarraibideak ezartzeko ardura.





## 3.2. SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA

Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak gizartea sentsibilizatzeko lan egin du 2009. urtean, honako jarduera hauen bidez.

### 3.2.1. Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren komunikazio-kanpaina

"Ez dago aitzakiarik. Emakumea gaizki tratatzen duena erruduna da" esloganarekin, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak bere lehenengo kanpaina egin du 2009 amaieran; kanpaina genero-indarkeriaren mota batean oinarritu da eskusiboki, estatistiken arabera indarkeria-mota horrek eragiten baitie emakume gehieni: bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan emakumeek jasaten duten indarkeria.

Kanpaina hori, hain zuzen, beste kanpaina batzuen abiapuntutzat har daiteke; izan ere, Zuzendaritzak hainbat kanpaina egingo ditu emakumeek emakume izate hutsagatik jasaten dituzten indarkeria-mota desberdinei dagokienez herritarrak sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko. Horri dagokionez, hurrengo kanpainetan beste indarkeria-mota batzuetan ezarriko dugu arreta, esaterako: sexu-erasoak, prostituzio behartua eta emakume nahiz neska txikien salerosketa, eta familia barruko indarkeria.

Jakin badakigu zaila dela arazo honi bere osotasunean heltzea; horregatik, lehenengo kanpaina honetan, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak erabaki du kanpaina indarkeria-mota bakarrean oinarritzea, milaka eta milaka emakumek ustez maite eta errespetatu behar zituzten pertsonen eskuetan egunero jasaten duten indarkerian, hain zuzen. Gainera, kanpaina honetan beharrezkotzat jo da indarkeria-mota hori eragiten duten pertsonak erruduntzat hartzen eta zigortzen jarraitzea, azken batean horiek baitira gertaeraren erantzule.

Kanpaina honen azken xedea izan da mezu positibo bat zabaltzea, komunikabideetan ikusi ohi dugunaren aurkakoa, neurri



batean; hau da, eroso bizi diren tratu txarren emaeleak, urruntze-aginduak behin eta berriz urratzen dituztenak, egindako indarkeria-ekintzengatik kartzelan sartzen ez dituztenak edota inolako zigorrik jasotzen ez dutenak, behar bezalako babesik ez duten mehatxatutako emakumeak, tratu txarren egoera salatu arren bikotekide ohiaren eskuetan hiltzen direnak...

Horri dagokionez, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak funtsezkotzat jo du kasu askotan gertatzen dena (ez guztietan) goraiapatzea; hau da, emakumeak gero eta babestuago daudela era horretako indarkerien aurrean, eta genero-indarkeriaren delitua hirugarren delitu-ekintza bihurtu dela, milaka eta milaka gizon Espainiako kartzeletara eramaten dituen.

Kanpaina honen bidez adierazi nahi izan da gobernu honek konpromisoa hartzen duela genero-indarkeriaren biktime diren emakume guztien segurtasuna bermatzeko, bai eta tratu txarren emaeleak benetan diren bezala erakusteko ere; hau da, gaizkileak dira, ez arazo honen benetako kausekin inolako loturarik ez duten arrazoiak direla-eta bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aurrean indarkeriaz erreakzionatu duten gizon "gaixoak". Aipatutako arrazoi horiek gizartean zabalduetako mito batzuk izango lirateke, historikoki gai horrekin lotu izan direnak: jeloskortasuna, droga- eta alkohol-arazoak, laneko estresa, nahaste psikologikoren bat...

Beraz, kanpaina horren bidez argi utzi nahi izan da emakume bati tratu txarra ematen diona erruduna dela, eta, beraz, ez dagoela emakumeen aurkako indarkeria inolaz ere justifika dezakeen arrazoirik. Herritarrei transmititu nahi izan diete indarkeria-mota horren errudun bakarrak erasotzaileak berak direla; ideia hori funtsezkoa iruditzen zaigu, beste era bateko biktimek ez bezala bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria jasaten duten emakumeek beren burua erruduntzat jotzeko joera baitute. Horrenbestez, indarkeria-mota horren biktimek beti pentsatzen dute une jakin batean egin duten zerbaitek eragiten duela bikotekideek beraiekiko indarkeriazko portaera izatea, eta, beraz, jokabidea aldatuz, etorkizunean horrelako gertaerarik ez izatea lortuko dutela.



Azken batean, kanpaina honen xedea izan da mezu bat zabaltzea, hots, indarkeria-mota horren biktima diren emakumeak ez daudela bakarrik, hor gaudela haiek babesteko eta laguntzeko; horrez gain, adierazi nahi izan da ez direla sekula errudun sentitu behar, ERRUDUNAK inolako justifikaziorik ez duen indarkeria-mota hori eragiten dutenak baitira.

Horrez gain, azpimarratu nahi izan da Euskadin milaka emakumek egunero jasaten duten genero-indarkeria eragiten duenaren errua dela, baina baita beste aldera begiratzen duten pertsonena ere; hori dela-eta (beraz, ez da kasualitatea), gizon bat hautatu zen kanpo-ahotsean honako hau esateko: "Emakumea gaizki tratatzen duena ERRUDUNA da". Izan ere, beharrezkoa iruditzen zaigu herritarrek, oro har, eta gizonek, bereziki, onartzea eta barneratzea indarkeria-mota hori ez dela emakumeen arazoa; hau da, gizonen arazoa da, emakumeei emakume izate hutsagatik eragiten diena, eta, beraz, GUZTIOK, gizon nahiz emakume, esku hartu behar dugu arazoa konpontzeko.

### 3.2.2. Azaroaren 25eko kanpaina

Azaroaren 25ean Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna zela-eta, Berdinsareak (Berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Elkarteak) sentsibilizazio-kanpaina bat sustatu zuen; kanpaina horretan, EUDEL, Emakunde eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak hartu zuten parte, elkarlanean.

2009ko kanpaina horren funtsa izan da gazteen artean indarkeriaren prebentzioa bultzatzea, oinarritzkoa baita hori lortzea; izan ere, arazo hori konpontzeko, prebentzioa bultzatu behar da, eta, horretarako, etorkizuneko belaunaldiak balio ez-sexisten arabera informatu eta hezi behar dira.

Horrez gain, azpimarratu behar da kanpaina hori egin aurreko jarduerak gazteekin egin beharreko lan garrantzitsuaz ohartzeko balio izan duela; are gehiago, erakutsi digu lan hori askoz ere aberatsagoa



delak gazteek eurek ere parte hartzen badute. Orain arte, gazteek sentitzen zuten instituzioek baztertu egiten zituztela, eta, askotan, ez zuten beren burua islatuta ikusten instituzioek egiten zituzten kanpainenetan.

Horregatik, kanpaina honetan "ahotsa eman" nahi izan zaie, gizarteko arazo larri honi dagokionez zer iritzi duten jakiteko.

Azkenean, beraz, bideoklip bat grabatu dute kanpaina honetarako, Legazpiko gazte-talde batek konposatutako kantarekin: "Beldur Barik"; horrez gain, indarkeria sexistaren aurkako poltsiko-gida bat egin da neska-mutilentzat, telefonoak eta beste baliabide erabilgarri batzuk dituenak.

### **3.2.3. Hitzaldiak eta hainbat eremutako nahiz komunikabidetako esku-hartzeak**

Genero-indarkeriaren inguruan jendea sentsibilizatzeko, arazo horri buruzko hausnarketa bultzatzeko nahiz Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza berriaren helburuak eta funtzioak ezagutarazteko, 2009. urtean Zuzendaritzak hitzaldiak eman ditu hainbat forotan, hainbat erakundek eta instituzio publiko nahiz pribatuek eskatuta (eskatu zaion aldi oro).

Bestalde, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak elkarrizketa ugari egin ditu hainbat komunikabidetan bere jardueren berri emateko; baina, horrez gain, baita herritarrak sentsibilizatu eta gizarteko arazo larri hori ezagutarazteko ere.



### 3.3. PROFESIOALEN PRESTAKUNTZA

Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak, besteak beste, genero-indarkeriaren arazoan inplikaturik dauden hainbat lan-sektoreen prestakuntza espezifikoa bultzatzea du xede; horren adibide dira Ertzaintzako langileekin egindako prestakuntza-jarduerak eta udaltzain nahiz gizarte-langileentzat diren prestakuntza-jarduerak.

Horrez gain, parte-hartze aktiboa izan du, Deustuko Unibertsitateak antolatutako "Emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeari buruzko masterrean" eskolak eman baititu; master hori, hain zuzen, diziplina anitzeko ikuspegian oinarrituta arazo horretan esku hartzeko prestatu nahi duten pertsonentzat da.

2010. urtetik aurrera, master hori Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak bultzatuko du, eta, horretarako, hitzarmen bat sinatuko du laster Deustuko Unibertsitatearekin.

### 3.4. INFORMAZIOA ETA AHOLKULARITZA

#### 3.4.1. Instituzio, talde eta erakundeentzako laguntza

Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren asmoa ez da soilik indarkeria-mota horren biktimei laguntzea, entzutea eta, hala badagokio, beharrezko den baliabidera bideratzea, baizik eta "laguntzen duenari laguntzea"; horrela, egunero, arazoa bertatik bertara konpontzen saiatzen direnek gaintitu beharreko oztopoen berri izango dugu, eta, horrela, horiek konpontzen saiatuko gara.

Hori dela-eta, zuzendaritza hau, eratu zen unetik beretik, lan handia egiten ari da hainbat eta hainbat erakunde, talde eta instituzio informatzeko eta aholkatzeko. Horri esker, biktimekin zuzenean lan egiten dutenek askotan aurrez aurre izaten dituzten arazoak ezagutu ahal izan ditugu, bai eta aurre egin beharreko erronka berriak ere.

Ildo horretan, hainbat instituziok egindako eskaerei erantzunez, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak bi jarduera



jarri ditu abian 2009an, datozen urteetan ere jarraitzeko xedea dutenak:

a) *Genero-indarkeriaren biktimei arreta ematea, elkartasuna adieraztea eta laguntzea xede duten **elkarte, organizazio eta erakundeentzako laguntzen deialdia egitea**, Herrizaingo sailburuaren 2009ko irailaren 16ko Aginduak arautua (2009ko irailaren 18ko EHAA).*

b) ***Lan-taldeak sortzea, aurkitutako arazoei aurre egiteko edo etorkizuneko erronka berriak lantzeko.** Horri dagokionez, 2009an, hiru lan-talde desberdin jarri dira abian:*

- *Arazo erantsia (buruko gaixotasuna, droga-mendekotasuna, gizarte-bazterketa...) duten biktimei laguntza ematean aurkitutako gabezien baliabide alternatiboak bilatzeko lan-taldea. Une honetan, lehenengo fasean, arazoa bere osotasunean aztertzen ari dira, eta, horretarako, EAEko udal guztietako oinarrizko gizarte-zerbitzuen laguntza eskatu da; zehazki, galdetegi labur bat betearazi zaie, azken urtean zerbitzu horren bidez lagundu dituzten eta hainbat arazo dituzten biktimen kopurua jakiteko.*
- *Prostituzio behartuaren eta emakumeen salerosketaren biktimen premiak aztertzeko lan-taldea. Azken xedea genero-indarkeriaren alorreko lankidetzajarduerak hobetzea da, bai prostituzioari dagokionez, bai sexu-esplotazioko helburuekin pertsonak salerosteari dagokionez; hala, genero-indarkeriaren biktimatzat hartuko dira, batetik, salerosketaren biktima diren emakumeak, eta, bestetik, bezeroengandik edo bikoteengandik genero-indarkeria jasaten dutenak. Hainbat instituzioek eta elkartek parte hartzen duten talde honetan erabaki da prostituzioa bera indarkeria-modutzat hartzeari buruzko eztabaidan ez sartzea, eztabaida hori beste momentu eta talde batzuei baitagokie.*
- *Emakume etorkinenganako genero-indarkeriaren arazoa aztertzeko lan-taldea. Helburua da instituzioekin eta*





Euskadiko elkarte-munduarekin diagnosi-prozesu bateratu bat egitea emakume etorkinek indarkeria-mota horrekiko izan dezaketen ahultasun bereziari buruz, hurrengo urteetarako instituzioen eta gizarte-eragileen artean koordinatutako ekintza eta neurri batzuk proposatzeko; horien bidez, ahultasun hori gutxitu, ezartzen diren babes-neurriei buruz sentsibilizatu eta prebentzioa bultzatuko litzateke, uste baitugu ahultasun handiagoa izan dezakeen talde baten —emakume etorkinen taldea— egoerari aurre egiteko neurri espezifikoak behar ditugula.

Horrez gain, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak **web-orria** sortu du: [www.euskadi.net/violenciadegenero](http://www.euskadi.net/violenciadegenero).

Web-orri horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak dituen helburuen, funtzioen eta jarduera-ildoen berri eman nahi da; baina, horrez gain, arazo larri honi buruz hausnartzeko gune izan nahi du.

Web-orrian honako gai hauei buruzko informazioa lor daiteke:

- *Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren jarduera-ardatzak:*
  - 1. ardatza: Genero-indarkeriaren biktimentzako laguntza. Atal honetan, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak gauzatuko dituen ekintza estrategikoei buruzko informazioa jaso da; besteak beste:
    - Gobernuak genero-indarkeriarekin lotutako gaiak kudeatu eta jorratzeko leihatila bakarra izatea. Horren erakusle, Zuzendaritzak berak kudeaketa zuzenerako dituen baliabideei buruzko informazioa jaso da, esaterako: genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako telefono bidezko arreta-zerbitzua (900 840 111), eta genero-indarkeriaren biktimentzako diru-laguntzen hainbat programa. Horrez gain, beste baliabide batzuei buruzko informazioa azaltzen da, xehetasun osoz: etxebizitza- eta enplegu-alorreko laguntzak.
    - Genero-indarkeriaren biktimen babesa hobetzea.
    - Genero-indarkeriaren biktimentzako laguntza integrala.





- 2. ardatza: Erakundeen koordinazioa eta lankidetzak: bigarren ardatz honetako ekintza esanguratsuei buruzko informazio zehatza jasoko da; besteak beste, honako hauei buruzkoa:
  - Genero-indarkeria prebenitzeko eta indarkeria-mota horren biktimei laguntzeko programa integralak hainbat erakunderen eta administrazio publikoren artean koordinatzea.
  - Genero-indarkeriaren alorrean Eusko Jaurlaritzaren politika koordinatzea.
- 3. ardatza: sentsibilizazioa, prebentzioa eta ikerketa: Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak egiten dituen eta genero-indarkeriaren arazoa gainditzeko funtsezko hiru alderdi horiei erreferentzia egiten dieten jardura eta ekimen guztiak atal honetan sartuko dira; horrez gain, Genero Indarkeriaren Euskal Behatokia abian jartzeko egiten diren aurrerapen guztien berri emango da (ustez, 2010. urtean ezarriko da).

Gainera, gure web-orrian honako gai hauei buruzko informazioa lortu ahal izango da:

- *EAEEn aplikatzen den genero-indarkeriaren alorreko legedia.*
- *Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari dagozkion eginkizunak, gobernu-egitura berriaren arabera.*
- *Arazoari buruzko estatistika eguneratuak, arazoaren benetako munta bere osotasunean ulertzen lagunduko dutenak. 2002. urteaz geroztik EAEen genero-indarkeriaren ondorioz hildako biktimei buruzko estatistikez gain, hilero genero-indarkeriaren beste mota batzuentzako emakume-biktimizazioak jaso dira; halaber, 24 orduko telefono bidezko zerbitzuari buruzko estatistikak aurki daitezke (900 840 111).*
- *Laguntzen eta diru-laguntzen deialdiak: atal honetan, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak egindako bi deialdiri buruzko informazioa jaso da: Elkarte eta organizazioentzako laguntzen deialdiari buruzkoa, eta Genero-indarkeriaren biktimentzako diru-laguntzen deialdiari buruzkoa.*
- *Helbide eta telefono interesgarriak.*



- *Genero-indarkeriaren biktimentzako 24 orduko telefono bidezko arreta-zerbitzua (900 840 111):* zerbitzu honen funtzioak eta ematen dituen laguntzak xehetasunez azaltzen dira.
- *Sentsibilizazio-kanpaina:* une honetan, gure lehenengo sentsibilizazio-kanpainari buruzko bideoa aurki daiteke; kanpaina 2009ko abenduaren 11n jarri zen abian, eta honako eslogan hau zuen: "Ez dago aitzakiarik. Emakumea gaizki tratatzen duena ERRUDUNA da".
- *Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza emateko baliabideak:* atal honetan, honako gai hauei buruzko informazio zabala aurki daiteke: diru-laguntza ekonomikoak, etxebizitza-baliabideak, programa espezifikoak, eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako beste baliabide eta programa batzuk.
- *Gaitzespen-taula:* bertan, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak EAEn gertatzen diren genero-indarkeriazko ekintzak gaitzesten ditu.
- *Albisteak:* arazo honi buruzkoak eta genero-indarkeriazko delituei buruz prentsan agertzen den informazioa aztertzen duten txostenak.
- *Iradokizunen postontzia:* bertan arazo honi buruzko iritzia eman dezake edozein pertsonak edo erakundek, bai eta horri aurre egiteko jarduerak proposatu ere.
- *Genero-indarkeriaren apologiaren salaketa komunikabideetan eta publizitate-bideetan:* atal honetan, "emakumeen aurkako indarkeriaren apologiatzat" har daitekeen edozein egoera salatu daiteke; horretarako, inprimaki bat bete behar da, hainbat daturekin: kexaren zergatia, inplikaturako komunikabidea...

Amaitzeko, web-orri honen bidez, genero-indarkeriaren "on-line" aholkularitza-zerbitzua emango da, arazo horri buruz edonork izan ditzakeen galderei edo zalantzei ahalik eta modurik azkarrenean erantzuten saiatzeko; hau da, biktimek edo edozein motatako genero-indarkeriaren biktimen familiarrek nahiz hurbilekoek.



### 3.4.2. Genero-indarkeriaren biktimentzako 24 orduko telefono bidezko arreta-zerbitzua (900 840 111)

#### a) Ezaugarriak eta funtzioak

Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren erkidego-mailako baliabide bat da; doakoa da, eta, horren bidez, 24 orduko arreta-zerbitzua ematen diete genero-indarkeriaren biktimei.

24 orduko arreta-zerbitzuak telefonoz funtzionatzen du, eta, horren bidez, laguntza psikologikoa nahiz informazioa ematen diete indarkeria-ekintzak jasaten dituzten eta horien ondorioz biktimizazio- edo ahultasun-egoeran dauden emakumeei, bai eta zer egin dezaketen azaldu ere. Hau da, zerbitzu honen bidez, informazioa eman, orientatu, lagun egin, bideratu nahiz entzutean oinarritutako arreta psikologikoa, emozioei eusteko laguntza eta orientazioa emango dira, bai krisi- edo larrialdi-egoeretan, bai egoera kritiko zorrotzean egon ez arren emakumeak genero-indarkeriaren biktima sentitzen diren unean.

Abian jarri zenetik, zerbitzu hori erabili duten emakumeen kopuruak igoera handia izan du, eta, 2009an, 2.874 dei izan ditu (2008an 2.698); urtetik urtera, gainera, bitarteko hau finkatu egin da genero-indarkeriaren edozein adierazpeni egunero aurre egin behar izaten dioten emakumeentzat EAEn dauden baliabide koordinatuen sarearen baitan.

Era berean, zerbitzu horren erabiltzaile izan daitezke biktimen familiarrak edo horien sostengu diren hurbileko pertsonak; hau da, beren inguruan egon daitezkeen biktimei laguntzeko nahia dutenak.

Zerbitzua, halaber, babes-baliabideen sarean lan egiten duten pertsonentzat da, biktimari laguntza psikosoziala emateko informazioa eta aholkularitza ematen baitzaie, bai eta bestelako elkarte eta GKEentzat ere, genero-indarkeriaren alorrean, bereziki, eta/edo emakumeen alorrean, oro har, lan egiten dutenentzat nahiz eta lan profesionala ez izan.



Biktima gure hizkuntza hitz egiteko zailtasunak dituen etorkin bat bada, pertsona horri berehala lagunduko zaio, protokolo honek 51 hizkuntzaren aldibereko itzulpen-zerbitzua baitu. Era berean, arreta espezifikoa emango zaie atzerriartasun-egoerak berak genero-indarkerian dituen berezitasunei; hau da, biktimen eskubideak, deserrotze-egoera edo gizarte-babesaren gabezia direla-eta.

Azpimarratu behar da kontaktu edo harreman fisikorik gabeko telefono bidezko laguntzak hainbat elementu bereizgarri dituela, aldi berean beste zerbitzu batzuen osagarri bihurtzen dutenak; esaterako, honako ezaugarri hauek ditu:

- Eskuragarria eta bizkorra: fisikoki urrun egon arren, norbaitek berehala entzuten eta erantzuten du, eta, horrela, oztopo handiak gainditzen dira biktimekiko lehen harremanari dagokionez. Aldi berean, bitarteko eskuragarria da ia biztanleria guztiarentzako; gainera, doakoa denez eta erabiltzaileentzat kosturik ez duenez, are eta eskuragarriagoa da.
- Deitzen duten pertsonen isilpekotasuna eta anonimotasuna; horrela, errazagoa da emakumeek zerbitzu hauek erabiltzea.
- Entzute-prozesuari ematen dio balioa; hori, hain zuzen, funtsezkoa da beren buruagan berriro konfiantza hartzeko, eta, aldi berean, barrua husteko aukera ematen die.
- Segurtasun-eremua, indarkeria jasaten duen emakumeak bizi duen edozein unetan laguntza eman dezakeena.
- Zentraltasuna, baliabide publiko bakarra baita EAE osorako.
- Laguntza-homogenotasuna; izan ere, EAEko emakume guztiek laguntza bera jasotzen dute baliabide honen bidez, deitzen duten edo bizi diren lekua zeinahi izanda ere.
- "Behatokiaren" funtzioa; arreta-zerbitzua erabiltzen dutenen kasuistika mugatua izan arren, funtzio honi esker indarkeria-mota honen bilakaera azter daiteke.
- Emakume erabiltzaileen premiak gogobetetzea du xede.
- Beste baliabide batzuen osagarria da, betiere aintzat hartuta emakumeei eman beharreko laguntza diziplina anitzekoa izan behar dela; horrez gain, ez du beste baliabide



batzuk ordezkatzeko asmorik. Nolanahi ere, bigarren mailako biktimizazioa saihestu behar da.

Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak berritu egin ditu 2009. urtearen amaieran zerbitzu honen laguntzak, biktimari ematen zaion laguntza etengabe hobetzeko irizpideari jarraiki; besteak beste, honako hobekuntza hauek sartu dira:

- Urteko 365 egunetan eta eguneko 24 orduetan telefono bidezko etengabeko laguntza. Egun, laguntza hori zerbitzua dagoen lekutik bertatik ematen dute; eguneko 24 orduetan, profesional-talde bat egoten da bertan, telefono horretara deitzen dutenei laguntzeko. Horrez gain, zerbitzuaren lekua hobetu eta 112 zenbakiaren ondoan jarri dute, larrialditzat har daitezkeen egoeretan bien arteko koordinazioa hobetzeko (emakumearen edo bere seme-alaben bizitza arriskuan egon daitezkeen ekintza bat gertatzean, esaterako).
- Zentzumen-desgaitasuna duten pertsonentzat eskuragarria.
- Aholkularitza juridikoa. Zerbitzuan egindako hobekuntza honek erabiltzaileen eta, zenbaitetan, profesionalen premiei erantzuten die; hau da, zalantza- eta ezjakintasun-egoeran daudenak, ondorioen beldur direnak, sistemarekiko konfiantzarik ez dutenak, prozesuak duen zailtasuna hautematen dutenak... Erabiltzailea aholkularitza juridikoaren zerbitzu espezializatu batekin —hau da, zalantzak argitu, beldurra gutxitu eta erabiltzaileari, beharrezko diren baliabideekin harremanetan jarriz, egin behar duenari buruzko informazio operatiboa emango diona— harremanetan jarri ahal izateak areagotu egiten du erabiltzaileari emandako erantzunaren osotasuna, eta, horrela, laguntza ematean, diziplina anitzeko ikuspegia are gehiago bultzatzen du.
- Indarkeria-gertaerak errepikatzeko arriskua aztertzekeo protokolo bat egitea, telefono bidezko arretaren profesionalentzat.



- Zerbitzu hori etengabe ebaluatzea, hori hobetzeko prozesuaren baitan.
- Genero-indarkeriaren mota guztien biktimei laguntzea. 2010. urtera arte, emakumeek familian eta/edo eremu afektiboan jasaten duten indarkeria-egoeretan oinarritu da arreta-zerbitzu hori, batez ere; modu espezifikoan, etxeko tratu txarrak zituen xede. Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarentzat funtsezkoa da beste mota bateko genero-indarkeriaren biktimek ere zerbitzu hori erabili ahal izatea. Halaber, garrantzitsua da esatea zerbitzu hori ematen duten profesionalak gaituta daudela lan-esparruan nahiz beste esparru batzuetan jazarpen sexista jasaten ari diren emakumeei babes emozionala, aholkularitza juridikoa eta informazioa emateko; izan ere, biktima horiek errudun eta lotsatuta sentitzeko joera dute, eta horrek oztopatu egiten die askotan laguntza egokia eman diezaioketen lekuetara gerturatzea. Amaitzeko, nabarmendu behar da zenbait ekintza abian jartzen ari direla, etorkizun ez oso urrunean sexu-esplotazioko helburuekin egiten diren gizakien salerosketen biktimei zerbitzu honen bidez laguntzeko eta nora jo behar duten adierazteko.


## b) Egindako dei guztiak

2009. urtean, 2.874 dei jaso dira arreta-zerbitzu honetan, 232 dei hileko, batez beste; 2008an hilerok jasotzen ziren deiak baino apur bat gehiago (224 dei hileko).

Abian jarri zutenetik, zerbitzu honek hazkunde handia izan du jasotako dei-kopuruari dagokionez; hain zuzen, hala ikus daiteke 17. grafikoan.



17. grafikoa. Genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko telefono bidezko zerbitzuan jasotako deiak (2006-2009)



Iturria: Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza


### c) Datu soziologikoak

#### *Sexuaren eta adin-taldearen arabera banaketa*

Deitzen duten pertsonen %92,7 emakumeak dira, eta dei guztien %7,3, beraz, gizonek egiten dituzte; azken horiek, gehienetan, gertuko emakumeren batek bizi duen edo dezakeen indarkeria-egoeraren kezka adierazteko edo zerbitzuari buruzko informazio orokorra eskatzeko deitzen dute. Deitu duten pertsona guztiak honako grafiko honetan ikus daitezkeen moduan bana daitezke, biktime diren, familiar bat edo gertuko pertsona bat diren, edota profesionalak diren aintzat hartuta.



## 18. grafikoa. Dei-banaketa, deitzen duen pertsonaren arabera (2009)



Iturria: Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza

*Adinari* dagokionez, nabarmendu behar da deitzaileen %23,9k 30-39 urte dituztela; 30 urtetik 59 urtera arteko adin-tarteetan daudenak batuta, berriz, deien %58,2 egin dute. 19 urtez azpikoen multzotik hasi eta 29 urte artekoen taldean, emakumeen %26,3 dago; azkenik, badira 60 urtetik gorakoek egindako deiak (%15,5), bai eta oso gazteek egindakok ere (%5,7 19 urtez azpikoetan). Azken talde horrek hazkunde txiki bat izan du azken urtean.

### ***Emakume erabiltzaileen jatorri geografikoa***

EAEko edo estatuko emakumeen deiak nabarmendu dira, kasuen %77,7 baino gehiago izan baitira; deitu duten emakumeen %18, berriz, Latinoamerikako herrialdeetatik etorri da.

Europatik etorritako emakumeek dei gutxiago egin dituzte, %1,9, zehazki; azkenik, Afrikatik etorritako emakumeek egindako deiak %2,1 izan dira eta Asiatik etorritakoek egindakoak %0,2.

Beraz, datu horien bidez ondoriozta daiteke dei gehienak bertako emakumeek egiten dituztela; hala ere, azken urtean, hazkunde txiki bat izan da atzerriko nazionalitatea duten pertsonen taldean.



Bestalde, deia egiten duen pertsonaren jatorria nahiz osatzen duen bikote-mota aintzat hartuta, ondorioztatu da egindako deien %24,2n bikotean atzerritarren bat dagoela: deien %11,9n biak dira atzerritarrak eta %12,2n bikoteko kide bat da atzerritarra. Horrez gain, atzerritar batekin osatutako bikoteen talde horretan, bikotea osatzeko bi mota bereizi dira: bi kideak atzerritarrak diren bikoteak (%49,5) eta bikote mistoak, bikotekide bat atzerritarra denean eta bestea naziokoa (%50,5). Bikote mistoen artean, halaber, bikoteak osatzeko bi modu aurkitu dira: emakumea atzerrikoa eta gizona naziokoa diren kasuak (%38,1), eta, alderantziz, emakumea naziokoa eta gizona atzerrikoa diren bikote mistoak (%12,4).

Zerbitzu horretan aldibereko itzulpen-sistema bat dago atzerriko pertsonak ere erabil dezaten; horrela, laguntza hainbat hizkuntzatan ematen da: ingelesez, frantsesez, arabieraz, errumanieraz edota txineraz, baita gaztelaniaz eta euskaraz ere. Horri esker, beraz, elkarrizketa ugari egin dira bertakoak ez diren hizkuntzetan; bereziki arabieraren erabilera nabarmendu behar da.

### *Deia egiten den lurraldea*

Dei guztien %61,9 Bizkaitik egin dute, %22,1 Gipuzkoatik eta %11,4 Arabatik; gainerako deiak (%4,6) estatuko beste leku batzuetatik egin dituzte edota ez dugu horri buruzko daturik.

Bestalde, dei gehienak hirigune handietatik egin dituzte; Araban, esaterako, nagusi dira Vitoria-Gasteiztik eta Laudiotik egindako deiak; Bizkaian, Bilbotik, Barakaldotik, Etxebarritik eta Leioatik egin dituztenak azpimarratu behar dira; eta, Gipuzkoan, Donostiatik, Irundik eta Errenteriatik egindakoak.



14. taula. Genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko telefono-zerbitzura egindako deiak, lurralde historikoen eta urteen arabera (2006-2009)

	2006	2007	2008	2009
Araba	%8,6	%7,6	%8,9	%11,4
Bizkaia	%70,6	%66,4	%67,9	%61,9
Gipuzkoa	%14	%15,7	%18,5	%22,1
Estatuko beste lekuetatik	%6,9	%10,3	%4,6	%4,5

Iturria: Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza

Ikus daitekeen bezala, estatistikak adierazten du hazi egin dela Arabatik eta Gipuzkoatik egindako deien kopurua; hala, orain dauden ehunekoek lotura handiagoa dute lurraldeetako biztanleria-kopuru guztiarekin eta emakume-kopuruarekin.

### ***Ardurapeko seme-alabak***

Deien %48,9 ardurapean seme-alabak dituzten emakumeek egin dituzte; horien %1,6 haurdun daude, eta %10,9k seme-alaba adingabeak eta 18-23 urteko gazteren bat edo adineko pertsonaren bat dituzte etxean.

Hainbat azterketen arabera, seme-alaba horien %70 tratu txarren biktima dira eta/edo bazter utzita daude. 5 urtez azpiko haurrek ez dituzte onartzen tratu txarrak, eta, beraz, tratu horien aurrean oldartu eta erantzun egiten dute; 5-10 urteko adingabeak direnean, ostera, beren burua erruduntzat jo eta tratu txarrak merezitako zigortzat onartzen dituzte, ez dira jabetzen biktimak direla. Horrek guztiak, beraz, ondorio psikologiko larriak ditu adingabeengan.

### ***Biktima diren emakumeek beren erasotzaileekin duten harremana***

Segidan jarri dugun taulan (15. taula), telefono bidezko arreta-zerbitzura deitzen duen biktimak erasotzailearekiko duen harremanari buruzko datuak jaso dira. Ikus daitekeen bezala, horri dagokionez ez dago alde handirik 2009. urtearen eta 2008aren artean; izan ere, bi urte horietan telefono-



zerbitzura deitu zuten emakumeen ehunekorik altuena beren ezkontidearen edo bikotekidearen indarkeria jasaten ari ziren biktimak ziren (%73 2009an eta %66 2008an).

15. taula. Biktimak erasotzailearekiko duen harremana (2008-2009)

	2008	2009
Ezkontideak	%39,6	%48,4
Bikotekidea	%26,6	%24,1
Bikotekide ohia	%8,1	%9,7
Ezkontide ohia	%9,6	%8,3
Beste batzuk	%9,6	%5,5
Semea	%5,3	%3,1
Aita	%1,2	%0,9

Iturria: Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza

#### d) Deien ezaugarriak

##### *Deiaren zergatia eta egindako esku-hartze mota*

Arreta-zerbitzura deitzeko arrazoi nagusiarri dagokionez, deia egiten duten emakumeek batez ere segurtasuna eta babes emozionala nahi izaten dute, beren egoerari buruz hitz egiteko eta indarkeriarekin lotura zuzena duen informazioa eskatzeko (askotan, arreta-zerbitzura gerturatzeko modutzat erabiltzen da). Gero, erabakiak hartzeko prozesuan, profesional-taldeak biktimari lagun egiten dio telefono bidez.

Lehen aldiz deitu duten emakumeei lagun egiteko, zenbaitetan beharrezkoa izaten da emakume horiei aurrez aurreko laguntza ematen dieten profesionalekin koordinazioan jardutea; hau da, gizarte-langileekin, abokatuekin...

16. taulan, arreta-zerbitzu hau abian jarri zenetik erabiltzaileek deia egiteko izan dituzten arrazoiak eta egin diren esku-hartzeak zehaztu dira; ikus daitekeenez, informazioa, aholkuak eta babes emozionala ematea izan dira, funtsean, lau urte hauetako esku-hartze eta arrazoi nagusiak.



16. taula. Deiaren zergatia eta egindako esku-hartze mota

DEIAREN ARRAZOA ETA ESKU-HARTZEA	2006	2007	2008	2009
Informazioa eta aholkularitza	%44,8	%32,3	%44,7	%55
Lagun egitea / telefono bidezko jarraipena	%3,2	%22,9	%24,3	%16,9
Babes emozionala	%44,5	%41,8	%27,8	%23,6
Beste batzuk (indarkeriarekin zeharka lotutako gaietarako buruzko informazioa)	%5,2	%1,8	%1,8	%2,6
Larrialdiak	%1,7	%1,1	%0,7	%0,6
Sexu-erasoa (orain gutxikoa edo lehenagokoa)	%0,7	%0,1	%0,3	%0,1
Profesionalekiko koordinazioa	--	%0	%0,4	%1,1

Iturria: Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza

### *Deiak ordutegiaren arabera*

Deien %48,7 goizetan egin da, %40,9 arratsaldean eta %10,4 gauean.

Lanegunen eta jaiegunen banaketari dagokionez, deien %77,7 lanegunetan egin da eta %22,3 jaiegun eta/edo asteburuetan.

Jaiegunetan eta gaueko ordutegi-tartean egin diren deiei dagokienez, dei horien ezaugarri espezifikoak bere horretan jarraitu du, emozioei eusteko laguntzaren premia handiagoa izaten baita ordutegi horretan. Tarte horietan deitzen duten emakumeek larrimin handiagoa izatean dute, eta, beraz, arreta-zerbitzuaren bidez larrimin hori baretzen laguntzen zaie.

### *Deiaren iraupena*

Deiek 16 bat minutu iraun dute; hala ere, zenbaitetan, 60 minututik gorako hizketaldiak izan dira.

### *"Indarkeria-zikloaren" arabeko deiak*

Deitu duten pertsonak lehenengo aldiz deitu duten unearan arabera sailkatuz, talderik handiena tentsio-pilaketaren fasean dago (%68,9), eta dei horien %59,9 tentsioa igotzen ari den une zehatzetan izan da; une horietan, hain zuzen, emakumeak sentitzen eta hautematen du eraso jasateko arriskuan dagoela, zalantzez eta benetako beldurrez. Bere erreakzioa jasaten dituen tratu txarren kontzientzia-



mailaren eta garatu duen "babesgabetasun ikasiaren" mailaren araberakoa izango da; horregatik, beti gogorarazi behar dira norbere burua babesteko neurriak.

Ez dira hain ohikoak gertaera bortitza amaitu ondorengo fasean egin diren deiak (erasoa bera); hala ere, indarkeriazko gertaera horren ondorengo bi edo hiru egunetan egindako deiak ugariagoak izan dira, %14,6ra iritsi artekoak. Kasu horietan, deia eraso gertatu eta berehala egiten denean, zenbait mekanismo aktibatzen dira gertaera larrialdietara bideratzeko (polizia, 112-SOS Deiak) edo emakumea ahalik eta azkarren hartu eta/edo hari berehalako laguntza emateko. Bestalde, zenbaitetan, babesa eman eta legedina hiz osasun-alderdiak izapidetzen dituzten zerbitzuetan bertan esaten diete emakumeei zer egin behar duten arreta-zerbitzu hau erabili eta babes emozionala jasotzeko.

Arreta-zerbitzu hori gutxien erabiltzen duen taldea erasoaren ondorengo barealdi-egoeran dauden emakumeek osatzen dute; zehazki, deien %2,2 egin dute.

Azkenik, bada beste talde bat indarkeria-zikloaren faseren batean sailkatu ezin dena, egoera horretatik atera eta gero, jada, beren bizitza berregiten ari baitira; horiek %9,3 dira, gutxi gorabehera. Talde horretako emakumeen artean, ondorio psikologikoren bat hauteman daiteke, eta, beraz, telefono bidezko zerbitzu honen laguntza psikosoziala behar dute, psikologikoki berregiten jarraitzeko eta pertsona balioduna nahiz independentea izatea lortzeko.

### ***Norberaren biktimizazio-kontzientziari dagokion profilaren araberako deiak***

Biktimizazio-kontzientziaren mailari dagokionez, lehenik eta behin tratu txarren biktima-kontzientziarik itxuraz, behintzat, agertzen ez duten edo kontzientzia-maila hori oso ahula duten emakumeen profila aipatuko dugu; larrimin handia dute, eta, askotan, lotura handiagoa du tratu txar



psikologikoak izaten diren egoerekin. Gutxi gorabehera, egiten diren dei guztien %12,9 dira.

Bigarren lekuan, beren egoeraren kontziente diren emakumeen profila dugu; tratu txarren biktima sentitzen dira, baina oraindik ez dute hasi laguntza eskatzeko edo salaketa jartzeko prozesurik. Hau da, zer egin behar duten jakin nahi dute edo, besterik gabe, norbaitek entzun ditzaten nahi dute. Profil horren baitan sartu diren emakumeak arreta-zerbitzuaren bidez lagundutako emakumeen %48 izan dira, gutxi gorabehera.

Azkenik, hirugarren lekuan, prozesuak hasi dituzten eta sostengua nahiz laguntza nahi duten emakumeen profilean sartzen direnak ditugu; esaterako, salaketa jarriz erasotzailearen aurkako ekintzak hasi dituztenak. Egoera horretan dauden emakumeak %39,1 dira, gutxi gorabehera.

#### **e) Zerbitzuaren erabiltzaileei ematen zaien laguntza**

Kasuen %66,3n, emozioei eusteko laguntza psikosoziala eman diete. Emozioei eusteko laguntzaren batez besteko ehunekoak bere horretan jarraitzen du; gainera, jarduera-mota horren premia izan denean, intentsitate handia izan du.

Oro har, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak shock-egoera eta antolaketarik gabeko egoera orokorrean egoten dira; ezinean sentitzen dira, ahul, babesik gabe, isolatuta, blokeatuta. Azken batean, krisi-egoerak izaten dituzte etengabe.

Ia kasu guztietan, askotariko orientazioa eta informazioa ematen da; hau da, arreta-zerbitzuari buruzkoa, tratu txarren egoera baten aurrean jokatzeko moduari buruzkoa, norbere burua babesteari buruzkoa...

#### ***Emakumeei laguntzeko beste zerbitzu batzuetara bideratzea (espezifikoak izan edo ez)***

Kasuen %53,5 hasiera batean ez dira beste zerbitzu batzuetara bideratzen; beraz, egoera telefono bidezko





arreta-zerbitzuarekin aztertzen da. Izan ere, askotan, emakumeek zuzeneko eta berehalako laguntza nahi izaten dute (telefono bidez ematen dena, hain zuzen), baina une horretan ez dira prest sentitzen aurrez aurreko laguntza ematen duten zerbitzuetara joateko edota, jada, aurrez joan izan dira. Emakume horiek beren segurtasun-eremua galtzen dutela senti dezakete beste zerbitzuren batera bideratzean, eta, horren ondorioz, emakume horiekin harremana gal daiteke; beraz, harremana galtzeko aukera hori nahiz beren kasa aurrera ez egiteko arriskua direla-eta, hobe da telefono bidezko harreman bat izatea, emakumearekin kontaktuan egoteko eta hura laguntzeko aukera emango duena.

Erabiltzaileen %8,8rekin esku-hartze intentsiboak egin dira; hau da, beste baliabide batzuetara bideratu dira, bideratze-txostenarekin edo Zerbitzuan bertan zehaztutako eta telefono bidezko arretan garatutako esku-hartzeko proiektu batekin.

Era horretako laguntza emateko, hainbat protokolo eta lankidetzaren eredu zehaztu behar izan dira hainbat zerbitzuren artean; protokolo horiei esker, jada, esku-hartze integralak egin ahal izan dira biktimei Zerbitzuarekin harremanetan jartzen den unetik beretik, bai eta lehenengo harremana izan duen profesionalak telefono bidezko arreta-zerbitzuarekin lankidetzaren harremana ezartzea erabakitzen duen unetik ere. Hala, eta hazkunde txiki bat izan dela aintzat hartuta, %1 izan dira hainbat profesionalen artean koordinatutako deiak.

Bideratutako kasuen artean, zerbitzu juridikoetara, gizarte-zerbitzuetara eta emakumearen berdintasun-sailei atxikitako zerbitzu espezializatuetara egindakoak nabarmendu behar dira; halaber, zenbait kasu laguntza psikologikoa ematen duten zerbitzuetara bideratu dira, gutxiago izan arren.

2009an, 793 dei (%2,7) bideratu dituzte larrialdi-zerbitzuetara eta 112 zenbakira (Sos Deiak); beste 39 dei polizia-zerbitzuetara bideratu dituzte (%1,4).



### 3.5. GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI LAGUNTZA EMATEKO BALIABIDEAK

#### 3.5.1. Baliabide ekonomikoak

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek, beste edozein herritarrek bezala, prestazio ekonomikoak jaso ditzakete, baldin eta bakoitzak ezartzen dituen baldintzak betetzen badituzte; besteak beste: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE), Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL), Gizarteratzeko Errenta Aktiboa (GEA)... Horiez gain, ordea, beste laguntza ekonomiko batzuk daude, espezifikoak, indarkeria-mota horren biktimentzat; esaterako:

- a) **35/1995 Legea, abenduaren 11koa, Indarkeriazko eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntzekoa eta sorostekoa**

Diru-laguntza publikoen sistema bat ezartzen du Espainian gertatutako delitu mingarrien eta indarkeriazko delituen zuzeneko eta zeharkako biktimentzat; hau da, delitu horien ondorioz heriotza edo gorputzeko lesio larriak nahiz osasun fisiko zein mentalean kalte larriak izan dituzten biktimentzat. Halaber, Lege honetan zehaztutako laguntzen onuradun izango dira sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimak, baita delitu horiek indarkeriarik gabe egiten direnean ere.

Zuzeneko biktimatzat, honako hauek izango dira laguntza horien onuradun: delitua gertatu den unean espainiar nazionalitatea edo Europar Batasuneko beste estatu kide bateko nazionalitatea dutenak, edota, hala ez izan arren, eskuarki Espainian bizi direnak edo beren lurraldean espainiarrei ematen zaizkien laguntza analogoak aitortzen dituen beste estatu bateko nazionalitatea dutenak. Heriotza-kasuetan, zeharkako biktimei dagokienez, honako hauek jasoko dituzte laguntzak: hildakoaren ezkontidea, seme-alabak eta gurasoak, ekonomikoki hildakoaren mende bazeuden (betiere Legean araututako baldintzak betetzen badituzte).



35/95 Legeak, besteak beste, lesio larritzat zer hartu behar den zehazten du; hau da, gorputzaren segurtasunari edo osasun fisiko nahiz mentalari kalte egiten dioten lesioak, eta lesio horiek izan dituen pertsona behin-behinean edo betirako ezgaitzen dutenak (gutxitasun iraunkortzat hartzeko gutxienez %33ko elbarritasun-maila izan behar da). Horrez gain, laguntzak ukatzeko edo mugatzeko kausak nahiz laguntza horiek delituek eragindako kalte-galeren indemnizazioak (epai bidez zehaztuak) jasotzearekin duten bateraezintasuna zehazten ditu, delituaren erruduna ordainezintasun-egoeran dagoela aitortu ezean; dena den, ezingo da inola ere bi kontzeptuen bidez epaian zehaztutako kopurua baino gehiago jaso. Halaber, bateraezinak izango dira onuradunak seguru pribatuko sistema baten bidez legez jaso ditzakeen kopuruekin. Edonola ere, laguntzen zenbatekoak ezingo du gainditu, inola ere, epaian zehaztutako indemnizazioa.

Lege honetan aurreikusitako laguntzak Legean zehaztutako datan indarrean dagoen Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren 40 eta 130 hileko soldaten artekoa da; zenbatekoa hainbat irizpideren arabera izango da, esaterako: biktimaren eta onuradunaren egoera ekonomikoa, ekonomikoki horien mende dauden pertsonak edota biktimaren itxurakeria- edo galera-maila.

Lege honen funtsezko bi alderdi azpimarratu behar dira:

- Biktimaren osasun mentalean kalteak eragin dituen sexuaskatasunaren aurkako delituei dagozkien laguntzen bidezotasuna; hau da, biktimak bere kasa aukeratutako tratamendu terapeutikoa ordaintzea, nahiz eta jasandako kalteak behin-behineko ezgaitasuna eragin ez.
- Prozesu penalarik amaiera emango dion behin betiko ebazpen judiziala eman aurretik behin-behineko laguntzak lortzeko aukera, betiere biktima edo haren onuradunak egoera ekonomiko eskasean gelditu direla egiaztatzen bada, behin gertaerak agintari eskumendunen aurrean salatu eta gero edo prozesu penala ofizioz jarraitzen denean; behin-behineko laguntza horiek ezin dira izan Legeak heriotza-kasuetarako, gorputzeko lesio



larrietarako edo osasunean eragindako kalte larrietarako ezarritako gehieneko laguntza-kopuruaren %80 baino gehiago.

Laguntza-eskaerak egiteko aukera baliogabe geratzen da delitu-ekintza gertatzen den datatik urtebetera; horrenbestez, bertan behera geldituko da hainbat egoeratan. Bestalde, Ekonomia eta Ogasun Ministerioari dagokio laguntza horiek izapidetzea eta ebaztea (ministerio horren web-orriko "klase pasiboak" atala).

#### **b) Genero-indarkeriaren biktimentzako laguntza ekonomikoak**

1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan zehaztutako neurria da Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren %75 baino errenta txikiagoa duten biktimentzat; hau da, horien adina, prestakuntza orokor edo espezializatuaren falta eta gizarte-baldintzak direla-eta, enplegu bat lortzeko zailtasun bereziak dituztenentzat.

Laguntza horiek lortzeko bete beharreko baldintzak honako hauek dira: genero-indarkeriaren biktimei dela egiaztatzea, EINeko enplegarritasun-txostena izatea, EAEko edozein udalerritan erroldatuta egotea, eta, hil osokoak batuta, Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren %75 gainditzen duten errentak ez izatea.

Ordainketa bakarreko laguntza ekonomikoa da, eta kopurua aldatu egiten da mendeen adingabeak badituzte (%33 baino gehiago).

Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza ez da bultzatzera eta koordinatzera mugatzen diren funtzioak dituen organo bat, baizik eta beste urrats bat eman da; hain zuzen, genero-indarkeriaren biktimei laguntzeari dagokionez Gobernuak dituen eskumenak kudeatzeko organotzat eratu da. Horri



dagokionez, azpimarratu behar da laguntza ekonomiko horiek zuzendaritza honek zuzenean kudeatzen dituen baliabideak direla.

2009. urtean, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntza ekonomikoen 72 eskaera egin dituzte guztira, eta, horietatik, 36 onartu dira; beste 28 eskaera atzera bota dira, eta gainerako eskaerak (8) ebatzteke daude eskatutako dokumentuak aurkeztu ez direla-eta.


28 eskaera atzera botatzeko emandako arrazoi nagusiak honako hauek izan dira: laguntza-mota hauek Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarekin (lehen Oinarrizko Errenta) edo Gizarteratzeko Errenta Aktiboarekin (GEA) duten bateraezintasuna; babes-agindurik, urruntze-agindurik edo genero-indarkeriaren biktima dela egiaztatzen duen bestelako txostenik ez izatea; eta emakumeen aurkako beste edozein indarkeria-motaren biktima izatea (familia barrukoa edo sexu-askatasunaren aurkakoa), baina ez Babes Integraleko Legean "genero-indarkeriak" hartzen duen zentzu hertsian (hau da, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa).

Emakumeentzako laguntza horrek 195.512 euroko aurrekontua izan du 2009an; aurrekontu horretatik 139.191,33 gastatu da, hots, aurrekontuaren %71.

Onartu diren 36 laguntza horietatik, harritu egin gaitu %66,7 Gipuzkoan eman izanak; Bizkaiko emakumeei, berriz, %22,2 eman zaie, eta, Arabako emakumeei, %11,1.

2009an laguntza hori jaso duten emakumeak bizi diren udalerriei dagokienez, banaketa 19. grafikoan jaso da; bertan ikus daitekeenez, hiru udalerrri nabarmendu dira gainerakoekin alderatuz: bi Gipuzkoan (Donostia eta Irun) eta bat Araban (Vitoria-Gasteiz hiriburua).

19. grafikoa. Genero-indarkeriaren biktimei diren emakumeentzako laguntza ekonomikoak eman zaizkien emakumeak bizi diren udalerrriak



Iturria: Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza

"Jatorri-herrialdea" aldagaiari dagokionez, emandako 36 laguntzetatik gehienak (25) espainiar nazionalitatea duten emakumeek jaso dituzte, eta beste 11 laguntzak beste nazionalitatea duten emakumeek; azken horietan, Latinoamerikako emakumeak nabarmendu behar dira beste guztien gaineratik.



### 3.5.2. Bizitegi-baliabideak

Gure erkidegoan, bizitegi-baliabideen bi mota bereiz daitezke funtsean: alde batetik, berehalako harrera-zerbitzuak, eta, bestetik, harrera-etxeak/zentroak.

Hurrengo orrietan, lurralde bakoitzeko bizitegi-baliabideak aurkeztuko dira, bi kategoria horien arabera; hau da, berehalako harrera-zerbitzuak diren edota egonaldi ertaineko edo luzeko harrera-etxeak/zentroak diren aintzat hartuta.

#### a) Arabako bizitegi-baliabideak

##### *Berehalako harrera-zerbitzuak*

- *Arabako Foru Diputazioaren behin-behineko harrera-zerbitzua*

Guztira 10 plaza dituzten 2 etxe dira; genero-indarkeriaren biktima diren Arabako landa-eremuko emakumeak hartzen dituzte bertan, bai eta horien mende dauden pertsonak ere.

Horrez gain, hezkuntza-laguntzako eta lagun egiteko programa bat garatzen dute.

- *Vitoria-Gasteizko Udalaren berehalako harrera-zentroak*  
3 etxebizitza dira, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak berehala hartzeko erabiltzen direnak. Bertan hilabeteko egonaldia egiten da, nahiz eta egonaldi hori luza daitekeen; aldi horretan, profesional espezializatuek biktimak hartu eta laguntzen dituzte, eta egoera bakoitzerako egokiak diren baliabideak eskura jartzen dizkiete. Bertara Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzuen bidez iristen dira.





### *Arabako harrera-etxeak*

- *Amurrioko Udala - Arabako Foru Aldundia.*

Arabako Foru Diputazioaren eta Amurrioko Udalaren arteko lankidetzeta-hitzarmen baten bidez (%80 eta %20, hurrenez hurren), 5 plazako zubi-etxebizitza bat dago genero-indarkeriaren biktime izan diren emakumeentzat eta horien mende edo ardurapean dauden pertsonentzat.

- *Laudioko Udala*

7plazako etxe bat da; bertan, 6 hilabete egon daitezke emakumeak, gehienez ere, eta Emakumearen Udal Zerbitzuaren nahiz Udaltzaingoaren bidez iristen dira bertara.

- *Vitoria-Gasteizko Udala*

Gizarte-larrialdietarako hainbat etxe ditu genero-indarkeriaren biktime diren emakumeentzat; etxe horietan Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez sartzen dira.

## **b) Bizkaiko bizitegi-baliabideak**

### *Berehalako harrera-zerbitzuak*

- *Bizkaiko Foru Diputazioaren berehalako harrera-zerbitzua*

Zerbitzu honi esker, berehalako erantzuna eman dakiokete tratatu txarren biktime den eta Bizkaian dagoen edozein emakumeri, bai eta bere seme-alabei edo bere ardurapean dauden beste pertsona batzuei ere, harrera-baliabideen premia dutenean.

12 plaza ditu eta lagun egiteko langileak daude 24 orduz; horiek, hain zuzen, biktimei harrera eta lagun egin, eta egoeraren aurrean esku hartzen dute. Zerbitzu horretara Ertzaintzaren bidez edo 112ra deituz iristen dira, eta lurralde osoko biktimentzat da.



### *Bizkaiko harrera-zentroak/etxeak*

- *Bizkaiko Foru Diputazioaren egonaldi ertaineko eta luzeko harrera-zentroak*

Arreta osoa ematen duen bizitegi-zerbitzu bat da, tratatu txarren biktima diren eta Bizkaian bizi diren emakumeentzat, bai bakarrik daudenentzat, bai ardurapean dituzten pertsonen lagundutakoentzat. 2003ko irailean ireki zuten, eta lagun egiteko langileak egoten dira, 24 orduz. Egun, 26 plaza daude bertan, honela banatuta, gutxi gorabehera: 10 plaza emakumeentzat eta 16 plaza emakume horien ardurapean dauden pertsonentzat; bertara, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez nahiz Bizkaiko Foru Diputazioko Berehalako Harrera Zerbitzuen bidez iristen dira.

- *Bilboko harrera-etxeak*

Une honetan, Bilbon 9 harrera-etxe daude genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat, honela banatuta, hain zuzen: berehalako harrera-etxe bat, egonaldi ertaineko edo luzeko 6 etxe, eta autonomia indartzeko beste bi.

Oneratze-fasean dauden biktimentzako etxeei dagokienez (berehalako harrera-etxeak eta egonaldi ertaineko/luzeko etxeak), erabiltzaileek sinatzen duten jabetzarik gabeko lagapen-kontratuak bi hilabeteko iraupena du, baina lau hilabetera luza daiteke; dena den, mugarik gabeko luzapenak izan ditzake, gizarte-langileak egiten dituen balorazioen arabera. Autonomia indartzeko fasean dauden biktimentzako etxeek zubi-etxeen funtzioa dute harrera-aldia amaitu aurretik; horietan, hain zuzen, egonaldiak hiru hilabete irauten du, sei hilabetera arte luza daitekeena.

- *Bizkaiko gainerako udalerrietako harrera-etxeak*

Segidan, taula bat ezarri da (17. taula), eta, bertan, hainbat datu jaso dira: Bizkaiko gainerako udalerrietan dauden harrera-etxeen/zentroen kopurua (aurreko atalean aipatu



diren Bilbo hiriburuko 9 etxez gain), etxe horien jabetza duten erakundeak eta horietan dagoen plaza-kopurua.

17. taula. Bizkaiko harrera-etxeak/zentroak (2009)

ZENTROEN/ETXEEN JABETZA DUTEN ERAKUNDEAK	ZENTROEN/ETXEEN KOPURUAK	PLAZAK
Abanto-Zierbenako Udala Abanto-Zierbena	1	5
Amorebieta-Etxanoko Udala	1	5
Barakaldoko Udala	Larrialdiko eta egonaldi ertain nahiz luzeko zentro integral bat	12
Basauriko Udala	2	10
Bilboko Udala	9	45
Durangoko Udala	1	5
Ermuko Udala	1	5
Galdakaoko Udala	1	5
Portugaleteko Udala	2	5
Santurtziko Udala	1	5
Sestaoko Udala	1	5
Busturialdeko Amankomunazgoa	1	5
Mungialdeko Partzuergoa	1	6
<b>GUZTIRA</b>	<b>22 etxe eta zentro integral bat</b>	<b>118</b>

Iturria: geuk egina, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren datuak oinarri hartuta.  
Gizartekintza Saila - Bizkaiko Foru Aldundia.

### c) Gipuzkoako bizitegi-baliabideak

#### *Berehalako harrera-zerbitzuak*

- *Urrats Larrialditarako Foru Aldundiko Harrera Zentroa*  
12 plazako zentro hau lurralde guztiko biktimentzat da, Donostiakoentzat salbu; izan ere, azken horrek Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzu propioa du.  
Zerbitzu hori Gizarte Larrialdietarako Foru Zerbitzuaren bidez eskura daiteke; urteko egun guztietan eguneko 24 orduetan egoten da eskura.
- *Donostiako Udalaren berehalako harrera-zentroa*  
Tratu txarren eta/edo sexu-indarkeriaren biktime diren emakumeen larrialdi-egoerentarako Donostian dagoen harrera-zentro bat da; bertan, 14 plaza daude, eta,



gehienez ere, 30 eguneko egonaldiak egin daitezke. Bertara, honako zerbitzu hauen bidez irits daitezke emakumeak: Tratu Txarren eta Indarkeriaren Biktimen Larrialdietarako Udal Zerbitzua, Ertzaintza eta Udaltzaingoa. Urteko 365 egunetan, eguneko 24 orduetan, profesionalak izaten dira bertan lanean.

### Gipuzkoako harrera-etxeak

Amaitzeko, 18. taulan, Gipuzkoako lurralde historikoari buruzko honako informazio hau jaso da: etxe-kopurua, horien jabetza duten erakundeak eta deskribapen txiki bat; informazio hori, hain zuen, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak etxe horien jabetza duten erakundeekin izandako elkarrizketei esker lortu da.

18. taula. Gipuzkoako harrera-etxeak (2009)

ERAKUNDEAK	ETXE-KOP.	DESKRIBAPENA
Andoaingo Udala	1	Gehienez, 3 hilabeteko egonaldia egin daiteke bertan, luzatzeko aukera badago ere. Orain arte erabiltzen zen etxearen ordez beste bi txiki ezarri dira, egokigarritasun-arrazoiak direla-eta; horiek bata bestearen ondoan daude. Guztira, 4 logela dituzte.
Arrasateko Udala	1	---
Asteasuko Udala	1	Gehienez ere 3 hilabeteko egonaldia egin daiteke bertan luzatzeko aukera badago ere.
Azpeitiko Udala	1	Erabilera anitzeko etxea da; bertan, gizarte-larrialdiko gertaerak artatzen dituzte, ez eskusiboki genero-indarkeriaren biktimak. Gehienez ere, 4 hilabete egon daitezke bertan; horrez gain, ezinbestekoa da familia-gatazka larriko egoeran egotea eta gizarte-zerbitzuen berariazko eskaera izatea.
Beasaingo Udala	1	Erabilera anitzeko etxea. Orain dela urtebete arte, genero-indarkeriaren biktima ziren emakumeentzat soilik zen; baina, baliabidea gutxiegi erabiltzen zenez, erabilera anitzeko etxe bihurtu zen. Izan ere, beste kasuistika batzuek (esaterako, guraso bakarreko familiak) beharrezko zuten berrantolaketa bat egitea. Gehienez ere, 3 hilabeteko egonaldia egin daiteke bertan, guraso bakarreko familietan salbu, horiek ez baitute zehaztutako mugarik.
Donostiako Udala	5	Gutxi gorabehera 25 plaza daude, eta gehienez ere hiru hilabetez egon daitezke bertan; hala ere, beharrezko izanez gero, egonaldia luza daiteke dagokion balorazioa egin eta gero.
Eibarko Udala	1	Udal-harrerako babes-etxe bat da, 3 logelarekin. Udal-baliabide bat izan arren, Debabarrena eskualde osoko emakumeak hartzen dituzte bertan (Deba, Mutriku, Mendaro, Elgoibar, Soraluze eta Eibar); gainera, probintziako gainerako udalerriek ere lekua eskatzeko aukera izango dute, eta Eskualdeko Batzordeak onartu beharko du beti. Gehienezko egonaldia 4 hilabetekoa izango da.
Errenteriako Udala	1	Larrialdi-premietarako eta etxerik gabeko egoera kritikoetarako udal-etxeak daude, eta horiek alokairu-erregimenean lagatzen dituzte, gehienez ere 4 hilabeteko epean.



## HERRIZAINGO SAILA

Genero-indarkeriaren Biktimei  
Laguntzeko Zuzendaritza

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

Dirección de Atención a las Víctimas  
de la Violencia de Género

ERAKUNDEAK	ETXE-KOP.	DESKRIBAPENA
		Honako egoera hauetan dauden pertsonak hartzen dituzte etxe horietan: uztarazpenak, etxearen hur-hurreko aurria, hondamendia, sutea, uholdea, familia-gatazka larriak, edota etxetik berehala irtetera behartzen duten epai judizialak.
Hernaniko Udala	1	---
Irungo Udala	1	Erabilera anitzeko harrera-etxea da; bertan, gizarte-larrialdiko gertaerak artatzen dituzte, ez eskusiboki genero-indarkeriaren biktimek.
Lasarte-Oriako Udala	1	---
Pasaiaiko Udala	1	---
Tolosako Udala	2	Erabilera anitzeko harrera-etxeak dira; bertan, gizarte-larrialdiko gertaerak artatzen dituzte, ez eskusiboki genero-indarkeriaren biktimek.
Usurbilgo Udala	1	Erabilera anitzeko baliabidea da; bi etxe daude, eta, guztira, 10 plaza dituzte. Bertan, larrialdi-egoeran dauden pertsonak hartzen dituzte (genero-indarkeriaren ondorioz, bizikidetzaz arazoak, suteak, uholdeak...). Gehienez ere, hiru hilabeteko egonaldia egin daiteke bertan; gainera, beste udalerrri batzuetako pertsonak ere sar daitezke, beharrezko irizten denean.
Zarauzko Udala	1	Egun, 3 hilabetez egon daitezke bertan gehienez ere; hala ere, bada beste 6 hilabetez luzatzeko aukera. Une honetan, beste dekretu bat onartu zain daude; horren bidez, egonaldiaren gehienezko iraupena 4 hilabetera luzatuko da, denboramugarik gabe luzatzeko aukerarekin. Etxean 4 logela daude, eta, gehienez ere, 8 pertsona edo 4 bizikidetzaz-unitate egon daitezke bertan.
GUZTIRA		20 HARRERA-ETXE GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAN

Iturria: Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza



### 3.5.3. Programa espezifikoak

#### a) Aholkularitza juridikoa

Hiru lurralde historikoetan ematen dituzten arreta juridikoko doako zerbitzuen helburua da tratatu txarren edo sexu-erasoen biktime izan diren pertsonen egindako kontsultei erantzutea eta, beharrezkoa izanez gero, prozesu judizialean esku hartzea.

Arabari, Arabako Foru Diputazioak eta Vitoria-Gasteizko Udalak kontratatutako kabinete pribatu baten bidez ematen dituzte zerbitzu horiek; zehazki, Vitoria-Gasteizen, Laudion eta Amurrian.

Bizkaiari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiak familia-eskubideei nahiz tratatu txarren eta/edo sexu-erasoen egoerei buruzko aholkularitza juridikoaren zerbitzu bat ematen du; berez, biztanleria guztiarentzat da, baina, batez ere, emakumeek erabiltzen dute. Gainera, lurraldeko zenbait udalek aholkularitza juridikoaren zerbitzu propioa dute.

Azkenik, Gipuzkoan, zenbait udalek prozesu aurreko aholkularitza juridikoaren zerbitzuak ere ematen dituzte.

#### b) Laguntza psikologikoa

EAE guztian, laguntza psikologikoaren askotariko programak daude, biktimei genero-indarkeriaren ondorioz sortutako nahaste psikologiko larriak gainditzen laguntzeko; horiek modu autonomoan antolatzen dira lurralde historiko bakoitzean.

Arabari, Vitoria-Gasteizen eta Laudion ematen da zerbitzua aholkularitza juridikoaren zerbitzuaren modu berean, kanpo-esleipenaren bidez eta Arabako Foru Diputazioaren eta Vitoria-Gasteizko Udalaren artean sinatutako hitzarmenetan oinarrituta. Segidan, taula bat ezarri da (19. taula), eta, bertan, laguntza



psikologikoaren programa horrek Araban 2009an izandako datuak jaso dira.

19. taula. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza psikologikoa emateko zerbitzu espezializatuak (2009)

LAGUNDUTAKO EMAKUMEAK ETA ADINGABEAK	KOPURU A
Laguntza psikologikoa jaso duten eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak	414
Programa horren bidez lagundutako adingabeak	57
<b>GUZTIRA</b>	<b>471</b>

Iturria: geuk egina, Arabako Foru Aldundiak emandako datuak oinarri hartuta.

Bizkaian, zerbitzu hori Bizkaiko Foru Diputazioaren mende dago, eta Bilbon nahiz Markinan ematen dute; halaber, aurreikusi dute hemendik gutxira Zallan zerbitzu hori ematea. Zerbitzua hainbat programaren bidez garatzen da (20. taula), artatutako taldeen eta horiek dituzten arazoan arabera; hots:

- Familiako indarkeria-kasuetarako eta sexu-erasoen biktima helduentzako programa klinikoa.
- Familian bertan edo kanpoan tratatu txarren eta/edo sexu-erasoen biktima diren adingabeentzako programa klinikoa.

20. taula. Tratu txarrak eta sexu-erasoak gertatzen direnean, familian esku hartuz laguntza psikologikoa emateko Bizkaiko programa (2009)

PROGRAMAK	Lagundutako emakume biktimak		GUZTIRA
	2009ko paziente berriak	2009/01/01ean tratamenduan zeuden pazientek	
Familiako indarkeria-kasuetarako eta sexu-erasoen biktima helduentzako programa klinikoa	389	271	660
Tratu txarren biktimak	365	259	624
Sexu-arazoan biktimak	24	12	36
Familian bertan edo kanpoan tratatu txarren eta/edo sexu-erasoen biktima diren adingabeentzako programa klinikoa	22	16	38
<b>LAGUNDUTAKO EMAKUME BIKTIMAK GUZTIRA</b>	<b>411</b>	<b>287</b>	<b>698</b>

Iturria: geuk egina, Bizkaiko Foru Aldundiak emandako datuak oinarri hartuta.

20. taulako datuez gain, psikologikoki lagundu dituzten zeharkako biktimak (familiakoak) aipatu behar dira; 2009an, hain zuzen, 42 pertsona izan dira. Horietatik gehienak emakumeak izan





dira %88) eta honela daude banatuta: 31 kasu berri, eta beste 11 2009ko urtarrilaren 1ean jada tratamenduan zaudenak.

Lurralde horretan, gainera, familian esku hartzeko programa bat du Bizkaiko Foru Aldundiak, etxean emakumeen aurka egiten den indarkerian espezializatua; programa hori bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren biktima diren eta erasotzailea bizi den etxean jarraitzen duten edo itzuli diren emakumeentzat da, bai eta familia-unitate horiekin bizi diren adingabeentzat ere.

Amaitzeko, Gipuzkoari dagokionez, Gipuzkoako Foru Diputazioak eta Gipuzkoako Psikologoaren Kolegio Ofizialak sinatutako hitzarmenaren bidez ematen dute zerbitzu hori, eta 15 udalerritan du eragina: Donostia, Irun, Andoain, Arrasate, Azpeitia, Beasain, Bergara, Eibar, Errenteria, Hernani, Ordizia, Pasaia, Tolosa, Urretxu eta Zarautz. Lurralde honetan, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez soilik erabil daiteke zerbitzu hori.

Segidan dagoen taulan (21. taula), etxean tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza psikologikoa emateko Gipuzkoako Foru Diputazioaren programaren bidez artatu den biktima-kopurua jaso da.

21. taula. Laguntza psikologikoaren programak Gipuzkoan

2009KO PAZIENTE BERRIAK INDARKERIA-MOTAREN ARABERA	Lagundutako emakume biktimak
Etxeko tratu txarrak	446
Sexu-erasoa	46
<b>LAGUNDUTAKO EMAKUME BIKTIMAK GUZTIRA (KASU BERRIAK)</b>	<b>492</b>

Iturria: geuk egina, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako datuak oinarri hartuta.



### 3.5.4. Bestelako baliabideak eta programak

#### a) Abokatu-laguntzako ofiziozko txanda

Jada funtzionamenduan diren aholkularitza juridikoaren zerbitzuak osatzeko, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailak, Legelarien Euskal Kontseiluarekin batera, Erkidegoko abokatu-elkargo guztietan ofiziozko txanda espezifikoa sortzea sustatu du, genero-indarkeriaren biktimei berehalako abokatu-laguntza integrala eta espezializatua emateko.

Laguntza hori ofiziozko txanda espezifikoko profesionalak ematen dute eta doakoa da, honako jardura hauei dagokienez:

- Hala dagokionean, salaketa jarri eta babes-agindua eskatu aurretik ematen den aurrez aurreko aholkularitza-zerbitzua.
- Salaketa jartzeko eta babes-agindua eskatzeko abokatu-laguntza.
- Hala badagokio, babes-agindua hartzeko agerraldian abokatu-laguntza, bai eta epaiketa azkarrean ere, baldin eta agerraldian bertan edo hurrengo egunetan egiten bada.

#### b) Biktimei Laguntzeko Zerbitzuak (BLZ)

Halaber, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailaren mende daude, eta, fisikoki, Vitoria-Gasteizko, Bilboko, Barakaldoko eta Donostiako epaitegietan daude.

Biktimei laguntzeko zerbitzuen xedea da edozein delitumotaren biktimei laguntza juridikoa, psikologikoa eta soziala ematea (hau da, genero-indarkeriaren biktimez gain, baita bestelako delituen biktimei ere), sor daitezkeen prozedura polizial eta judizialetan.

BLZek honako zerbitzu hauek ematen dituzte:

- Biktimei dituzten eskubideei eta lege-prozedurei buruzko informazioa ematea: erantzukizun zibila, doako laguntza



juridikoa, ekintza penalak, laguntza ekonomikoak, gizarte-baliabideak...

- Hasierako laguntza zehatza ematea: egin beharreko tramiteak ondo egin direla egiaztatzea, kautela-neurriak, arazoari buruzko informazio zehatza, sare sozio-sanitariora bideratzea, familiarekiko harremana...
- Laguntza jarraitua ematea: etengabeko informazioa, bilakaeraren jarraipena, laguntza psikologikoa, gizarte-baliabideetara bideratzea, epaiketetara eta deklarazioetara laguntzea...
- Banakako eta gizarteko baliabideak abian jartzea.
- Babes-agindua duten biktimei laguntzea.

### c) Etxebizitza-alorreko laguntzak

Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailak Agindu bat eman zuen 2006ko urriaren 4an, genero-indarkeriaren biktime diren emakumeentzat<sup>14</sup> etxebizitza-arloko ekintza positiboko neurriei buruzkoa; abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren —genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoa— 1. artikuluari jarraiki, Agindu honen aplikazio-eremuan sartzen dira indarkeriaren biktime diren emakumeak, betiere haien bikotekideek edo bikotekide izandakoek edo antzeko afektibitate-loturak izan dituztenek —elkarrekin zertan bizi gabe— gauzatu badute indarkeria emakume horiengan, diskriminazioaren, desoreka-egoeraren eta gizonek emakumeengan duten botere-harremanaren adierazpen gisa.

Agindu horrek ekintza positiboen bi neurri ezarri zituen emakume horientzat:

- Tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzat kupo berezi bat sortzea alokairu-erregimeneko Babes Ofizialeko Etxebizitzen zozketarako.
- Egoera larrietan eta salbuespenekoetan, alokairu-erregimeneko etxeak zuzenean esleitzea; larritasuneko eta

<sup>14</sup> 2006ko urriaren 11ko EHAA.



salbuespeneko egoera hori neurtzeko, honako ezaugarri hauek hartuko dira kontuan: eskatzailea udaleko edo foru-diputazioko harrera-etxeen/zentroen erabiltzaile izatea, bere egonaldi-denbora amaitu eta bertan jarraitzeko aukerarik ez duena; denboraldi batean etxea bilatzen aritu arren lortu ez izana; eta etxean hartuko duen gizarte-sarerik edo familiakorik ez izatea.

Era berean, Agindu horren 7.4. artikuluan beste neurri bat ezarri da, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren — genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoa— 64. artikuluan xedatutakoari jarraiki; hau da, eskatzailea jabekidea den etxebizitzaren erabilera trukatzeko aukerarekin lotura handiagoa duen neurria, epaileak horretarako baimena eman duen kasuetan<sup>15</sup>. Beraz, Lege Organikoan xedatutako neurri bat da, eta, horren bidez, epaileek salbuespenezko ahalmena izango dute erabaki hori hartzeko prozedura judizialen baitan; orain arte, gure erkidegoan ez da horrelakorik gertatu.

2009. urteari dagokionez, hurrengo lerroetan ekintza positiboko bi neurri horietako bakoitzari buruzko datuak jaso dira.


### *Tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako kupo berezia*

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren Etxebide zerbitzuak emandako datuen arabera, genero-indarkeriaren biktime direla egiaztatu duten emakumeen 153 espediente daude; horiek alokairu-erregimeneko etxebizitza-esleipenen prozeduretan parte hartzen ari dira, eskatu duten udalerrri guztietan. Segidan, grafiko bat egin da, 153 espediente horien lurralde-banaketa adierazteko.

---

<sup>15</sup> Genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 64. artikuluan, honako hau jaso da etxetik irteteko, urruntzeko eta komunikazioak eteteko neurriei dagokienez: "Epaileak, salbuespeneko egoeretan, honako hau baimendu ahal izango du: babestutako pertsonak jabekide den familia-etxeari esleitutako erabilera beste etxe baten erabilerarekin trukatzeko hitzarmena egitea, zehaztutako denboran eta baldintzetan, besteak beste etxeen alokairu-jarduerak egiten dituen agentzia edo sozietate publiko batekin (dagoen lekuan dagoela),

20. grafikoa. Genero-indarkeriaren biktima diren eta alokairu-erregimeneko etxebizitza-esleipenen prozeduretan aktibo dauden emakumeen espedienteak, lurralde historikoen arabera (2009)




Iturria: geuk egina, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak emandako datuak oinarri hartuta.

Grafikoan ikus daitekeen bezala, espediente gehienak Bizkaikoak dira (%60); atzetik, oso urrun daude Arabako eta Gipuzkoako espedienteak (%22 eta %18, hurrenez hurren).

Bizikidetzta-unitateko kide-kopuruari dagokionez, 21. grafikoan egindako eskaeren banaketa adierazi da; bertan ikus daitekeenez, kasu gehienak (10etik 7) bi edo hiru kidek osatutako bizikidetzta-unitateei dagozkien espedienteak dira.

21. grafikoa. Genero-indarkeriaren biktima diren eta alokairu-erregimeneko etxebizitza-esleipenen prozeduretan aktibo dauden emakumeen espedienteak, bizikidetza-unitateko kide-kopuruaren arabera (2009)



Iturria: geuk eginda, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak emandako datuak oinarri hartuta

Bestalde, azpimarratu behar da Etxebiden izena emateko eskabide bakar bat ere ez dela atzera botatzen genero-indarkeriaren biktima ez izateagatik. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat etxebizitza-arloko ekintza positiboko neurriei buruzko 2006ko urriaren 4ko Aginduaren 3. artikuluan zehaztutako baldintza egiaztatzen ez bada, emakumeek dagokien kupoan hartuko dute parte.

Gogorarazi behar da, halaber, kupo espezifiko batean parte hartzeko aukerak alokairu-erregimeneko prozeduretarako soilik balio duela; beraz, etxea erosketa-erregimenean eskatuz gero, dagokien kupoan sartuko dira (35 urtez azpikoak, banandutako emakumeak, desgaitasunen bat dutenak...).

Gainera, azpimarratu behar da genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei dagozkien 153 espediente horiek guztiak salbuetsi egin direla, oro har, honako baldintza hauek betetzetik:



- Batetik, gutxieneko diru-sarreraren baldintza, martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren —babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzkoa— 19. artikulua amaieran eta 2006ko urriaren 4ko Aginduaren (aurrez aipatua) 7.3. artikuluan xedatutakoari jarraiki. Horrela, beraz, edozein kupotan sar daiteke aurrez diru-sarrerak egiaztatu beharrik gabe; hau da, 0 eurotik hasita.
- Eta bestetik, parte hartu nahi den edozein udalerritan erroldatuta egoteko baldintza, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat etxebizitza-arloko ekintza positiboko neurriei buruzko Aginduaren 7.3. artikuluan (aurrez aipatua) xedatutakoari jarraiki.

Amaitzeko, adierazi behar da 2009ko ekitaldiko prozedura arruntetan (hau da, etxebizitzaren zozketan) sartu diren 153 espedienteetatik 6 emakume izan direla esleipendunak; hau da, espediente guztien %4 baino ez.


Nolanahi ere, adierazi behar da zenbait emakumek ekitaldi horretan zozketarik egin ez den udalerrietan eskatu dutela etxebizitza; badira, halaber, etxea erosketa-erregimenean eskatu dutenak ere, eta, beraz, horiek dagokien kupoan hartuko dute parte.

### *Alokairu-erregimeneko etxebizitzaren zuzeneko esleipenak*

2009an, 16 etxebizitza esleitu dira guztira; horiek, hain zuzen, honela banatu dira lurralde historikoak aintzat hartuta (22. grafikoa).



22. grafikoa. Alokairu-erregimeneko etxebizitzan zuzeneko esleipenak, lurralde historikoen arabera (2009)



Iturria: geuk egina, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak emandako datuak oinarri hartuta

Alokairu-erregimeneko etxebizitzan zuzeneko esleipen-prozeduretan parte hartu duten eta genero-indarkeriaren biktime diren emakumeen espedienteekin gertatu bezala, zuzeneko esleipen orokorretan ere (neurri handiagoan, gainera) esleipen gehienak Bizkaian egin dira; atzetik, bigarren eta hirugarren lekuan gelditu dira Araban eta Gipuzkoan egindako esleipenak, baina oso urruti. Bizkaian, bi udalerrri nabarmendu behar dira: hiriburua, Bilbo, eta Santurtzi.

Eskaera egin duten instituzioei dagokienez, 22. taulan jaso da horien banaketa.

22. taula. Zuzeneko esleipen-neurria eskatu duten instituzioak (2009)

INSTITUZIO ESKATZAILEAK	ESKAERA-KOPURUA
Vitoria-Gasteizko Udala	2
Bizkaiko Foru Aldundia	3
Bilboko Udala	4
Galdakaoko Udala	2
Santurtziko Udala	2
Sestaoko Udala	2
Lasarte-Oriako Udala	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>16</b>

Iturria: geuk egina, Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraio Sailak emandako datuak oinarri hartuta



Segidan, taula bat egin da (23. taula), eta, bertan, neurri horren onuradun izan diren eta, beraz, zuzenean alokairu-erregimeneko etxe bat esleitu zaien emakumeen ezaugarri soziodemografiko nagusiak jaso dira (nazionalitatea, adina, egoera zibila eta bizikidetz-unitateko kideak).

Ikus daitekeen bezala, neurri horren onuradunen %50 espainiarrak dira, eta gainerako %50a atzerritarrak.

Bestalde, azpimarratu behar da zuzeneko esleipenaren onuradun izan diren emakume horien %69 banatuta edo dibortziatuta daudela edota banatze-izapideak egiten ari direla, eta gainerako %31 ezkongabeak direla.

Emakume horien adinari dagokionez, laguntza horren onuradun diren emakumeen %69, gutxi gorabehera, 31-40 eta 41-50 urteko adin-tarteetakoak dira; zehazki, emakumeen %37k 31-40 urte dituzte, %31k 41-50 urte, %13k 51-60 urte, beste %13k 60 baino gehiago eta, azkenik, %6k 18-30 urte.

Bizikidetz-unitateari dagokionez, alokairu-erregimeneko etxea zuzenean esleitu zaien onuradunen %37,5ek seme edo alaba bakarra du, %31 bakarrik bizi diren emakumeak dira, emakumeen beste %12,5ek bi seme-alaba ditu, eta, azkenik, gainerako %19 3 seme-alaba edo gehiago dituzten emakumeak dira.

23. taula. Zuzeneko esleipenaren onuradun diren emakumeen ezaugarri  
soziodemografikoak (2009)

EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK	EMAKUME-KOPURUA
<b>NAZIONALITATEA</b>	<b>16</b>
Espainiarra	8
Atzeritarra	8
Latinoamerikarra	4
Afrikarra	2
Europarra	2
<b>EGOERA ZIBILA</b>	<b>16</b>
Ezkongabea	5
Ezkondua (banantze- edo dibortzio-demanda ezarrita)	2
Banandua	2
Dibortziatua	7
<b>ADINA</b>	<b>16</b>
18 urte baino gutxiago	0
18-30	1
31-40	6
41-50	5
51-60	2
60 baino gehiago	2
<b>BIZIKIDETZA-UNITATEA</b>	<b>16</b>
Kide bat	5
2 kide	6
3 kide	2
4 kide	2
5 kide	1

Iturria: geuk egina, Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraio Sailak emandako datuak oinarri hartuta

Amaitzeko, zuzeneko esleipenei dagokienez adierazi behar da aurkeztutako eskaera guztiak onartu dituztela, eskaeren %100, beraz; izan ere, etxe horien eskaerak dagokien diputazioak, emakumeak bizi diren udalerrietako alkatetzek edo gai horretan eskumena duten zinegotzigoek izenpetu dituzte (2006ko urriaren 4ko AGINDUaren 6.2. artikulua) eta, horrez gain, eskaera egin aurretik, kasu bakoitza xehetasunez aztertu du etxebizitza-eskaera sinatu duen instituzioak.

#### d) Enplegu-alorreko eskubideak eta laguntzak

Abenduaren 23ko 329/2003 Dekretuaren bidez, enplegu-alorreko laguntzak arautzen dira; besteak beste, 6.1. h) artikuluan, honako hau adierazten du talde onuradunei buruz: "Kapitulu



honetan ezarritako laguntzen onuradunak pertsona fisiko eta juridikoak izan daitezke, ondokoak izan ezik: administrazio publikoak, erakunde autonomiadunak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta horien mendeko enpresa publikoak. Hala ere, salbuespen gisa, toxikomano ohiak kontratatzen direnean, udalak eta udal-erakundeak ere (hala nola, udal-elkarteak, udalerrietako mankomunitateak, koadrilak eta toki- eta eskualdegarapen agentziak) onuradun izan daitezke". Horretarako, besteak beste, honako talde hauetako pertsonak kontratatu behar dituzte: "etxeko indarkeriaren biktima izan diren pertsonak. Pertsona horiek edo beren seme-alabek ezkontidearen edo antzeko afektibitate-harreman baten bidez era egonkorrean lotuta dagoen edo egon zen bikotekidearen indarkeria fisikoa edo psikikoa jasaten dutenean ulertuko da pertsona horiek adierazitako egoeran daudela, betiere gertaera horiek dagokien polizia-erakundearen edo erakunde judizialaren aurrean salatu badira".

2009. urtean, laguntza-mota horren onuradun izan dira genero-indarkeriaren biktima emakumeak kontratatu dituzten bi enpresa; bata lanaldi partzialeko kontratu bat izan da, Bilbon, eta bestea kontratu mugagabe bat, Donostian.

Gaineratu behar da 4 eskaera egin direla kontzeptu hori dela-eta; zenbaketa orokor bat eginda, 387 enpresari eman zaie laguntza genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei nahiz lanean hasteko zailtasun bereziak dituzten beste taldeei enplegua emateagatik; horietatik 199 enpresak emakumeak hartu dituzte lanerako eta 188k gizonak.



### 3.6. ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA

Genero-indarkeria oso errotuta dagoen egitura-arazoa da, eta hori konpontzeko hainbat eta hainbat instituziok esku hartu behar dute; hori dela-eta, instituzio horien arteko koordinazioa, eremu guztietan hain beharrezkoa dena, funtsezkoagoa da gizarte-arazo larri horrekin amaitzeko.

Horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza arduratzen da genero-indarkeriaren biktimen prebentziorako eta horiei laguntzeko programa integralak hainbat erakunde publikoren eta administrazio publikoren artean eratzea koordinatzeaz. Koordinazio hori, hain zuzen, *Instituzioen arteko II. Akordioako Tratu Txarren eta Sexu-erasoen Jarraipenerako Batzordearen* bidez egiten da kasu horietan, eta bestelako koordinazio-formula batzuen bidez beste indarkeria-mota batzuetan. Horrez gain, Genero-indarkeriaren Biktimei laguntzeko Zuzendaritzak Eusko Jaurlaritzak genero-indarkeriaren alorrean eramaten duen politika koordinatu behar du; hau da, autonomia-erkidegoko Administrazio Orokorraren baitan genero-indarkeriaren biktimen prebentziorako eta horiei laguntzeko garatzen diren programak eta proiektuak gainbegiratu eta horien jarraipena egiten du, Zuzendaritza eratzeko Dekretuan aurreikusitako Jarraipen Batzordearen bidez. Hain zuzen, batzorde hori da Gobernuaren leihatila bakarra; txosten hau egin bitartean, zehazki, izapidetze-fasean dago.



### 3.7. POLIZIA-JARDUERA<sup>16</sup>

#### 3.7.1. Arriskua neurtzeko irizpideak eta irizpide horiek aplikatzeko protokoloak

Ertzaintzak kalitatea kudeatzeko sistemaren baitan du Etxeko eta/edo Genero Indarkeriaren Prozesua; zehazki, AENOREK ZIURTATZEN du komisaria guztietan, UNE IN ISO 9001-2000 arauaren bidez.

Prozesu horretan, etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktima aurkitzen den arrisku-egoera neurtzeko modua deskribatzen da; hau da, arrisku-maila identifikatu eta poliziaren babes-neurriak zehazten dira, kasu eta egoera bakoitzaren arabera.

Etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren biktima batek duen arriskua neurtzeko zehaztutako sisteman, arrisku-maila bat ezartzen da kasu bakoitzaren ageriko eta zuzeneko alderdiei buruzko datu objektiboak eta subjektiboak oinarri hartuta; hau da, biktimak eta erasotzaileak emandako informazioa, esku hartu duten polizia-baliabideek emandakoa, gertaeraren lekua, lekukoak eta eskuragarri dauden datuen oinarriak.

Balorazio horiek hainbat pertsonak egiten dituzte komisariako egituraren baitan, bai eta momentu desberdinetan ere.

Arriskua neurtzeko sistema hori EHUKo talde baten laguntzaz egin zen, Enrique Etxeburua Psikologiako katedradunaren zuzendaritzapean. Egiten diren balorazioetan, arriskua honako mailen arabera banatzen da: oinarritzakoa, altua eta berezia.

2009. urtean, Herrizaingo Saileko Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak bultzatuta, eskala hori berrikusi eta balioztatu da; horrez gain, 2010. urtean eskala horren fidagarritasuna eta baliozkotasuna hobetzeko ezarriko diren zenbait ezaugarri sartu dira: itemen haztapen berezia horien diskriminazio-ahalmenaren arabera...

<sup>16</sup> Atal honetan jaso den informazioa Ertzaintzaren Zuzendaritzaren Idazkaritza Teknikoak eman du.



### 3.7.2. Poliziaren babes-neurriak abian jartzeko baldintzak edo betekizunak

Salaketen, jardueren edota ofizioen bidez Ertzaintzak etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren biktima baten berri izan eta berehala, biktimaren egoera aztertzen du, eta, gero, kasu edo egoera bakoitzaren arabera, poliziaren babes-neurriak zehazten ditu; aldi berean, espediente bat irekitzen da, eta, bertan, biktimarekin nahiz erasotzailearekin lotutako guztia jasotzen da.

Arrisku-egoera neurtzea eta, horren ondorioz, poliziaren babes-neurriak hartzea Operazioen Buruzagitzari dagokio, lehenik eta behin.

Gero, Espedientearen Instrukzio Organoak aztertu egin behar du, hartutako erabakia eta zehaztutako poliziaren babes-neurriak berresteko edo aldatzeko. Azterketaren arduraduna etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren espedientearen sartzeaz arduratuko da; arriskua identifikatzea errazten duen kasuari buruzko informazio berria dagoen aldiro, arriskua neurtu eta poliziaren babes-neurriak hartuko dira, eta hala egin beharko da honako kasu hauetan ere:

- Etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren gertaera bat jaso duen Zutabe tresna informatikoaren jarduera amaitzean.
- Etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren salaketa bat aurkezten denean.
- Etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren gertaera bati buruzko atestatua Epaitegira bidatzen den lehen aldian.
- Babeserako ebazpen judiziala jasotzean.
- Biktimarekin aldi behingo hizketaldia izan eta gero.

Zehazki, honako hauek dira poliziaren babes-neurriak:

- Zaintza iraunkorra.
- Egunerokotasuneko prebentzio-jarduerak.
- Babes-zonako prebentzio-jarduerak.
- Babeserako unean uneko jarduerak.
- Biktimei egiten zaizkien ausazko bisitak.
- Erasotzailearen zaintza eta jarraipena.
- Telefono bidezko ausazko egiaztapenak.





- Lekualdatzeak eta lagun egiteak.
- Norbere babeserako neurrien prestakuntza.
- "Bortxa" telefonoa (Ertzaintzarekin zuzeneko harremana izateko telefono mugikorra, baliabideak berehala mugitzeko). Sistema hori baliabiderik bizkorrena eta egokiena da biktimekin ahalik eta harremanik zuzenena eta berehalakoena izateko.
- Beste batzuk.

### 3.7.3. Hainbat arrisku-egoeren aurrean abian jartzen diren neurri zehatzak

Biktimarentzako poliziaren babes-neurriak derrigorrezkoak ala aukerakoak izan daitezke kasu bakoitzaren arrisku-mailaren arabera.

**Oinarrizko** arriskuaren mailan *derrigorrezkoak* dira:

- Norbere babeserako neurrien prestakuntza.
- Telefono bidezko ausazko egiaztapenak.

**Oinarrizko** arriskuaren mailan, aukerakoak dira:

- Biktimei egiten zaizkien ausazko bisitak.
- Lekualdatzeak eta lagun egiteak.
- Babeserako unean uneko jarduerak.
- Babes-zonako prebentzio-jarduerak.
- Egunerokotasuneko prebentzio-jarduerak.
- Neurri teknologikoak: Bortxa telefonoaren eskaintza.
- Erasotzailearen zaintza eta jarraipena.

Arrisku-maila **altuan** eta **berezian**, berriz, *derrigorrezkoak* dira honako neurri hauek:

- Norbere babeserako neurrien prestakuntza.
- Telefono bidezko ausazko egiaztapenak.
- Neurri teknologikoak: Bortxa telefonoaren eskaintza.

Arrisku-maila **altuan** eta **berezian**, berriz, *aukerakoak* dira honako neurri hauek:



- Biktimei egiten zaizkien ausazko bisitak.
- Lekualdatzeak eta lagun egiteak.
- Babeserako unean uneko jarduerak.
- Babes-zonako prebentzio-jarduerak.
- Egunerokotasuneko prebentzio-jarduerak.
- Erasotzailearen zaintza eta jarraipena.

Halaber, *aukerakoa* da arrisku-maila berezian etengabeko zaintza.

Amaitzeko, arrisku-egoeran dauden emakumeei poliziaren babesa emateari dagokionez, adierazi behar da Ertzaintzak, guztira, 1.524 jarduera egin dituela 2009. urtean, etxeko indarkeriarekin edo genero-indarkeriarekin edo sexu-askatasunaren aurkako delituekin lotutako arau-hausteren bati berehalako erantzuna emateko. Kopuru horrek, hain zuzen, komisariako instalazioetatik kanpo Ertzaintzaren baliabide bat edo hainbat mugiaraztea beharrezko izan den erasoei egiten die erreferentzia.

2009an gauzatutako babes-neurriei eta, horien baitan, prebentzio-jarduera zorrotzari (oinezko zaintza, autoetakoa, lekualdatzeak...) dagokienez, familia-eremuarekin lotutako 101.239 jarduera jaso dira. Ezin da zehazki adierazi jarduera horietako zenbatetan izan den emakumea jarduera-xede; dena den, baieztatu daiteke horietako gehienetan izan dela.



### 3.7.4. Arriskurik eza eta, horren ondorioz, babes-neurrien premiarik eza aztertzeako irizpideak eta/edo horiek eteteko jarraibideak

Espedientearen Instrukzio Organoak erabakiko du noiz amaituko den behin betiko jarduera hori edota behin-behinean noiz artxibatuko den.

Behin-behinean artxibatzeak aldi baterako egoera adierazten du; beraz, Instrukzio Organoak berrikusi egin beharko du, baldintzak aldatu diren ikusteko eta, horren ondorioz, kasua behin betiko ixtea edo berriro irekitzea erabakitzeke.

Etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren espediente bat behin-behinean artxibatu edo behin betiko itxi ahal izango da honako egoera hauetan:

- Gutxienez bi hilabete baino gehiagoan, biktima EAetik kanpo biziko dela jakitea.
- Babeserako ebazpen judiziala indarrean ez egotea, biktimaren arrisku-maila altua edo berezia ez izatea eta biktimak adieraztea hiru hilabete daramatzala tratu txarrik jaso gabe; azken kasu horri dagokionez, indarkeria-gertaerarik gabeko lehenengo zikloaren ondoren, behin-behineko artxibatzea egiten da, eta, egoera berean beste hiru hilabete pasatzean, espedientea behin betiko ixten da.
- Erasotzaileak mugitzeko askatasunik ez izatea; hau da, atxilotuta egotea, kartzelan, ospitaleratuta...
- Erasotzailea edo biktima bera hiltzea.
- Udaltzain bat kasua aztertzen aritzea.

Poliziaren babes-neurriak etetea erabakitzen duen Operazioen Buruzagitzak edo Instrukzio Organoak honako hauek jaso beharko ditu espedienteetan:

- Erabakia hartzen duen eguna eta ordua.
- Erasotzaileak mugitzeko askatasunik izango ez duen ustezko denbora.
- Babesa eteteko arrazoia.



- Erasotzailea egoera horretan egongo dela egiaztatzen egin beharko diren kudeaketak, eta horiek nork egin beharko dituen.

Behin-behinean itxitako edo artxibatutako espedienteak berriro ireki beharko dira etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren beste gertaera batzuk izan direla jakiten denean.

Nolanahi ere, kasua udaltzain bati egokitu arren, polizia-erakunde horrekin lankidetzan biktima babesteko lanak eginez gero, neurriak aktibatu eta egiten ari diren jarduerak espedienteen jasoko dira.

Operazioen Buruzagitzak aurrez neurriak etetea erabakitzen badu, Espedientearen Instrukzio Organoak erabakia aztertu eta berretsi, aldatu edo bertan behera utzi beharko du, bai eta espedienteen horren berri jaso ere; horretarako, beste balorazio bat egingo du hartutako erabakia eta zehaztutako poliziaren babes-neurriak berresteko edo aldatzeko.

2009an eten diren babes-neurriei eta erabaki hori eragin duten kausei buruzko datuak 24. taulan adierazi dira. Bertan ikus daitekeenez, 2009an, etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren 1.324 espediente artxibatu dira behin-behinean edo itxi dira behin betiko; funtsean, hiru hilabetean erasorik izan ez dela-eta behin-behinean artxibatu diren espedienteak eta 6 hilabeteko epean gertaerarik izan ez dela-eta behin betiko itxi diren espedienteak azpimarratu behar dira (behin-behinean artxibatutako edo behin betiko itxitako espedienteen %52 eta %27, hurrenez hurren).



## HERRIZAINGO SAILA

Genero-indarkeriaren Biktimei  
Laguntzeko Zuzendaritza

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

Dirección de Atención a las Víctimas  
de la Violencia de Género

## 24. taula. Babes-neurriak etetea eta hori eragin duten kausak (2009)

BABES-NEURRIAK ETETEA ETA HORIEN KAUSAK	ESPEDIENTE-KOPURUA
Erasoaren ondorioz gertatu den biktimaren heriotza dela-eta, behin betiko ixtea	2*
Beste arrazoi batzuen ondorioz biktima hiltzea dela-eta, behin betiko ixtea	7
Erasotzailearen heriotza dela-eta, behin betiko ixtea	3
3 hilabeteen erasorik izan ez dela-eta, behin-behinean artxibatzea	697
6 hilabeteen erasorik izan ez dela-eta, behin betiko ixtea	353
Bizilekuz aldatzea dela-eta, behin-behinean artxibatzea	28
Bizilekuz aldatzea dela-eta, behin betiko ixtea	122
Titulartasuna beste polizia batzuei pasatzeagatik behin betiko ixtea	4
EI-GIren ezaugarriak ez betetzeagatik ixtea	108
<b>ARTXIBATUTAKO EDO ITXITAKO EI-GIren ESPEDIENTEAK GUZTIRA</b>	<b>1324</b>

Iturria: geuk eginda, Ertzaintzaren Zuzendaritzako Idazkaritza Teknikoak emandako datuak oinarri hartuta.

\* Bi kasu horietan, Ertzaintzak aurrez ez zuen egoeraren berri; horregatik ez zuen EI-GIren espedienterik irekita eta, beraz, ezta poliziaren babes-neurririk ere.



### 3.7.5. Alor horri dagokionez, Ertzaintzaren eta udaltzaingoen arteko koordinazio-neurriak

Ertzaintzaren eta hainbat udaltzaingoren artean eratutako koordinazio-batzordeen baitan, etxeko indarkeria eta/edo genero-indarkeria aztertzen da; funtsean, bi akordio-mota daude:

- a) **Kasuaren erantzukizuna gertaeraren berri lehenengo izaten duen polizia-erakundeari ematen dioten akordioak;** horrez gain, informazio trukaturik ezagutza hori osatuko dute, kasu bakoitzean gerta daitekeen larrialdi-egoerari behar bezala erantzun ahal izateko, bereziki.
- b) **Erantzukizuna beti Ertzaintzak izango duen akordio zehatzak edo isilpekoak;** horiek osatzeko, kasu larrienei buruzko informazioa emango da (babes-agindua dutenak, arrisku-maila berezia...), kasu bakoitzean gerta daitekeen larrialdi-egoerarako, batez ere.

Laburbilduz, informazioa Etxeko indarkeriaren eta/edo genero-indarkeriaren Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren baitan "berehalako jarduerarako jarraibideak" atalean zehaztu da. Horien bidez, biktimari ulertarazi nahi diote oso garrantzitsua dela berak informazioa ematea; horrela, indarkeriazko beste gertaera bat izan eta patruilek jardun behar izanez gero, hobeto ezagutuko dituzte kasu bakoitzaren xehetasunak eta biktimaren nahiak: nori abisatu, seme-alabekin zer egin...

Hori dela-eta, honako gai hauei buruzko informazioa bildu nahi izaten da:

- Erasotzailearen arriskugarritasuna (altua/ertaina/baxua).
- Aurreko gertaeretako jokabide bortitzak (bai/ez).
- Armen erabilera (bai/ez) eta arma-motaren kodetzea.
- Polizia-aurrekariak.
- Gaixotasunak direla-eta kutsatzeko arriskua (bai/ez).
- Biktimak izendatutako pertsonen egin behar zaizkien jakinarazpenak.
- Biktimarekin edo adingabeekin egin beharreko jarduerak.
- Egin daitezkeen lekualdatzeak.



Orain arte, honako hitzarmen hauek egin dituzte hainbat komisariaren eta udaltzaingoa duten udalerrien artean:

**a) Araban:**

- Protokolo-hitzarmen bat dago Vitoria-Gasteizko Udaltzaingoarekin, eta, horren arabera, etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren ondoriozko jardueretan, gertaeraren berri lehenengo izaten duen erakundeak du titulartasuna; horrez gain, kasuei buruzko informazioa trukatzeko da.
- Laudioko eta Amurrioko udaltzaingoekin, babes-ofizioei buruzko informazioa trukatzeko da, larrialdi-egoeran biktimari ahalik eta erantzun hobereana emateko. Babes-aginduen jarraipena atestaturia egin duen polizia-erakundeak egingo du.
- Laguardiako Udaltzaingoarekin informazioa trukatzeko akordio bat dago, larrialdi-egoeretan biktimari ahalik eta erantzun onena emateko.

**b) Bizkaian:** Bilbo, Basauri, Santurtzi eta Portugalete udalerrietan salbu (horien koordinazio-batzordeetan erabaki da etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren ondoriozko jardueretan gertaeren berri lehenengo izaten duen polizia-erakundeak izango duela titulartasuna), gainerako udalerriekin erabaki da informazioa trukatzeko, batez ere larrialdian laguntzeko eta Udaltzaingoa nahiz Ertzaintzak EI-GIren egoerei buruz izan dezaketen datu berriren bat jakiteko.

**c) Gipuzkoan:** Donostia, Irun eta Hondarribiarekin izan ezik (lehenengo eginbideak soilik egingo dira), gainerako udalerriekin informazioa trukatzeko erabaki da, bai larrialdietan erantzun ahal izateko, bai Udaltzaingoa nahiz Ertzaintzak EI-GIren kasu larrienei buruz izan ditzaketen datu berriak jakiteko.





### 3.8. GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO ZUZENDARITZAREN ETORKIZUNeko ERRONKAK

Txosten hau amaitzeko, hurrengo lerroetan, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak etorkizuneko erronkatzat hartu dituen eta aurrerantzean ere bere hiru jarduera-ardatzetako bakoitzean landuko dituen funtsezko zenbait gai aurkeztuko dira:

#### 3.8.1. Genero-indarkeriaren biktimentzako laguntza

- a) Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza *Gobernuaren leihatila bakar* bihurtzea.
- b) *Arreta eta informazioa*
  - Estatistika eguneratuak antolatzea, aztertzea eta hedatzea.
  - Eguneko 24 orduetan funtzionamenduan egoten den telefono bidezko doako arreta-zerbitzua kudeatzea eta etengabe hobetzea: 900 840 111.
- c) *Diru-laguntza*
  - Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko programa gauzatzea<sup>17</sup>.
  - 4/2005 Legearen 58.4. artikuluan xedatutako laguntza ekonomikoen lege-garapena egitea eta horiek izapidetzea.
- d) *Babesa*
  - Kalitate-irizpideak oinarri hartuta, Ertzaintzak sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntzeko egiten dituen jarduerak berrikustea.
  - Sexu-esplotazioko helburuarekin egiten diren salerosketen biktima diren emakumeei ematen zaien laguntzaren hobekuntza ikertzea.
  - Bikotearen aurkako Arrisku Larria Aurreikusteko Tresna berrikustea.
  - Biktimen gogobetetze-inkestak kanpora ateratzea.
  - EAEn, GPS sistemak ezartzea.

<sup>17</sup> Agindua, 2010eko martxoaren 3koa, Herrizaingo sailburuarena, horren bidez, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan xedatutako diru-laguntzak genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei eman eta ordaintzeko prozedura ezarri da (2010eko martxoaren 8ko EHAA).

**e) Laguntza integrala**

- Genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko ekimenak sustatzen dituzten erakundeentzako laguntzen deialdia.
- Genero-indarkeriaren Biktimentzako Babes Integraleko Legea.
- Hautemandako arazoei edo gizarte-arazo larri horri dagokionez konpondu beharreko gaii buruzko lan-taldeak.
- Jarduera-gidak eta -protokoloak egitea, eta hainbat elkarteren eta instituzioen arteko koordinazioa sustatzea, prostituzio behartuko eta emakume-salerosketaren kasuetarako.
- Sexu-jazarpena jasaten duten emakumeentzako ekimenak.

**3.8.2. Instituzioen arteko koordinazioa eta lankidetzak**

- a) Hainbat erakunderen eta administrazio publikoren artean genero-indarkeria prebenitzeko eta indarkeria-mota horren biktimei laguntzeko programa integralak egin ditzaten koordinatzea.*
- b) Eusko Jaurlaritzak genero-indarkeriako alorrean duen politika koordinatzea.*
- c) Genero-indarkeria errotik moztea sustatzen duten EAEko hainbat organotan parte hartzea.*
- d) Biktimei informazioa ematen, laguntzen eta horiek babesten esku hartzen duten talde profesionalen prestakuntza espezializatua sustatzen bultzatzea.*

*Genero-indarkeriaren aurkako borrokan, toki-protokoloak bultzatzea eta gainbegiratzea*

- Toki-protokoloen eraketa bultzatzea.
- Jada eginda dauden protokoloak gainbegiratzea.

**f) Estatuko instituzioen arteko lankidetzak hobetzea**

- Berdintasun Ministerioarekin hitzarmena egitea, 016ra egiten diren deiak erkidegoko telefonora bideratzeko: 900 840 111.
- Tratu txarren emailak berriz hezteko programa bat ezartzeko proiektu pilotu bat koordinatzea; programa hori, hain zuzen, hainbat autonomia-erkidegotan jarriko da abian.



### 3.8.3. Indarkeriaren sentsibilizazioa, prebentzioa eta ikerketa

#### *a) Gizarte osoa sentsibilizatzea genero-indarkeriaren aurka*

- Genero-indarkeria gaitzesteko hainbat erakundek antolatutako ekintzetan eta ekimenetan parte hartzea.
- EAEn gertatutako genero-indarkeriaren ekintzak publikoki gaitzestea.

#### *b) Prebentzioan eta ikerketan lan egitea gizarte-izurri hori desagerrarazteko*

- Genero Indarkeriaren Euskal Behatokia eratzea eta abian jartzea.
- Informazio-liburuxkak hainbat hizkuntzatan egitea, biktimei hizkuntza-berezitasunei erantzuteko.
- Biktimei laguntzeko egiten diren jardueren eta jardute egokien azterketa eta analisisa sustatzea.
- Azterketa bat egitea, emakumeen aurkako sexu-erasoak nahiz sexu-askatasunaren aurkako beste delitu batzuk egitea prebenitzeko.

**HERRIZAINGO SAILA***Genero-indarkeriaren Biktimei  
Laguntzeko Zuzendaritza***DEPARTAMENTO DE INTERIOR***Dirección de Atención a las Víctimas  
de la Violencia de Género*

Lerro hauen bidez, instituzio, organizazio eta erakunde guztiak nahiz herritarrak, oro har, gonbidatu nahi ditugu gure ekintzen partaide izatera;  
izan ere, elkarrekin soilik lortuko dugu genero-indarkeriaren aurkako borrokan aurrera egitea.

**Elie Wiesel 1986ko Bakearen Nobel Sariak  
ongi adierazi zuenez:**

**“Basakerien aurrean agertzeko beharra dugu.  
Jokabide neutralak beti laguntzen dio zapaltzaileari,  
inoiz ez biktimari. Isiltasunak borrarera suspertzen du,  
inoiz ez sufritzen duena”.**